


Demokratak eta biolentoak



JOXE AZURMENDI

ELKAR

AZALA

Diseinua: J. Felix Igartua

Azpiko argazkia: Gema Arrugaeta

Egilearen argazkia: Aitor Bayo /J akin

Irudia: Garbiñe Ubeda

© Joxe Azurmendi

© ELKAR, S.L. Donostia. 1997

L.G. NA-2.046/1997

ISBN 84-7917-744-6

ELKAR S.L. Argitaletxea

Igarabidea, 88-bis - Tel. 310267 - Fax. 310216

20009 Donostia

18, Cap. Resplandy Etorbidea - Tel. (0)559593820

64100 Baiona

DEMOKRATAK
ETA BIOLENTOKAK

ATARIKOA

Bada gauza bat gaur egungo filosofian, eta pentsamendu unibertsitarioan oro har, niri batere gustatzen ez zaidana: munduari buruz hitz egin beharrean, munduaz halakok edo bestelakok esan zuenaz ari direla beti. Azalduko dut hau hobeki, XIX. mendeko adibide bat hartuta. Karl Marx, esaterako, bere garaiko langileriaren zapalkuntzak asaldaturik, filosofia berri bat taxutzen hasi zen, eta orduko sistema ekonomikoa aztertzen, alienazioa edo plusbalioa bezalako kontzeptuak finkatuz. Geroztik hamar mila pentsalari marxista izan ditugu, maisuaren irakatsiak komentatzen eta gaurkotzen ahalegindu direnak, eta gaur egun, berriz, autore bigarrentiar horien exegesiak egingo dituzte marxista modernoek: “proletargoaren diktaduraren analisisa Gramsciren obran”, “gainegituraren eta azpiegituraren arteko harremanak Marcuseren arabera” edo antzeko pitokeriak, ez langileei, ez burgesei, ez inori axola ez zaizkienak, egileei beraiei eta beren lagunei izan ezik.

Marxek klaseen arteko harremanaz egin zuenaren pa-rean jar genezake Freud, desira sexualari eta azpikon-tzientziaren analisiari dagokionez, edo Nietzsche bera, etikaren sorrerari buruzko lanekin. Hauei ere perretxikoak bezala sortu zitzaizkien jarraitzaileak eta interpretatzaile-ak, eta hauen ondoren interpretatzaileen interpretazioak egingo dituztenak eta abar: A-k munduari erreparatu zion eta bere usteak zabaldu; B-k A-ren gaineko komentarioa egiten du; gero C dator eta B-ri buruzko tesia plazaratzen du, baina aurki iritsiko da D, C-ren analisi zehatz bat egi-tera, eta horrela segi liteke, infiniturainoko kate luze be-zain absurdu batean. Jakina, edonor ez da Freud, Marx edo Nietzsche bezalako mustro intelektuala, baina jeinua izan gabe ere egin liteke norberaren begiez munduari be-giratzeko ariketa apala. Begiratu, pentsatu, eta pentsatuta-koa esan.

Joxe Azurmendi apartatu egiten da, zorionez, lehen-txeago deskribatu dugun joera errepikatzaile antzu horre-tatik. Modu berezian egiten du ordea. Gizon jantzia dugu Azurmendi: eskolatua, kultua eta jakintza zabalekoa ezin gehiagoan, bere lanen bat irakurri duen edozeinek ondo dakien bezala. Faltsua litzateke bere irakurketen zakua al-de batera utziko duenik pentsatzea, jakituriaren zama nor-beraren ondare bihurtzen baita ezinbestean, erantz ezin daitekeena eta geure sentzibilitatea bera ere baldintzatu egiten duena. Faltsua litzateke, beraz, Aralarko artzaina-ren gisako irakaspen “naturala” egin nahiko baligu. Ez da hori, ez. Bestelakoa da egilearen teknika: bere gogoetak egiten ditu (ez inorenak errepikatzen), baina beste egile batzuen bitartekotza erabiltzen du horretarako. Hots, on-doren datozen orriok irakurtzen dituenak aipu ugari topa-tuko du: Mirande, Nietzsche, Platon, Jünger... Hala ere,

Azurmendiren asmoa ez da berez idazle haien pentsaera azaltzea, are gutxiago bere erudizioaz inor txunditzea, ezpada berari interesatzen zaion problema ahalik eta ondoen azaltzea; hau da, hemen autore handi horiek denak ez dira paper xaharretan galtzeko aitzakia, eta bai, ordea, gure problema, gure auzia planteatzeko bide.

Gure problema aipatu dut. Zer problema planteatu nahi digu ba Azurmendik? Ez da arazo *bat*, beste askoren artekoa, baizik eta arazoa, “the problem”, gu denok, zu eta ni eta egilea (bakoitzaren arazoak alde batera utzita, beti baita larriagoa norberaren hagineko mina edo alabaren apendizitisa edozein herri-arazo baino), aspaldi honetan seguru asko gehien kezkatzen eta arduratzen eta burutxartzen gaituena: herri honen bizi nahi eta ezin bizi tristea, heriosuharrezko borroka sarritan antzu beti mingarria, ez hemengoekin ez hangoekin gustura eta identifikaturik sentitu ezina, auzo eta lankide behar luketenak liskarturik eta muturturik ibili beharra... Luze segi nezake ingurumariak eta ñabardurak ematen baina, bi hitzetan esanda, hau xe da gaia: gure herriaren egoera petral hau. Badakit gehiagoko azalpenik gabe ulertu duzuna.

Modu antagonikoan aurkezten digu Azurmendik, “demokratak eta biolentoak”, modu antagonikoan bizi baitu gaur egun gizarteak arazo hau. Probokazio-usaina ere hartzen du tituluak: izan ere, komunikabideetan hogeit mila aldiz errepikaturiko klixea da hori, jende artean ere bidea egin duena eta horrexegatik jartzen ditu aurrez aurre, esamolde horretxek definitzen baitu ondoenik gure herria zatitu ezezik urratu ere egiten duen auziaren mamia.

Modu antagonikoan ari dela esan dut. Eta estilo polemistan, erantsiko dut, arazo gordinenei ere ihes egin gabe; aitzitik, horiexek planteatuz hasieratik bertatik. Hona,

esaterako, liburuaren estreinako hitzak: “Zer zarete zuek lehenago: abertzaleak ala demokratak?” Hala ere, Joxeren asmoa ez da inoren aldeko propaganda egitea, ezin urrunago dago bera planteamendu manikeistetatik; ez duzu beraz X-ren aldeko argudiorik edo Z-ren kontrako arrazoiketarik topatuko, ez baita hori asmoa, irakurleari pentsaraztea baizik.

Manikeismotik urruti baldin badago, are urrunago dago edozein ekidistantzia-motatatik. Askoren tentazioa izaten da ekidistantzia gurea bezalako egoera istilutsuetan: bi muturretatik tarte berdinerak kokatuko naiz, inongoa naizenik esan ez dezaten. Baina ekidistanteak ez du berezko lekurik, ez du oinarririk: indar harremani begira bizi da, haien arabera batera edo bestera mugitzeko, beti erdibidean egon ahal izateko; hartara bateko zein besteko zaplastekoak saihesteko esperantza du, nahiz eta batzuetan, zorte txarra tokatuz gero, bi aldeetakoak jaso behar izan.

Azurmendi, ordea, ez dabil haizeak nondik jotzen duen begira, bere tokian dago eta handik ari da, beti aritu izan den bezala: zentzuetik, herri honen erroetatik, bere konbentzimenduetatik, kulturatik. Barregarria litzateke orain inork Joxe Azurmendi bortxazaleztat hartzea. Izaeraz baketsu bezala da ideiaz bakearen aldeko; baina horrek ez du bihurtu, beste asko legez, egungo *statu quo*-aren adoratzailerik mistiko lelotu, beste ezer hoberik eta beste posibilitaterik ez balego bezala. Era berean, ondorengo orrien axaleko irakurketak baten bati kontrakoa pentsaraz liezaiokeen arren, Azurmendik ez du hemen demokrazia bera auzitan jartzen, ezta ere, gurean askotan ohi denez, ea sistema hau demokrazia den, ez den edo zenbateraino den eztabaidatzen. Sakonagoko galderak

planteatzen dizkigu: sistema hau zertarako? Zoriontsuago gara? Hobeto konpontzen gara elkarrekin? Aukera gehiago ditugu gure nahiak aurrera ateratzeko, adierazteko, herri bezala garatzeko...? Oinarrizko galdera beharko luke tenak baina, oinarrizko beste puntu ugariarekin geratzen den antzera, ezkutuan geratu ohi direnak. Izan ere, liburu barnean esaten zaigun bezala, sinestea beti da errazagoa, pentsatzea baino.

Hori dela eta, nahiago nuke, liburuak eztabaida zer-bait piztuko balu; nor bere elizatzoko fedea sinestean gain, bere kabuz pentsatzen dakien jendea oraindik ere badagoen seinale litzateke hori; ez derrigor gure herri hau osasunbidean dagoela, baina osasun-gogoia badagoela behintzat. Eta, ez al zaizue iruditzen, badugula garaia katarro txar hau, marranta kroniko hau behingoz sendatze-ko? Izan ere, orain dela zazpi-zortzi urte idatzitakoak dira berez ondoren doazkizun lanak (*Jakin*-eko 52, 53 eta 56 aleetan aurki ditzakezu jatorrizko bertsiok, ohar gehiagorekin hornituta), baina, orduko xehetasunen aipuren bat kenduta, gaur bertakoak ematen dute, goitik behera.

Lehenago aipatu dizuet liburuari hasiera ematen dion galdera. Bukatu ere, ez inorentzako erantzun biribilekin baina beste galdera batekin bukatzen du: “Berriro ‘empieza a amanecer’. Ez ote du soluziorik herri honek?”

Xabier Mendiguren Elizegi
Donostian, 1997ko irailaren 30ean

MIRANDEREN KRITIKA
IRAULTZA FRANTSESARI

Zer zarete zuek lehenago: abertzaleak ala demokratik? Galdera honekin hasiko gara.

Ondorengoan Miranderi jarraituko gatzazkio haren Iraultza Frantsesaren kritikan. Halere gaur ez naiz ibiliko haren testu eta zita bila, emango dira zitak beste nonbait, ezpada haren pentsaera berriztatzen ahaleginduko naiz, nolabait gaurko eran haren pentsamendua birpentsatzen.

Lehenengo Miranderen arazoak gaurko egunean jarriko ditugu (I); haren pentsamendu antidemokratiko eta antikristauaren iturriak ikusiko ditugu gero (II).

I

ABERTZALETASUN EZ KRISTAU, EZ DEMOKRATIKO BATEN BILA

Mirandek abertzaleei, abertzaleak baino lehen eta gehiago, demokratak izatea, leporatzen zien; onenean ere orduan demokratak izango zirela, ez abertzaleak.

Inoiz baino hobeto gaur ulertzen da kritika horren funtsa, kasuistika teoriko hutsa baino gehiago, berriro egun-eguneko arazo praktikoa dugu eta. Orain ez diogu erantzuna bilatuko, baina, hitzaldia hasteko, itaun horrekintxe konfrontatu nahi zaituztet entzule guztiok: zer sentitzen dituzue lehenago zeuen buruok, demokratak ala abertzaleak? Inoiz libre izan nahi badu, zer uste duzue izan behar duela Euskal Herriak biotan lehenago eta gehiago?

Betiko listoak badakit jesusean asmatuko duela ihes egiteko soluzioa: bera “abertzale demokrata” da, ez du onartzen bataren ala bestearen alternatiba.

Guk gure aldetik baina, listoaren soluziorik ez dugu onartuko. Izan ere, hori, esango diogu, ondo dago printzi-

pio abstraktuen mailan erantzuteko, beharbada praktikan ere balio du gero, jardunbide indibidual pertsonalaren mailan: guri orain axola zaiguna, ordea, politika orokorra da, funtsezko jarrera, momentuan momentuko arazo konkretuetan zer aldetara jo, erabakitzen jakiteko.

Arazoa orduan, horrela ikusi nahi dugu planteatuta, haxe da, konkretukiago galdetzeko: Aljerian elkarrizketan ari omen dira ETA eta Gobernu espainola. Zein da gure jarrera: nahiago genuke Gobernu espainolak ETARI (hots, errebindikazio abertzaleei) zenbait kontzesio egitea, ahalik handienak egin eta hobe, ala kontzesiorik ez egitea, gehienez ere presoak nola etxeratu konpontzea (oso humanitarioak gara denok), eta erakunde armatua lotsagarriro umiliatuta uztea? Esaterako, Lehendakari jaunak adierazia da eta errepikatua, ETAK indargintzaz lortzea baino berak nahiago duela batere ez lortzea abertzaletasunaren zenbait xede elemental: lau probintziak bategitea, adibidez, demokratikoki ez bada, hobe omen da batere ez lortu. Autodeterminazioa ere ez omen dago planteatzerik, ETA hor dagoen artean. Bestela demokraziak kalte gaitzak eramango omen lituzke. Horixe da galderaren sentidua.

Baina ez genuen Ardanzaren eta Alderdi autonomisten iritzi horiek jorratzea gaurko gure lana, Mirande hobeto ulertzeko bakarrik interesatzen zitzaigun hemen auzi hori. Izan ere, nahikoa zabalduta dagoen kontua da, Mirande faxista izan omen zela (ohitura da gure artean demokrata eta faxista kontrajartzea). Eta hori ulertu egin behar da. Hasierako gure galderak, beraz, beste forma hori har dezake orain: faxista izatea ote da, demokrata baino lehen abertzale izatea?

Beharbada berriro planteatuta dabilkigun auzia da hori, azterketa bat ondo mereziko lukeena, baina Mirande-

ren faxismoa ere ez da izango zuzenean gure gaia. Bestela, Nietzsche eta faxismoa, Spengler eta naziak, eta antzeko arazoak beharko genituzke harrotu. Ez dugu egingo. Halere Miranderen kritika Iraultza Frantsesari —gure gaia propio— ez da demokraziaren kritikaren parte bat baino. Eta demokraziaren kritika hori bere abertzaletasun erradikalaren ondorioa da. “Ni, zioen Mirandek, oroz lehen Euskaldun izaiki, haien (katolizismoaren eta Frantziaren) etsai naizela aldarrikatuko dut ausarki, pseudo-euskaltzaleak oro eta %50eko abertzale guztiak nardarazi behar badituzte ere”. Honekin gaian barrendu gaituzue.

Frantziaren etsaia izateak, seguruenik erraz ulertzen da, zer ikusi behar duen Iraultzaren kritikarekin. Ez da Mirande ongi ulertzen, alabaina, katolizismoaren kritikak eta Iraultzarenak nola bat egiten duten ulertu ez den bitartean. Are, nola kritika bat bera diren katolizismoarena eta Frantziarena, demokraziarena, Iraultzarena. Horiek izango ditugu solasaldi honetako gure puntuak.

Biolentzia inmoral delá, ez delá, auzi horiek guztiak, Mirandek ez zituen ezertarako aintzakotzat hartzen. Zergatik ez? Ez al dute merezi? Ez, ez dute merezi eta alfer-alferrikakoak dira. Milikeria juduak eta kristauak dira, demokratikoak. Baina zeinek aitortzen du oraindik politikan bere burua kristaua!

1

Kristautasunaren ukoa: euskal izpiritua

Miranderen kristautasunaren kritikan oro har luzatu gabe, beronen Iraultzarekiko eta euskal politikarekiko loturaz bakarrik interesatuko gara gaur.

“Euskaldun fededun”, esaten da (tradizioa izan da, esatea). Euskaldunok geurenez demokratak omen garela ere esan izan da: munduko demokraziarik zaharrena hor nonbait.

Ez kristaua eta ez demokrata da euskalduna jatorriz, esango du Mirandek. Egin egin dute hori. Eta horixe da euskaldunaren degenerazioa.

Euskaldunak bazuen antzinadanik bere izpiritua: euskalduntasunaren gogo basatia, bortitza, gogorra; zalduntasunezko arima goi, handizu, bihoztoia; bizitzaren sen argi, alai, antsikabea. “Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbaitek, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen izpiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekuan beren gisako Euskaldun berri, bakezale, auzo-on eta puska-onen izpiritu demokratikoa *à la française* eredutzat jartzen digute”. Eliza-euskaldun demokrata, jatorrizko basaeuskaldun garbiaren lekuan.

Euskaldun zahar bere buruaren kontzientziadun burgoiaren eta abertzale moderno bere buruaz birkontzientziatu bakezalearen artean dagoena, mila urte Eliza da. Elizan esaten da egunero “bakea zuekin”. Ez da esaten “askatasuna zuekin”. Bakearen eta askatasunaren artean Elizak bakearen alde erabaki du konfliktua. Askatasuna, Elizan, bekatutik eta grinetatik da askatasuna. Gizakiaren berezko isurien eta gano bizien hildurari eta loturari deritza Elizan askatasuna. Norbere buruaren sakrifizioari. Kolektiboki hartuta, herriari bagagozkio, anaitasun eta berdintasunezko izpiritu otzanari. Etsaia, ez da borrokatu eta porrokatu egin behar, maitatu egin behar da, haren alde otoitz egin behar da okerrik ez dakion gainera. “Alta, idazten du hortakoz Mirandek, politikaren alorrean baino are kaltegarriago izan zaigu Elizaren eragina izpirituaren

alorrean, geroko edozein berpizkunderen iturri biziak urdindu zizkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, bortitz eta handia apaldu, ahuldu, hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu”.

Demokraziak (izpiritu demokratikoak) beste horrenbestetsu egiten du: gogoak maskaldu, erkindu. Izpiritu demokratikoa ez da borrokarako izpiritua. Demokrata izatea Frantziarekin josi ohi zen heinean (Francoren garaikoak dira kontuok), honela osteratzen zien Mirandek abertzale demokrateri: “Frantzitarren ariora demokraziaren amets urdinekin lokartzen den herriak zahartzen eta akitzen ari dela emaiten du ikusterat”.

2

Demokraziaren ukoa: Frantziaren ukoa

Honekin iraganak gaituzu katolizismoaren etsaigotik Frantziarenera. Frantzia, abertzaleek Francoren azpian zeudenean imajinatzen zuten Frantzia hori, amets egiten zuten demokrazia alegia, ez da batere soluziorik euskaldunontzat. Hasteko, euskaldun abertzaleek, hala gogoratzten die Mirandek, gogotik lagundu zieten frantsesei alemanen aurka, eta orduan frantses demokratek atzera euskaldunei berdin laguntzeko hitza eman zuten: gero ez dira asko akordatu. Baina hori bidezkoa eta zuzena da. Norberak behar dio bere buruari begiratu. Zer espero dute oraindik abertzaleek demokrata horiengandik? Ironia ozpinez idazten du Mirandek: “Frantzia Askatasunaren Herria baita —berak aski gora aldarrikatzen duenez— Euskadi ere lagunduko zuela askabidean, uste izan zuten Euskaldunek... Ustea ustel bihurtu dela agiri da orain. Beren

itxaropen edo iduripen batzuk orraztu eta garbitu behar lituzketela abertzaleek badirudi beraz, garbitze lan horren ondotik hobeto ikus dadin Euskadi gaizkatzekotan (salbatzekotan) zer egin daitekeen”.

Frantziak euskaldunon askatasunari Espainiak bezain gutxi lagunduko dio (diktatura frankistak bezain gutxi alegia demokraziak); izan ere, sistema politikoetako desberdintasunak gorabehera, “Frantzia eta Espainia direla herririk zentralistenak ohartzen gara”. Espainiak suntsitu egin badu euskal autonomia, ez dago Frantziatik zer itxaron (demokraziatik). Abertzaleak, Francoren kontra, beren ametsekin demokrazian, apropos engainatu nahita dabilzan iluso batzuk baizik ez dira.

Horregatik, Iparraldekoiei berak jartzen dien alternatiba ondo garbia da (Hegoaldekoentzat berdin balio baitu, terminoak trukaturik): “Il serait bon que les Basques s’intéressent à la politique décident ce qu’ils veulent être exactement: ou bien Basques avant tout, ou bien Français; et, quelle que soit leur décision, qu’ils aient le courage d’en tirer les conséquences jusqu’au bout”.

Ez da bakarrik, demokraziatik zer itxaronik ez dagoe-la (“demokraziak” deitu Estatuak ez digutela askapen bidean lagunduko). Ongi eta osoki ulertzeko, puntu honi bi argigarri erantsi behar zaio:

(a) Berez euskalduna ez dela demokrata, historian euskaldun jatorra bezala ageri zaiguna. Beraz, euskaldunek egiaz beren identitate zaharra eta jatorra birreskuratu nahi badute mugimendu abertzalearekin, ez dute demokratak izan behar. Jatorra izatea ez beste guztia litzateke hori. Aipamentxo bakar bat ekartzeko, hona *Euskaldun gudu-zalduntza baten beharkiaz* saioko zati hau: “Paradoxatan ari naizela dirudike, baina Euskaldunak zinezko de-

mokratak behin ere izan direnik uste ez dudala aitor dut, non ez bada azken garai honetan, atzerritikako era sozialak ekarri landerreriak, atzerritar ikastetxeak eta Erromako Elizaren kristaudemokraziak deragieten influentza hirurkoitza dela zio”. Jarraian adibide batzuk aipatzen dira historiatic bere iritzi honen sostengarri. Utzi egingo ditugu, ez luzatzeko.

Bigarren argigarria da (b), honela lehen Elizaz esandakoarekin lotzeko, demokraziak ere, guri arrotza izateaz gain, euskaldunon dekadentzia eta hondamendia signifikatzen duela. Elizak zikiratu euskaldun otzanaren parean, demokratismoak endekaturiko hiritar langin, baketsu, mantso, gozo folklorikoa daukagu, tutulu txapeldun.

Horrela, abertzale kristau eta demokraten proiektu politiko guztia, salatzen du Mirandek, guztiz “errealista” da, hots, bulgarea, zentzu utopiko, erromantikorik batere gabekoa, hau da, “panem et circenses” proiektua. Inolako gorarik ez du. Hegadarik. Anbiziorik. Dena kristauki apal eta grisa da. Sakristia kutsukoa: mus jokoa eta pilota, dantza eta folklorea ugari, hasteko. “Baina herriaren ogia ez dago ahazturik, euskal politikariek agintzen baitigute, ongi gurineztatuta gainera, biharko, gobernura heltzen direneko. Orduan badituzkegu aurrerapen ekonomikoak, gizarteko zuzentza, bai eta herri baten zorionaren urrezko giltzak diren Hausteskunde Aske ta Orokorrak..., hots, lurreko paradisu bat izango da Euskadi! Bitartean arrotzen menpean bizi garela, Euskaldunak urrituz doazela, edonongo kanpotarrek horien lekua harturik, euskara galtzen ari dela? Ez estu: gure egoera hits horrek ez dezake iraun. Alabaina, lehenago aske, gure askatasuna lege-kontra kendu ziguten, *ergo*, legez itzuli beharko digute behin: hala eskatzen du herrien arteko Zuzentzak. Eta ez da du-

darik munduko demokratek orok lagunduko digutela askatasunerako bidean, ongi merezi baitugu ere: ez al gara betidanik, Harri-aroan hasita XX. mendeko demokrazia-ren printzipioen arabera bizi izan, ez al gara inoiz konkista-gudarik egin ez duen herri bakarra, euskal-politikari legezale, zintzo horiei sinetsi behar badiegu?”.

Labur-labur: demokraten demokraziak eta kristauen kristautasunak, herri hau izorratuta daukate. Edo bestera esan: kristauki jokatuz eta demokratikoki jardunez, Euskadi ez dago askatzerik. “Adiskide maiteak, bada ordu euskaltasun irriegin garri hori arbuiaturik beste baliosago baten moldatzeari buruz abia gaitezen. Nork ez dakus, nork ez du somatzen hori gure endaren inakin edo karikatura bat baizik ez dela, eta eredutzat aurkeztu diguten Euskaldun gorputz sendo ta bihotz ezitia gure beherapenaren igali ustela dela?”.

Mirandek horri buruz kontraproposatatu duena, guztiok badakizue, borroka izan da, indargintza odolezkoa baztertu gabe noski (moralak orain biolentzia ohi deritzona), borroka beti da-eta indargintza. Horregatik (“jeiki, jeiki Ûskaldünak / ehaitera juaiteko”) jende franko eskandalizatu da Miranderekin.

3

Biolentzia zilegi al den demokrazian

Aurretik problema bat planteatu nahi nizueke berriro: zuzena ala zuzengabekoa iruditzen zaizue biolentzia erabiltzea demokrazian helburu politiko batzuegatik? Eta ez diogu ihesbiderik utziko hemen ere betiko listoari, “hau ez da demokrazia” eta, eskapa ez dakigun. Badela

demokrazia, suposatu nahi dugu (kasurik txarreanean aparte utzi beharra edukiko duguna, demokrazia “gurea” al den, izango da). Hemengoa, ez dakit USA, Holanda edo orain hainbeste aipatzen den Albania horretakoa, beste edonongoa bezain demokrazia ona den hipotesian, galdegiten dugu: zilegi al da demokraziaren aurka ETArena bezalako indargintza, biolentzia bat?

Zehatz dezagun hobeto galderaren zentzua. Gaur egun demokrazia justifikazio eta desjustifikazio printzipio bezala erabiltzen da: “orain demokrazia badago, esaten da, bakoitzak nola pentsatzen duen esatea eta arrazoitzea badago, beraz, biolentzia erabiltzerik ez dago” (arrazoitzea versus indarra edo biolentzia erabiltzea). “Gehien-goak honela erabaki du”, esaten da, etab.: “biolentzia zuzengabekoa da hortaz” (inmoralata eta ilegala, biak izatearen zentzuan).

Arrazoi moduok asko entzuten dira egunotan. Zuek zer deritzozue? Eta berriz ere tranparik ez dugu onartuko: “bizitza sakratua da” bezalako eskapabiderik alegia ez dugu ametituko testuinguru honetan: tesiaren zentzua sinplea da, “biolentzia erabiltzerik ez dago demokrazian” (bizitza, ordea, sakratua bada, edozein sistematan eta zirkunstantzian izango da). Eta berdin: “Datozela Parlamentura!”, eta norbaitek, “zertara joan? Instituzio horiek, Turtziozko edo Trebiñoko arazotxoak ezin dituzte konpondu demokratikoki Burgosen eta Kantabriaren aurka, eta Euskadiko independentziarena konponduko dute Espainia osoaren aurka!”, osteratzen badigu erdeinuz, izan dezake munduko arrazoi guztia, baina orain arazoaren sentidua ez dela efikaziarena, eutsiko diogu, baizik estrikotoki moralata. Efikazia ez zaigu axola (momentu honetan ez zaigu oraindik axola, metodikoki zuzen jarduteko: bes-

tela, politikan efikazia axola ez zaiona, ez baita tipo moralki fin bat, memeloa baizik). Izan ere, egungo demokratik bere papera ez du efikazago bezala jokatu nahi izaten, baina moralago bezala. Demokratarentzat (bere) demokrazia morala da. Haren edonolako etsaiak inmoralak dira. Paper hori jokatzen da behintzat. (Paper hori demokraziaren beharrezko joko politiko maltzuraren parte bat bilakatuta egon ahal izatea bera, orain ez doakigun arazoa da). Hau da, Zesarren emaztea onesta izatea, problema morala da. Baina jendaurrean onesta ematea, problema politikoa da. Demokraziari (politikari: ikus bedi Machiavelli arazo honetaz) ez zaio axola problema morala, itxurarena baino. Halere guk orain sentidu moralean galdeetzen dugu biolentziaren zilegitasunaz.

Ez dut ezagutzen Miranderen testurik, egia esateko, zuzenean problema honi buruz. Uste dut, gainera, egiago esateko, posible ere apenas litzatekeela gisa horretako testu bat haren pentsaeraren logikan. Baina, orainetik harantz, Mirande ulertu nahi badugu, geure arazo eta galderetatik daukagu hasi beharra; eta, beharbada gaur eguneko kezka horiek berak hobeto ulertzeko, izan dakiguke zimitiko horiek bere denboran batere sentitu gabeko Mirande bat oso lagungarria. Zuzen ulertzen badut nik haren jarra, “zergatik izan beharko luke biolentziak demokraziaren aurka bidegabekoago”, imajinatzen dut kontragaldegingo ligukeela berak harri-harrituta, “monarkiaren kontra, tiraniaren kontra, beste edozein sistemaren kontra baino?”

Beraz, “orain demokrazia dago, biolentziak ez dauka izateko arrazoirik”, dioen tesiari, behin-behineko lan-hipotesi gisa bederen, guk Miranderen irizkerak ustez interpretatuz, antitetsi hauxe kontrastatuko diogu: demokra-

ziak bere morala du, eta demokraziak egia da ez daukala moralki zilegitzat (legitimotzat) biolentzia bere kontra, baina diktadurak ere ez zeukan, monarkiak ere ez zeukan eta sekula inork ez du eduki. Biolentzia erabili, sistema guztiek egin eta egiten dute, demokraziek apenas gutxiago diktadurek edo monarkiek baino: begira, oraintxe, Ertamerikara eta Namibia/Angolara, Iran/Irakera, Afganistanera eta Eritreara. (Ahal badute, jakina: bestela ez praxirik eta ez moralik egoten da. Ezina beti da santu zuria). Sistema guztiek daukate biolentzia legitimotzat ezezik bertutezkatat edozein beste sistemaren aurka. Biolentzia *bere* kontra zilegizkatat daukan sistemarik, berriz, ez dago. Biolentzia beti “besteen kontra” bakarrik izaten da legitimoa.

Zein sentidu izan lezake, orduan, biolentziari bere legitimitateaz galdetzeak? Nondik egingo litzaioke galdera? Alegia, kristautasunetik edo, printzipioz galdegin liteke, hinduismotik hobeto agian, baina hemen ez gara biolentziaren legitimitate-galdera erlijioso batez ari, hertsiki razional eta politikoaz baino (moral-politikoaz behar bada, baina laikoaz nolana ere), zentzurik ba ote duen horrek, eta zein presuposturen gainean rigoroski.

Sistema bakoitzak izaten du bere legitimazio eta deslegitimazioen araudia, biolentziaren legitimazio eta deslegitimazioena barne. Araudi honek, ordean, sistemaren barruan eta sistemarekin koherentzian, sistemarentzat berarentzat hortakoz, balio du bakarrik, eta sistema onartu dela presuposatzen du. Sistematik kanpora denek balio erlatibo bera dute, hots, ezeinek ez du ezer balio. Plastikoki esateko: zaldun demokratiko bat absurdu bat litzateke historikoki nahiz moralki. Sant Jakueren zaldi zuri beltzik bezain gutxi dago munduan liberazio mugimendu de-

mokratiko, baketsu eta barkakorrik (apropos parentesi artean utziko dugu orain Gandi). “Moral” demokratikoak ez luke batere zentzurik aitonseme gizarte batean (home-rikoan, adibidez): desohorezkoa eta lotsagarria izango litzateke. Eta zaldun gizarte bateko moral-kodeak giza eskubideen aurkako krimen-kode bat irudituko luke demokrazia moderno batean.

Oso sinplea da: zertarako engainatu behar ditugu geure buruak alfer-alferrik?

Monarkiaren aurkako biolentzia, XVII. eta XVIII. mendeetako Frantzian esaterako, legegabekoa ezezik, sakrilegoa zen sistema teologiko-politiko haren kontzeptuetan. Baina sakrilegio hori zuzen eta legezko bihurtuz hasi da sistema demokratikoa, oraintxe hain zuzen berrehun urte duela. Revilla bahitu zutenean, horma batzuetan irakurri ahal izan genuen ez-dakit-zer bakeren aldeko mugimendu ez-dakit-zeinen batek idatzita: “el secuestro de Revilla no nos hace más libres”. Nik ez dakit hori idatzi zuenak, hori egiaz neurtzeko metroa ere ba ote duen: nola dakien historian zerk eta nola egiten gaituen alegia askeago eta zerk ez. Badakiguna beste hauxe da: European sekula lehenago ez bezalako gerrak eta biolentziak ezagutuz ezagutu dela demokrazia modernoaren jaiotza. Orduan, “Revillaren bahiketak ez gaitu libreago egiten” idatzi duenari, demokrata baldin bada, beste galdera hauxe gehitu behar zaio: “Eta nolatan egin gaitu ba libreago, zuek uste duzue, Marie Antoinetteri bere lepo liraina mozteak?”. Demokrazia askatasuna baldin bada (biolentzia horregatixe deslegitimatzeraino), horrelaxe eta ez bestela baitugu demokrazia hori lanean hasia: lepoak moztuz.

Beraz, sistema baten barruan egotea eta jokatzea onartu zutenek horixe onartu duten besteei (demokrazian, gure kasuan), “sistema honetan ez da zilegi biolentzia” argudiatzeak, arrazoiketa bezala korrektua dirudi, eduki aldetik ia hutsala badirudi ere. Presupostu hori gabe, al-diz, “demokrazian ez da zilegi biolentzia”, joko-arau demokratikoak onartu dituztenen protesta bat edo prediku bat bihurtzen da onartzen ez dituztenei. Demokraten dogma bat beharbada. Edo paranoia bat. Inondik ez arrazoi-keta bat.

4

Fede moderno demokratikoa

Demokraziaren eta biolentziaren arazoa, Modernitatearen eta iraultzaren arazoa da. Askotan, orain, ahaztu nahiago izaten da hori, baina Iraultza modernitatearen ekarkina da eta *vice versa*.

Zergatik errepikatu ohi da, halere, arrazoi sendo bat balitz bezala: “demokrazian ez da zilegi biolentzia?” Biotako batean izan lezake sentidurik: ala badagoela, suposatzten delako, demokrazian aski fede jendearengan; ala predikatu egin beharra dagoelako, egon dadila nahi den fede hori egon dadin. Euskadin bigarrena izango da seguruena kasua: demokrazia honetan ez da erraz egotea fedea sobe-ra, ahalegindu beharra dago egon dadin. Hori “demokraten” aldetik.

Besterik sinestarazi nahi izaten bazaigu ere, fedea ez da indarginen pribilegioa. Demokrazian badago fede bat, fede *magiko* bat. Eta demokrazia kontzeptuaren erabile-rak askotan fede magiko horri erantzuten dio: Santutegi

batean edo Elizan bezala, biolentzia ez da zilegi demokrazian. Sakrilegoa da (“bizitza sakratua da”, etab.). Edo alderantziz —kasu hemen!— sakrifizioan bezala, odola beharrezkoa da salbaziorako (askatasunerako). Kasu hemen, zeren eta, Mirande ulertzeko funtsezkoa izango baita, beste ikuspegi batetik berdin-berdinak ager litezkeela ulertzea, iraultza egin ondoko demokrata (bakezalea) eta iraultza egin nahitako demokrata (borrokalari indargina). Bat Locke duzu eta bestea Rousseau.

Ikus dezagun hau guztia berriro eta bi partetan: A eta B.

A. Nola arrazoitzen zuen Mirandek indargintzaren aldeko jarrera? Hori filosofia oso bat da. Ez da izaten arrazoiketa simple bat: biolentzia honegatik eta horregatik. Miranderen kasuan, bereziki, munduaren eta historiaren filosofia oso bat dago barnean. Orain ezin gara sartu horretan. Has gaitezen, bada, biolentziaren gogoeta edozein alderditatik ere zein situaziotan aurkitu ohi den begiratzeko, gure artean, ETaren aldeko eta aurkakoen artean. Miranderen beste kasu bat izan zen, horregatik ez da asko ulertzen.

Hasteko, biolentziaren (a) aldeko jarreraren, beti, sinesmen bat eta arrazoiketa bat egoten da; eta (b) sinesmen bat eta arrazoiketa bat egoten da haren kontrako jarreraren halaber. Hau esaten dut, ez litzatekeelako batere inposiblea, oinarritzko sinesmenak funtsean berdinak izatea (eta moralak, hortaz), eta arrazoiketak izatea (kalkulu politikoak beraz) alde banatakoak alderdi biotan.

Gauza garbia zera da: gauden egoeran, batek sinesten duela eta besteak ez duela sinesten gizarte “honetan”. Biolentziaren alde dagoena, alde dago, sinetsita dagoelako, egungo egoerak ez gauzatu eta ez biderik ematen due-

la gauzatzeko, gizarteaz berak duen kontzeptua. Biolentziaren kontrarioa kontrarioaz dago sinetsita: honentzat, edo gauzaturik daude jadanik bere helburuak, edota emanik daude behintzat bideak eta baldintzat haiek gauzatzeko.

Goazen lehenengo biolentziaren etsai “demokratarekin”: sisteman sinesten duena da, gutxienez haren posibilitateetan. Zein sentidu du horren biolentziaren kondena? Sistema batek, sisteman sinets dadila, behar du (ez derrigor arrazoiketaz, edo apenas behintzat). Sistemaren barruan, biolentziaren aurka predikatzea, sisteman sinesmena predikatzea da. Zenbat eta ahulagoa sinesmena (dudagarriagoa legitimitatea: nolatan da demokratikoa polizia hori? Edo Fraga? etab.), orduan eta gogorrago predikatu beharko da. Honek berdin balio izaten du, praxian eta terreno politikoan, biolentziaren kondena hori Eliza katolikoak egin, Gobernuak, prentsa “independentek” ala Gortearen teologoek. Eta honekin ez da esaten, kondena guztiok politikoki berdin baloratzea dagoenik, are gutxiago moralki; baina soil-soilik, kondena guztiek politikoki sistemaren alde jokatzen dutela.

Biolentziaren arazoa egungo egoeran guztiz konplikatzen duena, izaten da, ez bakarrik atzo biolentzia txalotzen (edo praktikatzen) zuten “demokratak” orain batera etortzea hura beti kondenatu izan duten “faxistekin”, ezpada ezkutuan geratzen dela (a) zein fedetatik egiten diren haren gaitz eta onirizpenak, eta (b) zein arrazoiketara moduz arrazoituko litzatekeen, demokratikoa suposatu nahi dugun fede horretatik, rasionalki, biolentzia konkretu baten on zein gaitziritzi beharra. (“Gerra justuaren” baldintza razionalak). Biolentziari buruz kasik predikatu bakarrik egiten baita (“biolentzia guztiak”, “edonondik

datorrela”...), ez arrazoitu. Izan ere, biolentzia bati razionalki gaitziritzi ahal izateko posibilitatea, biolentzia hari berari beste kondizio batzuetan onirizteko posibilitateak dago baldintzatuta, eta zehatz-mehatz honen sentidu posibleak mugatzen duelarik haren sentidu posible guztia, hain zuzen. Baina biolentzia “on” baten posibilitatea (zeina gabe biolentzia “gaiztorik” ez dagoen), federen baten gainean bakarrik pentsa daiteke. Hots: fedeak bakarrik bihur ditzake biolentziak onak ala gaiztoak.

Alegia, federen bat niretzat kontu honetan denek dute, biolentziaren kontrakoek nahiz aldekoek. Are, fedeak fidadzea, sistema edo soluzio politiko batzuen egokitasunean konfiantza izatea, sinestea, esan nahi duen zentzuan, politikak, ekintzak, beti fede bati segitzen dio eta fedean tinkatzen da. Kontua ez da, beraz, batzuk fededunak eta besteak ez, edo batzuk besteak baino fededunagoak izatea, baizik eta Modernian fedea bera (ez erlijiosoak bederen) arrazoimenaren eta kalkuluaren azpian jartzea, bere oinarripen eta arrazoiketaren aproba pasatzea, exigitzen dugula. Eta razionalitate hori nolabait demokraziarekin identifikatzen dugula.

Gauzak errazteko: biolentzia kondentzen dutenen artean denetik ibiliko da zalantza gabe, baina eman dezagun (a) denak zinez demokratikak direla; eta eman dezagun, (b) biolentziaren aldekoak denak independentistak direla. Zer gertatzen da? Independentzi eskubidea, berez, kontzeptu moderno gisa, eskubide demokratiko bat da. Alegia, demokratismoa bezalaxe independentismoa, biak arrazoi modernoaren emaitzak dira. Orain berdin zaigu zernahi gehitzen diogula independentistari: sozialista dela, komunistak dela, edozerista dela. Beti izango dira razionalismo modernoaren deituaren kumeak, razionalismoari obligatuak.

Hau da, gizartearen eta gizadiaren antolaketa “razional(ago)” batean sinestunak dira biak. Razionalismo modernoak fede horixe baitzuen: askatasun, berdintasun eta anaitasunezko gizarte bat razionalki eraikitzeko fedea. Horixe baino ez da izan demokrazia.

Demokrazia, ordea, bitarik da: (a) printzipio batzuk eta ideal bat (razionalismoarena): maila honetan, biolentziaren aldekoak eta aurkakoak, biek esan daiteke bat egiten dutela, (b) gizartearen erakunde eta antolaera praktikoa bat, bere baldinkizunekin (Frantziako Errepublika, Espainiako Erresuma, Sobieten Errepublika).

Biolentziaren aldekoak, biolentzia legitimatzeko (a) mailan eramaten du errazena bere diskurtsua, J. Lockeren arrazoien tankeran edo: “arrazoizko eta bidezkoa baita nik suntsitzeko eskubidea izatea, ni suntsitzeko mehatxua egiten didan hura”. Adibidez: “demokrazia HAU ez da zinezko demokrazia, zeren eta...” Edo: “helburu hauxe du gure borrokak: tamalez indargintzaz bakarrik lor daiteke helburu hori”, eta jeneralean helburua ona edo onargarri samarra izaten dela, ideal demokratikoen arabera, apenas egoten den eztabaidatzerik. Askoz zailagoa edukitzen du (b) mailan bere burua legitimatzea: jomuga horretarako erabiltzen den biolentzia baliozkoa eta efikaza ere badela erakustea, eta beraz biolentzia positiboki ona dela. (Zailtasun honi konnotazio moralik eman nahi izatea, aldiz, ikaragarria da, eta, nik uste, “biolentziaren kritiko” batzuek inkontzientziaz bakarrik erabili dezakete: bai baiturudi, biolentzia zenbat handiago orduan eta efikazagoa, efikazagoa eta moralagoa, epaitu beharko litzatekeela, hots, legitimoagoa: hau da, egunean polizia espainol bat hiltzea baino ehun hiltzea moralagoa litzateke!).

Biolentziaren kontrarioak, alderantziz, errealismoaren eta praktikotasunaren mailan izan behar luke errazena arrazoitzea (Estatuaren aparatua guztia bere eskuetan dauka): horretarako aski luke, metodo demokratiko eta bakekoz lor daitezkeela helburu haiek, erakustea (helburuak berak ukatzen ez badira behintzat). Erabili ere, batzuetan erabiltzen da arrazoi modu hori. Baina kuriosoa zera gertatzen da hemen: ez dela nonbait askitzat ematen, biolentzia efikazia faltagatik-edo, politikoki, kondentatzea; “demokratak” batez ere moralki sentitzen du biolentzia kondenatu beharra eta kondenatzeko amorrazioa. Zergatik? Bere efikazia baino, biolentziak batez ere bere legitimitatea disputatzen diola, sentitzen duelako (“horko gizarte hori ez da rasionalki eraikitako gizartea: nik eraikiko dut hori”). Biolentzia moralki zilegi izan daitekeela pentsatzeko posibilitatea bera behar da, beraz, suntsitu, kontrara inork demokrazia inmorala kontsideratzeko posibilitatea nahi bada eliminatu.

Plastikoki esan: atzoko Marie Antoinette-ren borroaren gaurko interesik larriena, ongi aseguratzeko da, orokor eta unibertsalki onar eta aitortutako itsu-itsua, esentzialki inmorala borroa izatea bera dela. Ez dakiola inondik beste borroa bat berari agertu: ez dadila alegia inor borroarako legitimitate sentitu.

Justu horregatixe, Estatu demokratikoarentzat inportantziarik handienekoa bilakatzen da guztiz potentziatzea bere moralitasunaren propaganda eta bestearen inmoralkeriarena (eginkizun honetan, Jainkoaren graziazko monarkietan teologia batek bezala, zerbitzu ederrak eskainiko ditu filosofia batek). Ezin du bere burua legitimitatu, bestearen legitimitatea posible den bitartean: hau da, bestea arras deslegitimitatu beharrean dago. Nola deslegitimitatu?

Berdirinduz biolentzia eta irrazionalkeria, razionalitatea eta demokrazia. Eta hor gauzkazu hasierako puntuan berriro: predikatu beharra dago burdinaz eta odolez sinesmena, beharrezkoa da sinets dadila sistemaren razionalitatean, etab.

B. Planteamolde hauetatik guztietatik Mirande kanpoan geratzen da: hori da Miranderen partikularitatea euskal pentsamenduan.

Izan ere, esandako guztiaren azpian beti funtzionatzen ari dena, dogmatikoki, aldeko nola kontrako biolentziaren planteamenduotan, presupostu demokratikoak dira, hots, judu-kristauak. Azken finean ideal demokratikoak alderdi biek onartzen baitituzte idealtzat: ideal judu-kristauak.

Baina presupostu horiekin erdieste gehienez ere posible dena, da, “kasu honetan biolentzia ezinbestezkoa gertatzen zaigu, tamalez: sentitzen dugu”. (ETAk erabiltzen duen tonua gutxi gorabehera horixe izaten da bere komunikatu batzuetan). Sekula ez: “edozein kasutan ere, naturala eta ederra da borroka; ona da herri sano baten-tzat”.

Horregatik da zeharo desberdina funtsean, ETAn biolentziara eramango duen planteamendua eta Mirandarena. (Luis M. Mujikak bere *Miranderen poesigintza*-n arrazoi guztiz errepikatzen duena da hori). Utz dezagun, bada, biolentziaren aldeko demokrata, goazen aurrera kontrakoarekin.

Suma daitekeenez, Miranderen arrazoiketaren azpian ere fede bat dago: zer den ona eta naturala gizakiarentzat nahiz herrirentzat, zer izan behar duen historiak, etab. Eta berdin da demokraten arrazoiketaren azpian, fedea dago: giza ontasun “naturalean”, eskubide “naturaletan”, etab.

Are, bere burua hobeto aseguratzeko, sistemak, zentzu kritikoaren lekuan, fedea indartzen eta azkartzen du, azkenean sistema osoa legitimatzen duena (teokrazia batean bezalaxe) fedea izateraino, ez arrazoiketa. Fedea demokrazian: demokrazia gizadiaren “sistema naturala” bezala ulertzen da. Orduan denak naturala dirudi demokrazian, gauzarik antinaturalenek ere: soldaduzkak, etab., edo Alderdi batek hartzea herri guztiaren Gobernu. Demokraziak orduan, grazia sakramentalak du bat-batean lehengo polizia faxistak demokrata bihurtzeko eta lehengo borrokari antifaxistak faxista.

Baina honekin paradoxa nahikoa bitxi batera heltzen gara: razionalismoari uko eginez, bizitzaren eta nahimeneraren lehentasun-aitortza irrazionalistatik abiatu den Mirande, askoz ere razionalagoa dela azken finean, abiatu razionalismotik egin duen, baina bere sistema osoa legitimatzeko lan guztia fedeari gomendatuz bukatzen duen demokrata baino. (Bigarren partean hobeto konkretatuko dugu hau). Utz dezagun oraingoz Mirande. Ortega y Gasset-ek aspaldi ohartarazia da demokrazia mendebaldarraz: historikoki begiratuta, fede hori demokrazia modernoan, XVIII. mendeko Ilustrazioan eta XIX. mendeko borroka liberaletan, razionalitatearen fedea zela barnagoan. Razionalitatean eta gizartearen eraketa arrazoizko batean sinesten zutelako, sinesten zuten demokrazian behialako iraultzaileek. Gaur, aldiz, demokraziaren uste onari eusten zion razionalismo klasikoak aspaldi porrot egin duenean, demokraziaren mito soilak jarraitu egiten du pietate publikoan eta propagandako liturgian, baina bere barne-kontraesanaren korapiloan harrapatuta geratzen da, Ortegak ohartarazten zuen eran in *El tema de nuestro tiempo*:

La fauna característica del presente es el naturalista que jura por el positivismo, sin haberse tomado jamás el trabajo de replantearse el tema que aquél formula; es el demócrata que no se ha puesto nunca en cuestión la verdad del dogma democrático. De donde resulta la burlesca contradicción de que la cultura europea actual, al tiempo que pretende ser la única racional, la única fundada en razones, no es ya vivida, sentida por su racionalidad, sino que se la adopta místicamente. El personaje de Pío Baroja, que cree en la democracia como se cree en la Virgen del Pilar, es, junto con su precursor, el farmacéutico Homais, representante titular de la actualidad (...). El tradicionalista está de acuerdo consigo mismo. Cree en esas cosas místicas por motivos místicos. En todo momento puede aceptar el combate sin hallar dentro de sí vacilaciones ni reservas. En cambio, si alguien cree en el racionalismo como se cree en la Virgen del Pilar, quiere decirse que ha dejado, en su fondo orgánico, de creer en el racionalismo. Por inercia mental, por hábito, por superstición —en definitiva, por tradicionalismo—, sigue adhiriendo a las viejas tesis racionales, que exentas ya de la razón creadora, se han anquilosado, hieratizado, bizantinizado. Los racionalistas de la hora presente perciben de una manera más o menos confusa que ya no tienen razón...

(Bere buruari uko eginez, boluntarismoan itsu-itsu bukatzen duen razionalismo horretara, geroxeago itzuliko gara berriro).

Kraskaturik arazoizkotasun propioaren barnean, zailantzakor eta inseguru, demokrata horrek enpeinurik amarratuena erabiliko du “besteen” irrazionalkeria aldarrikatzen, bere barnekoaren estalki. Biolentzia, bistan da, irrazionala deklaratuko du, biolento denak irrazionalak. Eta bost axola izango zaio, gutxi gorabehera gizadiaren historia guztia, bere historia propioa tartean, demokraziaren beraren jatorri historikoa, irrazionala deklaratzeko badu horrela. Ezkutatu nahi duen bere oinarrizko barne-kontraesanaren arabera, gure demokrata zintzoa zentroko estre-

mista bat bilakatuko da eta moderazioaren fanatiko bat. “Mediokrata” bihurtzen da.

5

Labirinto moraletik planteamendu historiko eta politiko baterantz

Kasu! Biolentzia demokrazian inmorala eta zuzengabekoa dela esaten duen tesiari, guk Miranderekin aurrez aurre ipini nahi genion antitesia, ez da “biolentzia bidezkoa da demokrazian”, baizik eta, beharbada, biolentziaren eta demokraziaren arteko arazoa ez dela batere moralzko arazoa, bestelako asuntoren bat baino (ikusitako egin behar nolakoxea): alegia, gizonaren historian, demokrazia sistema erlatiboki egoki bat besterik ez dela, beste sistema batzuen artean posibleetako bat, besteak baino ez moralagoa eta ez inmoralagoa berez. Abiapuntuko, beraz, demokraziak ez digu berak beste gabe ezer legitimatzen, ez deslegitimatzen. Beste edozein sistema bezalaxe, bera izango dugu, kasuan-kasuan, aldian aldiko baldintzetan eta testuinguruan, legitimatu beharrekoa.

Orduan perspektiba guztia aldatzen zaigu goitik beharino gure gogoetan jarduteko, hau da, Miranderen logika ulertzeko. Orain bai, efikaziaren galderak burua zutitzen digu. Galdera jadanik ez da, biolentzia moraliki zilegi ote den, ezpada, askatasun mugimendu batentzat bederen (abertzaletasunarentzat adibidez), biolentzia baliabide efikaza al den askatasuna lortzeko. Demokraziak ez du oinarri sakratu ukiezin baten balioa, gainerako dena haren arabera legitimatzeko eta deslegitimatzeko, ezpada bera dago kuestionaturik: esate baterako, zer balio du demokra-

ziak independentzia lortzeko? (Independentzia nahi bada). Edo orokorkiago: nola baloratu gaurko demokrazia mendebaldarraren momentua historiaren kurtsuan? (Ez baita ahaztu behar: Europak historia luzea du eta demokraziarena nahikoa llaburra da). Gizarte europarraren aitzinapen urratsa da, ala beharpenera eta dekadentziara jauzi bat, aldi berean dekadentziaren produktua bera ere?

Arazo hauek denak, berriro, ez zaizkigu (orain) berez interesatzen, baina Mirande bere errealismo guztiarekin ulertzeko. Eta Miranderen jarrera hauxe izan da: (a) planteamendu teorikoan: biolentzia eta demokrazia auzi moral horiek problema faltsuak eta soluzio gabeko problemak direla, zartagia kirtenetik daukanarentzat bakarrik interesanteak. Eta horien guztien iturburua, demokrazia sistema bezala gezurraren eta hipokrisia kontsokratuaren sistema izatean dagoela, judu-kristautasun politikoan. (b) Planteamendu politikoan beraz: lehenengo, guk geuk, euskaldunok, ezingo dugu sekula askatasuna lortu demokratikoki. Bigarren, demokraziek ez digute sekula eman egingo gure askatasuna. Tesi bion oinarrian hirugarren bat dago, funtsean biok esplikatzen dituen eta (a)ra garamatzana. Eta da, Europa guztiari eta historiari begira, demokrazia bera, sistema ideal bat izatetik oso urruti, europar kulturaren eta tradizioaren desgraziamendu hutsa eta muin-galera guztizkoa dela. Orduan, euskaldun abertzale baten kasuan behintzat, eta funtsean edozein europar “ez kristauturenean”, biolentzia demokraziaren kontra, ez bakarrik ez da ilegítimoa, baina kasik obligazio moral bat bihurtzen da. Hau da Mirandek Nietzsche eta Splengler-engandik orokorki daukana, bigarren partean astiroago ikustekoa.

II DEMOKRAZIAREN KRITIKA NIETZSCHE ETA SPENGLER-EN ILDOTIK

Gu iraultzaren umeak gara, nahi badugu eta ez. Eta hain funtzionatzen du guztion baitan iraultzaren ondareak, dogmatikoki, erlatibizatu beharra baitzegoen, hasteko, demokratismoa. Demokraziaren aurka ez dago egon beharrik, inoren aurkatasuna ulertzeko, noski (Miranderena kasu honetan). Baina demokraziaren aurka egoteak, edozein sentidutan, posibilitate razional bezala zinez onargarria izan behar du (razionalki posible izan beharko du), positiboki alde egoteak posibilitate razionala izatea pretenditu nahi badu bere aldetik. Demokratismo mistiko hutsa da bestela, ez razionala, esaten genuen moduan. Hau da, de fakto demokraziaren aurka egotea posibilitate razional bat bezala pentsatu ezin duen gizartean, ezin esan daiteke, razionalki pentsatzen dela demokrazia. Eta hori, beharbada gaur ere (anitz sektoretan: alderdi eta prentsa

batzuetan) oraindik gertatzen dena da (edo: berriro gertatzen dena): gerra ostean, nolahi ere, antifaxisten jarrera normala zen horixe izatea.

Alegia, demokraziari buruzko zalantzarik txikienerako, edozein arrazoigatik, aldez aurretik itxi-itxita zegoenak, ezin zuen Mirande ulertu. Seguruenik horixe da Miranderi bere denboran abertzaleekin gertatu zitzaiona. “Gorriekin” gerra kuraiatsu egin zuten abertzaleek, beharbada gerra baino lehen oso erraz ulertu ahal izango zuketena, ezin zuten ulertu — aitortu, onartu — odol eta negarretan hura galdu ostean: fronteetan defendatzen ibili ziren demokraziaren erlatibismoa, indiferentzia, moralki. Hondamen militar eta politikoari suntsimendu morala gaineratzea signifikatuko zukeen. Galtzaileari geratzen zaion bakarra sakrifikatzea: duintasun, harrotasun morala.

Oraindik horrela jarraitu beharko ote dugu? Ulertezina ote da oraindik Mirande? (eta ez dut galdetzen, honezkero ez ote legokeen harekin ados egoterik). Berez, demokraziaren eta Iraultza Frantsesaren kritikak, gizartearen eta etorkizunaren bere kontzeptuarekin, bere moralarekin, helburu eta ideal politikoekin, euskal abertzaletasuna sortu baino dexente lehenago baitzuen hasia bere historia, europar pentsamenduan. Eta hortxe baitago, egon ere, Mirande, bere kritikarekin. Hau da, demokraziaren eta Iraultza Frantsesaren kritika mirandetarrak, arrazoiak ez dauzka azken orduko koiuntura politikoren batean, gizadiaren eta historiaren kontzeptu oso batean baino: pentsamendu kritiko horren barruan kokatzen da (hain zuzen “sinpleek” faxista kontsideratzen omen dutena). Ikus ditzagun, bada, pentsamendu horren zati nagusi batzuk.

Demokrazia berdin judu-kristautasuna berdin dekadentzia

“Demokratismoa — irakurtzen dugu in *El crepúsculo de los ídolos*, 39. zk. ‘Incursiones de un intempestivo’ kapitulu — garai guztietan izan da indar eratzailaren dekadentziatzko forma (...), Estatuaren forma dekadentea”. Demokraziaren mesprezuzko Nietzscheren jarrera horrek oro har formulazio sonatu bat dauka: berak “Esklaboen azken matxinada handia” deritzonaren hasiera izan dela Iraultza Frantsesa.

1. Moral, ez greko, judua

Hori zera da, gutxi gorabehera, neure modura esateko. Europan bi sustrai kultural desberdin dugu: bat greko-erromatarra germanikoarekin, jentila (eta filosofia, zientzia, etab.); bestea erlijiozkoa, ekialdetar kristaua (judu-kristaua). Europa deritzogun eremu kultural hori Erromako Inperioarekin osabildu da eta izpiritu greko-erromatarrak inspiratu zuen, batasunean eta indarrean iraun zuen artean. Ernazimentuan hasten dira oraingo Estatuak jaiotzen, kaos eliztar-inperial ertarotarretik. Orduan borroka gogor artean goititu eta gero noblezia zaldunak eutsirik finkatu diren Monarkietan ere Inperioko edo tradizio greko-erromatarreko printzipioek jarraitu zuten oraino agintari: arrangoaren eta nobleziaren printzipioak, handitasun eta burgoitasun bertuteak. Elegantzia, duintasuna, indarra eta ausardia, zalduntasuna, harrotasuna. Iraultza Frantsesarekin, berriz, Europako aristokraziak porrokatu direnean, ordura arteko klase gailenak, alegia, eten egiten da horiek inkarnatzen zuten tradizio kultural eta morala

ere: harrezkero denok anaiak gara, denok berdinak; denok elkarrekin batera berdintasunean biziz, askeak izango gara. Hau moral zinez berri bat da Estatuan (Elizan bakarrik ezagutzen zen lehen). Baina moral bat interes batzuetatik sortzen da. Zeini interesatzen zaizkio printzipio horiek? Ba, sekula guztian bera beti azpian dabilenari. Besteren gainean jartzeko edo besteak baino gehiago izateko bera gauza ez denari. Edo nagusitzeko, borroka garbi agerikoaz gabe, trikimailu zikinez eta azpikeriaz baliatzen denari, inolako duintasunik gabe norgehiagokatu. Zirau-nari, alegia.

Horrela, Iraultza Frantsesarekin, miseriaren eta koldarkeriaren bertute pozoitsuak nagusitzen dira, mendeetan zapal dutako jende kaskar, erremindu, bekaizkor, mendekati printzipioak. Kristautasuna gurendu da hain zuzen, esklaboen erlijioa, hots, judaismoa, hau da, “moral kontranatura gisa”, “bizitzaren kontrako matxinada, moral kristauan ia-ia sakrosantu bihurtu dena”. Jerusalem derrotatuak Atenas eta Erroma poliki-poliki zangoperatu eta zanpatu egin ditu atzera izpiritualki. Honen guztiaren formulazio maiz aipatu batean honela irakurtzen da, in *La genealogía de la moral*:

Los juicios de valor caballeresco-aristocráticos tienen como presupuesto una constitución física poderosa, una salud floreciente, rica, incluso desbordante, junto con lo que condiciona el mantenimiento de la misma, es decir, la guerra, las aventuras, la caza, la danza, las peleas y, en general, todo lo que la actividad fuerte, libre, regocijada lleva consigo (...). Nada de lo que en la tierra se ha hecho contra los ‘nobles’, los ‘violentos’, los ‘señores’, los ‘poderosos’, merece ser mencionado si se lo compara con lo que *los judíos* han hecho contra ellos; los judíos, ese pueblo sacerdotal (herri edo kasta gudariei kontrajarri-rik), que no ha sabido tomar satisfacción de sus enemigos y

dominadores más que con una radical transvaloración de los valores propios de éstos, es decir, por un acto de la más espiritual venganza. Esto es lo único que resultaba adecuado precisamente a un pueblo sacerdotal, al pueblo de la más refrenada ansia de venganza sacerdotal. Han sido los judíos los que, con una consecuencia lógica aterradora, se han atrevido a invertir la identificación aristocrática de los valores (bueno = noble = poderoso = bello = feliz = amado de Dios) y han mantenido con los dientes del odio más abismal (el odio de la impotencia) esa inversión, a saber, “¡los miserables son los buenos; los pobres, los impotentes, los bajos son los únicos buenos; los que sufren, los indigentes, los enfermos, los deformes son también los únicos piadosos, los únicos benditos de Dios, únicamente para ellos existe bienaventuranza, —en cambio vosotros, vosotros los nobles y violentos, vosotros sois, por toda la eternidad, los malvados, los crueles, los lascivos, los insaciables, los ateos, y vosotros seréis también eternamente los desventurados, los malditos y condenados!”... Se sabe quién ha recogido la herencia de esa transvaloración judía... (kristautasunak, alegia).

2. *Demokrazia-tipo judua, ez grekoa*

Nietzscherentzat, oro har, bi printzipio mota dago, bi arima tipo, bi jende modu, bi moral: izpiritu bortitz galan-ta dago eta izpiritu zimur ziztrina dago. Izpiritu bion araber, gizarte mota bi ageri zaigu historian, segun zein printzipiok egon domeinatuta: (a) goranzko gizarte arrai, sasoiko, indartsu, *aristokratikoak*; eta (b) gizarte zarpil, dekadente, nahas-mahastu, goibel, bulgare, *demokratikoak*. Gizarte organizaturik (Estaturik) dagoenez gerozko guztian daukagu agintaririk eta aginpekorik, eta bitarte horretan guztian dirau bion arteko (printzipioen) gatazkak ere. Ez da bi klase sozialen arteko borroka bakarrik: bi gizakera da, bi arraza, bi mundu-ikuskereta eta sentiera, bi balio sistema, bi nortasun eredu, bi gizalege, bi jokabide,

bi arima. Uste dut, neke handi gabe imajina daitekeela, zaldun arteko harremanetan aitonsemeeek berentzat eta menpekoekiko jauntasunean eratu morala, eta manupekoek eraturakoa beren arteko inurri-borroka luzean superbizitzeko eta nagusiekiko beti apaltasunean haien gupida eta faborea irabazi beharrez edozein momentutan birrinduak ez izateko, bi moral kontrarioak izan beharko dutela beren xedeetan eta balio eskalan.

3. *Ahuldadearen demokrazia*

Halaxe da. Azkeneko izpiritu-aristokrata zuta kultura frantsesean Voltaire izan da, Nietzschek deritzenez. Ondoren datorrena plebeiuakeria hutsa da dena, belaskeria, demokratismo gaixotia eta sentimendu miliki, mengel-mindulinak; barnagoan bilauaren pozoia, bekaizkeria eta gorroto bulgarearen mendeku lurpetarra. Rousseau da, bere jatorri plebeiuia ideia guztietan ageri duela, humanismo gorenaren izenean beti ideal kristau narrasen predikari.

Yo odio a Rousseau, idazten du Nietzschek, incluso *en* la Revolución: ésta es la expresión histórico-universal de esa duplicidad de idealista y *canaille*. La *farce* sangrienta con que esa Revolución se representó, su ‘inmoralidad’, eso me importa poco: lo que yo odio es su *moralidad* rousseauniana —las llamadas ‘verdades’ de la Revolución, con las que todavía sigue causando efectos y persuadiendo a ponerse de su lado a todo lo superficial y mediocre (hauxe dituzu Nietzschek deritzuz demokratak!). ¡La doctrina de la igualdad! Pero si no existe veneno más venenoso que ése (...). El hecho de que en torno a aquella doctrina de la igualdad haya habido acontecimientos tan horribles y sangrientos ha dado a esta “idea moderna” *par excellence* una especie de aureola y de resplandor, de tal modo que la Revolución como *espectáculo* ha seducido incluso a los espíritus más nobles.

4. *Hondamen judu-kristauaren goena*

Azkeneko beste aipu bat Nietzsche bukatzeko. Iraultza erlijioa (protestantea) eta burgesa alderatzen ditu eta dio: “En un sentido más decisivo incluso y más profundo que en la Reforma protestante, Judea volvió a vencer otra vez sobre el ideal clásico con la Revolución Francesa: la última nobleza política que había en Europa, la de los siglos XVII y XVIII franceses, sucumbió bajo los instintos populares del resentimiento, — ¡jamás se escuchó en la tierra un júbilo más grande, un entusiasmo más clamoroso!”.

Honekin lortu dugu orapilatzea hiru puntuak, alegia, Mirande zergatik etsaia den kristautasunarena, beraz demokraziarena, eta beraz Iraultza Frantsesarena. Eta nola dena bat den. Azken puntu batez aurreneko planteamolde hau biribiltzea falta dugu orain: Iraultzaren arbuioan aber-tzaletasunak izan duen partea propio eta bereziki. Mirandek, “zuberotarra naizen aldetik, Frantziako Errepublikak izate ofizial oroz gabetu duen herri bateko seme alegia”, protestatzen badu, kontua ez baita funtsean bere samintasun pertsonal gutxi-asko mingarria, baina horren barna-goko signifkazioa.

7

Demokraziaren antinaturala

Demokrazia antinaturala da, esango liguke Mirandek. Nola ulertu hori? Adiera askotan da antinaturala. Antihistorikoaren eta antikulturalaren sentiduan hartuko dugu orain. Izan ere, Iraultzak lepoa moztu bazion erreginari, eta noble asko gillotinatu bazuen, hori ez da orain gure

problema: baina gure problema da, bere ondorioetan zer egin digun geuri, zuberotarroi adibidez.

1. Haragizko gizakia versus paperezko hiritarra

Ez al da egia, paperezko hiritarrak baino lehen mundu honetan denok hezur eta haragizko amaren semeak garela? Zer da gizadia, benetan izan? Hasieragotik hasteko: Metrora joan eta Parisen hainbeste ikusten diren gizaki beltzak, asiar horiak, zer dira berak? Zer arima dute? Zer dira arrazak, herriak, kulturak, eta zer dira gero aduanak, Parlamentuak eta Estatuak? Edozeinek baitarama haurtzaroko kanta bat ariman, baina inork ez darama ariman pasaporte bat edo aduana bat. Zein da odol eta haragizko erroetako gizonaren, herriaren arimako historia, eta zein da printzipioz eta lege-kodez oskol-jantzitako Estatuarena?

2. Estatuak versus nazioa

Hartzen badugu bere denboraren luzean eta zabalean, gizona ikusten dugu familia eta leinutan, herritan, naziotan, elkarte nolabait “naturaletan”, bilduta. Erakundeok ehundaka edo milaka urteren emaitzak dira, gizonarekin batera haziak dira, edo gizona bera esan beharko genuke hazi dela horiekin eta horietan. Milaka urteren atxikimenduz atxikitzen zaie orain gizona. Horiei atxikiz bere bueruari atxikitzen zaio barne-barnean: horietxek da bera. Parajearen fruitu dira, erakunde zaharrok, itsasoarenak eta mendionak, gizonaren senti eta bizierarenak paraje horretan, giza eta natur jardunarenak elkarren gain, arrokak ere leuntzen dituen denborarenak. Zuberotarra eta paristarra diferenteak izateko, beraz, arrazoiak munduko guztiak daude, eta berdinak izateko errekan ez dago arrazoi bat finen. “Frantzia” esatea, orduan, jendeari bagagozkio, fik-

zio bat esatea da. “Alabaina endak, hizkuntzak, legeek — idatzitakoek edo ohiturazkoek —, Edestiak dute herri bat besteetatik berezten, eta ikusgune horretatik, Espainian Eskualdunak eta katalandarrak aurkitzen diren bezela Espainolen aldamenean, Bretaina Haundian Ingelesen alboan Galestarrak eta Eskoziarrak dauden legez, beste sei enderri baditugu Frantzia, Frantzitarrez beste: Eskualdunak Laburdin, Be-Nafarroan ta Zuberoan; Bretoiak; Nederlandarrak Flandesetan, Rijsal (Lille) huriburuaren inguruan; Alemanak Elsatzia eta Lotharingian; Italianoak Korsikan; eta Katalandarrak Rosellonen”. Herriok guztiok ez dira berenez eta naturalki elkarganatu, baizik eta “Frantziako Erregeek beretu zituzten Edestia zehar, nahiz guduz, nahiz diplomaziaz, nahiz ezkontzaz edo diruz”. Batasun hori koroari zen adinean, halere, ez frantses herriari, herrion izaera naturala zaintzen zuen: “esan nahi baitu Erregeek utzi zizkietela beren batzar ta legeak, beren ohitura ta usantzak, bai eta beren hizkuntzak erabiltzeko ahalmena”.

3. Euskaldunok nazioan eta euskaldunok Estatuan

Honezkero, herriaren jatortasun berezko horrek Miranderentzat zuen esanahi sakona beharko genuke azaltzera sartu, are Miranderen nolabaiteko metafisika naturalista, filosofian bezain oinarrizkoa da politikan: nola mendez mende forma hartu duen bere mendi-basoetan euskal ari-mak, bere senarekin, instintoekin, intuizioekin, bere mitologiarekin (euskal endaren teologia), euskaldun jatorra horretan guztian, deskristaua ezezik, antikristaua ageri baita. Mirande sinestuta dago, “euskaldun fededunaren” tradizioa faltsifikazio historiko zein antropologiko izugarri bat dela soil-soil. Eta euskaldun “zintzo”, on-puska, elizkoi, demo-

kratiko, “jator” hori, gezurrezko inbentu moderno bat halaber (Iraultza burges-demokratikoaren inbentua hain zuzen). Gai guztiok lotuta daude, hertsiki-hertsiki lotuta elkarrekin. Bakarrik hemen berezi beharra dago, ez luzatzeko.

Berez etorri eta hazitako herrion nortasuna, beren erakundeak (odoletik eta herriaren jatortasun zaharretik muskilduak), beren noblezia eta harrotasuna, hirietako burgesiak birrindu egin ditu. “1789garreneko Jazarmendu edo Matxinada haundiak ordea gauzak aldarazi zituan zeharo, ez bakarrik Frantzitarrentzat, errege-erreginei lepoa moztu ta Errepublikak jarritz, baina bai herri txipiontzat ere. 1789garreneko dagonillaren (abuztuaren) 4an jazarleek gizon bakoitzaren eskubide bereziak erauzi bazituzten, huri ta probintzienak ere kendu zituzten: probintzien eskubide bereziok, bada, herrien lege ta usantza zaharrak ziren, erregeek konkistatu ondoren utzi zizkietenak. Urtebetegarrenean, Jazarleak urrutiago joan ziren bide horretatik: probintziak berak ezeztatu zituzten ta haien ordeztailketa administratibo berri bat asmatu zuten, erresuma beren nahiera departamendutan zatikatuz”.

Gauza hauek ezagunak dira (behar lukete), eta ez dugu jarraituko Iraultzak Iparraldean egin triskantzaren historiarekin (Pinet, Cavaignac). Gehiago interesatzen zaigu orduan inplantatu den printzipio politikoa eta haren ondorioak.

8

Razionalismo antihistorikoa

Praxi horren muinean, ideologikoki, “Iraultza Frantsesak esan nahi du (...) razionalismoaren garaipena”, Splengler-ek dioenez.

1. Historiak eta kulturak oinarritzen dituztela herriak: ez arrazoimen geometrikoak

Errealitate konplexu, aberatsak izaten dira herriak. Baina horretarako, ikusi eta ezagutu nahi izan beharra dago, zer diren herriak, Estatu-oskolaren azpian: ingelesez mintzo zaizkizun eskimoen ohiturak etxe barruan, armeniarren emigrazioa eta oroipenak Parisen, judu familien mirari beti berdin miragarria Zambian, Jamaikan eta Münster-en. Joaten zara oporretan Atlaseko kabila batera edo berdin da beste edonora, eta unibertso lotsagarriro guztiz berri ustegabeko, orain artean arras ezezagun bat deskubrituta itzultzen zara, bostehun lagun baino apenas gabeko mendi-auzo elkorretik, eta liburu bat ikusi gabe hilabete osoan. Jakituria ez dago liburuetan. Jende horien milurteko otoitzetan zegoen, mitoetan, esperantzetan, goizargitan mendiari begiratzen dioteneko isiltasunean. Sortu duen gizadiaren kulturetan dago gizonaren arima.

Zuberoako kankak eta tradizioak entzuten eta gozaten ditugunean, erromantzeak, istorio zaharrak, aspaldi-koak dira kontu horiek denak, baina zuberotarrak oraintxe bertan zer jende modu diren ikasten dugula iruditzen zaigu. Kanpoan Zuberoako mendiak, basoak, eguzkia, ikusiz, barruan arima zuberotarra sumatzen dugula iruditzen zaigu, herri baten kulturari zinez barnatu gatzaizkionean. Eta berdin, bretoinak zer jende mota diren, edo probentzarrak, alsaziarrak. Herri baten arima historian espresatzen da, osatzen duen kulturaren. Hori da herri hori.

Eredu sozial demokratikoa alderantzizkoa da. Ez da mendez mendeko aurrerapide eta esperientzia historiko astikor geldien emaitza polliki-polliki umotua, ezpada kabineteko buru egonezin batzuen diseinua, asmazioa. Arrazoiaren geometria purua da, gizartea eta historia geome-

triari azpiratzeko ahalegina. Filosofoen eta literatoen inbentua, ez bizitzaren fruitua. “Iraultzaren ideia guztiak”, dio Spengler-ek *Mendebaldearen Gainbehera*-n, “*eternalak* eta *egiazkoak* dira. Gizonaren eskubideak, askatasuna eta berdintasuna, literatura dira, abstrakzio hutsa eta ez egitateak”. Ez dago euskaldunik eta bretoinik, gizaldietan zehar berek eraiki dituzten eskubideekin eta obligazioekin beren kontzientzietan (nortasunetan). Hiritarra besterik ez dago. Aurrerantzean arbasoen esperientzia historikoa baino liburuak inportanteagoak izango dira. Tradizioetako antzinate zaharren lekuan, jendearen harremanetan, printzipioen eternitate hotzak aginduko du. Lanean, politikan, gerran, burges modernoa ez da bere aurreko pertsona, jende, herri zinezko batzuekin afrontatzen, baina xifra, kontzeptu, ideia batzuekin. Eta ideiekin eta xifrekin nahi adina krudela izan liteke “objektiboki”; hain zuzen, bigunkeriak eta sentimenduak utzi eta, objektiboa eta razionala behar da izan.

2. *Razionalismoa versus historia*

Burgesak zein hirietako jendaila kaletarrak, biek berdin, errorik ez dute iragan zaharrean, ez arbasoek belaunez belaun goldatu landa-lurrean sustrairik. Ulertu ere ez dute egiten jadanik naturarekin kontaktu minean mamituri-ko barnekera. Spengler berriro: “Iraultza burges oro hiri handian baizik ez dago, eta haren bereizgarria da batere konprentsiarik ez dutela sinbolo zaharrentzat, berauek interes eskuztagarriekin ordezkaturik (...). Jagoitik, arrazoiak justifikatzen duen hark baizik ez du baliorik”.

Burgesak ez du bere kulturarik, ezaugarriarik. Herrikerik ere ez du; edo, ez duena, herria da. Bere zinezko gizarterik ez du. Kosmopolita da. Bere lagunak berdinak di-

ra Parisen eta Londresen. Bere interesak ere berdinak dira Londresen zein Parisen. Hots, bere praxian, burgesiak “arrazoi” berberak ditu han eta hemen, aiurri berbera du nonnahi, eta xede berberak pertsegitzen ditu edonon. Berdintsu gertatzen da, bestalde, jendeteria errogabetuen masa hiritarrekin: etorri edonodik etorri bide ziren zorte bila, baina gero, nahaspila horretan *melting pot* nahastuta, ez dira inongoak.

Horiek, bada, arrazoimena gizaki guztiengan bakarra eta berdina omen delako eran, proiektatuko dute beren gizarte eredua: bakoitza boto bat eta boto guztien batuketa herria: denentzat aberri bat, lege bat, hizkuntza bat, dena bat. Parajeetako eta historiako diferentziak, herrien arimetakoak, tradizioetakoak, borratuta geratzen dira. Zer den Zuberoa bat, aparatu kontzeptual horretan kabitzen ez den arazoa eta kezka litzateke. Ez da ulertzen. Iraultza Frantsesak, horregatik, “nazioa bera ez baina nazio-kontzeptua liberatu zuen” (Spengler).

3. Nazio matematikoa: Konstituzio-paperez egindako herriak...

Mirandek, hortakoz, sarritan kritikatu du “demokraziaren kontzeptu abstraktua”. Hona hitz garbi askoak: “Zentzu oneko edonork badaki endak, hizkuntzak, aspaldiko ohiturek eta edestiak dutela herri bat moldatzen. Frantziako errepublikanoek ordea faktore horiek garrantzi gutxitako dauzkate, non ez dituzten besterik gabe ukatzen; haientzako herria adigai abstraktu bat baizik ez da gehiago; herri-araudi edo konstituzio bati darraizkionek omen dute herri bat moldatzen. Ez da harritzeko beraz Poloniako ghetto batean jaieriko judu bat, bai eta Afrikako beltz bat, aitzin-iritzirik gabe Frantziako herritartzat

onartzen badute, mundu guztiko “aurrerazaleen” gorai-puak horrela irabaziz. Baina bestaldetik, ukatuko dute Euskalerrria (...), Britainia, Flandes-herria, e.a., egiazko herriak, hots, aberriak direla. Eta bestera uste eta nahi duten Euskaldun, Bretoi edo Flandestarrak, edo ergeltzat edo traidoretzat dauzkate”. *Abertzaletasunaren inguruan* saioan, 1953koa berau, Frantziak Eusko Jaurlaritzari gerrakoan laguntzarik eman izan diola eta, Mirandek ez du engainatu nahi horregatik bere burua: “Hots, Frantziaren etsaigoa edo adiskidantza ez dagokio euskal endari, baina politikatik doa beti. Nola izan liteke besterik? Frantsesek enda bat zer den ez dakite; jakin ere ez dute nahi. Frantziako politika-gizon guztientzat, *Frantzia Ekintza*-ko Murrastarretatik hasi-ta demokristar eta sozialistetaraino, abertzaltetasuna asmo huts bat baizik ez da: batzuentzat Frantzia Erromaren alaba gehiena da; besteentzat, demokraziaren sorterrria... Baina ez batzuek, ez besteek, odol-haragizko gizonaz, egiazko gizonaz, enda bateko den gizonaz batere ez dute ardurarik bere herrietan”.

4. ... eta paperezko gizabanakoak

Beharbada zehazpentxo bat komeni da hemen: demokraziak eredu desberdin anitz badu. Askotan esan da, demokrazia modernoa indibidualismoarena dela, gizakia berdin “bat” zenbakiarena. Baina Suitza demokrazia da: emakumeak ez dira bat, baina zero. Hego Afrikako Errepublikak demokrazia da (bere modura: kolorean ez da zuria eta beltza berdina matematikoki); Israel demokrazia da, eta dexente jatorragoa edozein aldetatik ere Espainiakoa baino (palestinarren borroka ez ote da “zilegizkoa” eta demokratikoa halere?). Atenas demokratikoan “maketoek” ez zuten boto eskubiderik (akaso Alemanian bai?). Euskal

Herriko nekazal demokrazia zaharrean batasuna (botoa) familia zen: pentsatu ezinezkoa izango zen, senarra eta emaztea bi boto (bi interes desberdin) izatea. Pertsona publikoa familia zen, etxea alegia, suetea. Iraultzarekin demokrazia burgesak, familia edo auzoa, herria bezalako “elkargo naturalak” ezabatu egin ditu, atomizatu egin du gizartea, pertsonak bat zenbaki oro berdinak bihurtu ditu denak, hots, “gizaki abstraktuak”. Hori bera nahiko abstraktua da seguruenik, horrela esanda: zer da, izan ere, gizona “gizaki abstraktu” bihurtuta geratzea? Adibide konkretu hau daukagu oraintxe egunkarian (*Egin*, 1989, otsailak 5: J.L. Davant eta Jeanne Idiart Davanten gutuna):

El matrimonio formado por Frédéric Larçabal y Jacqueline Idiart fue arrestado el pasado día 11 a raíz de la detención, esa misma tarde y a quinientos metros de su domicilio, de un presunto miembro de ETA. En la operación fueron detenidas otras tres personas más. —Sus dos hijas, Otxanda e Idoia, de 15 y 13 años respectivamente, no pudieron ver a sus padres durante la incomunicación en comisaría, que terminó el día 15. Las autoridades no dieron a las niñas ninguna noticia de la suerte que correrían sus padres. Ni entonces, ni después. Quedaba en manos de ellas enterarse por otro lado y también, en consecuencia, conseguir ayuda en su vida cotidiana. Para el Estado no hay más que individuos aislados, que se toman o se dejan uno por uno...

9

Gaztetako borroka, zahartzaroko demokrazia

Esaten zuen Hegel-ek, herriek haurtzaro, gaztaro, beren adinak izaten dituztela. Gaztaroan, sasoia dariela, borroka eta abenturetan ibiltzen dira. Kapitainak sortzen di-

tuzte orduan. Zahartzaroan filosofoak sortzen dituzte. Ne-
katutxoak egoten dira ekintzara ateratzeko eta sutondoan
teoriagintzan egoten dira. Gure arazora etorritz: demokra-
zia, Nietzschek eta Spengler-ek adierazi duten eran, herri
baten zahartzarokoa da. Bere barneko indarrek eusten ez
diotenean, ideietan apoiatu behar izan duenekoa.

1. Dekadentziako sistema

Esan bezala, ikuspegi (nietzscheano) honetan demo-
krazia ez da sistema kasik ideal bat, ez eta hoberena ere
bere txarrean (edo txarretan gutxien txarra: W. Churchill),
baizik eta dekadentziako sistema lardats tipikoa, tipo de-
kadenteentzat eta tranposoentzat bakarrik ona eta gozoa.
Gora doazen herriak ez dira demokratikoak izaten. Gizar-
teak martxan planto egitean, ezer berririk ezin irabazi eta
irabazitakoa denen artean banatu egin nahiago izaten de-
nean, gorantz jarraitzeko gidari bulartsurik ez denean he-
rriari geratzen, asperkunde larri eta neke berdotz horretan,
zaldunen eta gudarien lekuan politiko demokratikak ager-
tzen dira, hitzun apainak ekintzale gotorren ordeko.

Espania ez zen demokratikoa Errege Katolikoekin,
Karlo I.a eta Filipe II.ekin. Luis XIV.ekin izan da
handia Frantzia: absolutismoan. Begira Erroma, Alexan-
der Handia Grezian, edozein Inperio. Alegia, Txomin
Peillenek esanik, ezaguna da, Spengler-en *Mendebaldear-
ren Gainbehera*-k asko hunkitu zuela Mirande. Eta Spen-
gler-en balorazioa ere ezaguna da, demokraziarena zein
Iraultza Frantsesarena.

2. Hiritzarreko anabasen sistema

Iraultza hori justu kosmopoli anorganiko hilotzaren
kontra-garaipena da baserri bizitza organikoaren gainean.

Iraultza bere ideiekin burgesiaren produktua da, burgesia bera hiriarena. Burgesiak, ordea, ez du kulturarik (ez delako sustrairik), ez du hezkuntzarik, hazturarik, nortasun propiorik. Bada, eta baina, ez da bera: azal eta itxura hutsa da, mozorro eta kopia.

Nace la burguesía por la fundamental contradicción entre la ciudad y el campo (kasuan zilegi izan bedi estrapolatzea: kontraesana Paris eta Zuberoaren artean)..., en un común sentir frente a la nobleza primitiva y al Estado feudal y también frente al feudalismo de la Iglesia. El concepto del tercer estado (*le tiers*, según la famosa palabra de la Revolución francesa) es unidad de *contradicción*: no puede, pues, encontrar determinación en su contenido, pues carece de propios hábitos y del simbolismo propio, ya que la sociedad burguesa distinguida copia a la nobleza, y la religiosidad ciudadana (urbanoa) sigue la pauta del sacerdocio primitivo (landatarra).

Burgesiaren goititzearekin agintera, jendeteriak plazaratzen dira halaber bizitza sozialean zein politikoan. Fenomeno berria da historian. Spengler-en esaera gordinean:

Debe añadirse ahora un elemento, que aparece por primera vez y que (...) ahora representaba una fuerza: ese elemento que en todas las civilizaciones recibe el inequívoco nombre de hez, populacho, plebe. En las grandes ciudades —que ahora lo deciden todo, siendo el campo a lo sumo capaz de tomar actitudes ante los hechos consumados, como demuestra todo el siglo XIX— reúnese una masa de población desarraigada, que no pertenece a ningún círculo social. Esos hombres no se sienten unidos a una clase, ni pertenecientes a un grupo profesional —y en el fondo de su corazón ni siquiera a la clase trabajadora, aunque están obligados a trabajar. Por instinto pertenecen a esta hez gentes de todas las clases y grupos, aldeanos desarraigados, literatos, hombres de negocios arruinados, y sobre todo, nobles decaídos y desviados, como nos lo muestra con tremen-

da claridad la época de Catilina. Su poder es mucho mayor que su número, pues siempre están situados en la proximidad de las grandes decisiones, siempre dispuestos a todo, sin el menor respeto al orden, incluso al orden indispensable en un partido revolucionario. Estos hombres son los que dan a los acontecimientos el poder aniquilador que distingue la revolución francesa de la inglesa y la segunda de la primera tiranía.

3. “*Fructutik arborea eçagutzen*”

Lan munduan burgesiaren drangadak deskateatu duen garrakeria eta esklaberia berria, Marxek hobeto salatu du. Beraz, oro har eta puntu hau bukatzeko: nola baloratu “demokraziaren aro” bedeinkaziozko hau historian, azkeneko berrehun urte hau? Asko goratzen da demokrazia. Baina ez da hain zuzen krabelin eta arrosazkoa izan demokraziarena deritzogun tenore hauxe: gizadiak ez du justu berrehun urte honetan baino triskantza eta gerra eta txikizio ikaragarriagorik sekula ezagutu historian. “Demokratizatu”, gerra eta txikizio metodoak ere egin baitira nonbait: populazio zibilaren bonbardaketa indiskriminatuak, kontzentrazio-barrutiak, genozidio plangintzak, arma kimikoak.

Los métodos de la guerra, sus medios y sus fines adoptan otras formas, formas naturalistas y terribles. Ya no son, como en el siglo XVIII, duelos en forma caballeresca, semejantes a un desafío en el parque de Trianon, encuentros con reglas fijas acerca del momento en que deben declararse exhaustas las fuerzas, acerca de la cantidad máxima de elementos guerreros que pueden desenvolverse, acerca de las condiciones que el vencedor, caballero, puede imponer. Son luchas tremendas de hombres rabiosos que pelean con todos los recursos imaginables y que llegan hasta la caída corporal del uno y al desenfrenado aprovechamiento de la victoria del otro. El primer gran ejemplo de esa vuelta a la naturaleza lo dan los ejércitos de la Revolu-

ción y de Napoleón, que, en vez del artístico maniobrar con pequeños cuerpos de tropas, emplean el ataque en masas, sin temor a las pérdidas, deshaciendo así la fina estrategia del rocó. Poner sobre el campo de batalla toda la fuerza muscular de un pueblo, como sucede con la aplicación del servicio obligatorio, es una idea completamente ajena a la época de Federico el Grande.

Beste alderdi batzuk oroituz luzu liteke, baina apenas egongo da beharrik: nahikoa izango da, demokraziak zein “kultura” berri ekarri duen lanean eta gerran (lanaren eremurako Marxengana igortzen dugularik). Horra Goyak marraztu “arrazoiaren ametsak”.

10

Kopurua edukitzea ez dela arrazoia edukitzea

Printzipio demokratikoa botoen kopuruarena da. Baina kasu, berriro: tranpa dago.

Are bikoitza dago tranpa. Aginpidea zeini aitortzeko, edo partitzeko, boto kopuruaren irizpidea, printzipioz ongunde pragmatiko beste edozein bezain egokia ala desgokia izan liteke, eta instituzio monarkikoa bezain arrazoizkoa eta legitimoa gutxienez bada. Baina, lehenengo, botoen kopuruak eta, beraz, aginpidea, Alderdika partitu eta zenbatu behar direla, inola ez da printzipio demokratiakoari zuzenean lerraiokoen ondorioa. Arrazoirik batere ez dago, Alderdiak egotea debekatzea, Alderdiak egotea inposatzea bezain demokratiko, ebatz ez ledin. Eta, bigarren, boto gehiago edukitzea arrazoi gehiago edukitzearekin egin ohi den berdinketa, beste tranpa bat baino gehiago, gezur-sasi bat da.

1. Berdintasunaren tranpa, edo azeriak nola irabazi otsoari

Demokraziarentzat gizaki guztiak omen gara berdinak. Baina kontsidera dezagun bi alderdi. De fakto bi pertsona berdinek ez dago. Esan dugu, automata demokratiko edo hiritar hori, kabineteko asmazio razionalista dela. Eta haren oinarrian ahulen moral idealeko gizatasun eredu dagoela. Baina zer gertatzen da, ahulak besteen gainetik altxa daitekeela sumatzen duenean, eta besteen bizkarretara altxatu egin nahi duenean? Moralitasun berrian gaizki ikusita dago. Beraz, ageriki ezin dena, maltzurkeriaz eta tranpaz egin behar. Otsoa izaterik ez badago, azeria izango da. Eta horrela iristen gara hipokrisia eta amarru zikinak instituzionalizatzerantz: jende horrek bere Alderdiak muntatzen ditu, Parlamentuak eta behar diren hauteskuntzak, egin nahi duena besteen bidez egiteko eta eragiteko, berak eskuak inoiz lorrindu gabe, gortina atzetik mugimendu denak zoli-zoli begira-zainduz. Baina orduan hasieraren alderantzizkoa ateratu zaigu: mozorropean bai, baina printzipioetan ukatzen genituen desberdintasunak, dialektikoki bueltan-bueltan, berriro agertu dira praktikan. Ez, denok ez gara berdinak!? Bai, erantzungo zukeen Mirandek botere faktiko horiei buruz, Orwell-en ateraldi zorrotzarekin: “denok berdinak izan, bagara; baina batzuk *berdinagoak...*”

2. Ordezkaritzaren tranpa, edo herriak nahi omen duenaren profesionalak

Imajina dezagun Errepublika txiki bat. Aste honetan hezkuntza arazoak tratatzen dira gure Parlamentuan eta bost mila arima inguruko gure herritik (edo auzotik, barriotik) Urdia bidali dugu ordezkari, eskolako zuzendaria,

hezkuntza arazoez bera dugu-eta herrian artatsuen. Datoren asterako erizain bat bidaliko dugu, osasunaren eztabaidara. Hurrengoan Sandia, Aurrezki Kutxako enplegatu bat, baina ekonomiaz oso jantzia, ekologiaz ere kezkatua, azken denboran ideia biziki originalak desarroilatzen ari den gaztea. Eta etortzen direnean, zer egin duten herriko batzarrean kontatzen digute, gauzak nola joan diren eta zertan geratu diren.

Baina, zer da demokraziotan de fakto gertatzen dena, hori gabe? Botoa behin eman eta, denerako eta edozertarako badaukagula ordezkaria, urteetan eta urteetan. Beti pertsona bera da. (Egin bedi estatistika bat, batz bestez zenbat irauten duten kargudunok “herriaren nahia” ordezkatzeko). Gure ordezkaria politikako profesional bat da. “Profesionala”, alegia, zertan? Nekazaritzako arazoetan, hezkuntzakoan, garraioetan? Zernahitan: beti badaki edozertaz ahoa irekitzen eta zergura esaten. Harrezkero bere profesioaren artean bizi da: urte osoan ez dugu ikusten, gure biltzarretara ez da agertzen (bere Alderdikoetara izan ezik behintzat). Han hobeto jakiten du nonbait herriak zer nahi duen. Parlamentuko eztabaidetan zer behar duen zehatz-mehatz defendatu, zein hitz eta arrazoiekin, botoa zein aldetara noiz eman behar duen halaber, Alderdiak agintzen dio, ez guk, segun Alderdiari kasuan-kasuan zer interesatzen zaion. Etab., etab. Zer arraio: gu, ala Alderdiaren aparatua da, ordezkatzeko dena Parlamentuan? Utz dezagun, halere, “ordezkaritzaren” kontuan luze jarrai liteke eta.

Pentsatzen da, horrelaxe izan beharra daukatelako, izaten direla horrela gauza horiek, eta ez ditugu kuestionatzen. Historikoki, ordea, eta jatorrizko bere sentiduaren arabera, printzipio demokratiko burgesa ez da Alderdi sis-

temarena, nonbait gaurko demokratek demokraziarik Alderdi gabe ezin imajinatu dutela ematen badu ere (Kuban, Soviet Batasunean, halaxe entseiatu da, Alderdiena baino demokraziaren formula egokiagoak bilatu nahiz). Alderdiak demokrazia garbienaren inkarnazioa direla komeni baita orain sinestaraztea, ezkutatu egiten da eta ia ahaztu dugu denok, demokrazia modernoaren hasieran eta XIX. mendean aurreraino arte, Alderdi horiek antidemokratiko eta demokrazia garbiarekin batezinezko izateagatik debekatuta egon zirela demokrazietan. Perikle-ren Atenas klasikotan, Errenazimentuko Florentzian, euskal demokrazia foralean, ez zegoen Alderdirik. Lehenagoko arrazoiak utzirik: ez ote da gertatzen gaur, jendeak zer nahi Alderdiek hura egin baino, Alderdiek zer nahi, behar izaten duela jendeak egin, botoa ematerakoan? Eta demokraziaren teoriko “ilustratu” handiei bagagozkie, demokrazia eta alderdi sistema berdindu nahi izatea baino apenas dagoen absurdu historiko-teoriko handiagorik. Rousseau bategen adibidez, lekurik ez du uzten engainurako: “Ordenu naturalaren kontra doa kopuru handiagoak gobernatzea eta txikiagoa gobernatua izatea”. “Subiranotasuna ezin daiteke errepresentatua izan, besterendua ezin izan daitekeen arrazoi beragatik; borondate orokorrean baitatza hura, eta borondate orokorra ez da ordezkatzeko; edo bera da, edo besterik da: ez dago erdibiderik”. “Bere buruari ordezkariak ematen dizkion une beretik, herri bat ez da libre; ez da”.

3. Razionalitatearen tranpa, edo arrazoia zenbat kilotan partitzen den

Bigarren iruzurrera etorri: lehen, razionalismoaren ekoizpena dela esan dugu demokrazia modernoa. Egia da

apika, baina pixkatxo bat gutxiago: azpi-azpiagoan, arrazoizatze exigentziei adio espresoa eta uko rasoia baita, boto gehiago eta “arrazoi” gehiago (eskubide, botere) identifikazioan dagoena. Adostasuna lortzen razionalki ahalegindu ordez, arazoak zuzentzeko, botoen kopuruz erabakitzen da zer hartu arrazoizkotzat. Egia, egiazkoa, arrazoizkoa, iritziaren edo arrazoiketaren kualitatezko determinazioak dira. Baina zaila nola izaten den askotan razionalki ebatzea zuzentasun kualitatibo hori, kuantitatiboki likidatzen da arazoa eta kito, planteamendu guztia isil-misilka barrutiz nahiz mailaz aldatuz (praktikan: arrazoiketatik propagandara) eta soluzioa fortuna kapritxosoari, ala publizitatearen arrakastari, gomendatuz. Azkenean soluzio boluntarista bat nolanahi ere, ez razionalista. Hau da, irrazionalitatezko hanka gainean tentetu nahi lukeenaren razionalismo borro bat: melodia batekiko sentimendu gozotasuna kilotan edo tristura metrotan espresatu nahiko balira bezalatsu. Fikzio horixe jokatzen da, ordea, demokrazian. Arrazoiak botoen kopurutan, zenbakitan, egiaztatzen da. Ahaztu egiten da (zertarako esan, oroitu nahi ez duena baino ez dagoela ahazkorragorik), razionalismoaren aitagoi modernoaren atari-atariko esakuna: egiak eta arrazoiak ez daukatela zerikusi gehiago botoekin hego haizearekin-edo baino. Botoek ezin lezakete arrazoiketa ordeztu, Descartesek dioen legez *Metodoaren Diskurtsua*-n: “botoen aniztasunak ez du balio, inondik inora, auzi eztabaidagarrien egiaz erabakitzeke, errazago gertatuko baita lagun bakar batek deskubritzea, ezen ez herri osoak”.

Herri-iritzia- ren produkzioa: demokraziaren jabe sekretuez

Gainera, bitartean ez baikara XVII edo XVIII. mendeetan bizi, razionalismoaren aitagoiekin, ez eta demokraziaren aitzindari teorikoekin ere, Aro Garaikidean badugu beste arrazoi triste bat gehiago, boto kopuruaren eta zuzentasun eskubideen identifikazioan gehiegi ez fidatzeko. Honezkero zientzia berri guzti bat dagoela, teknika azkarrak eta industria puxant bat badagoela, herriak zer nahi izan behar duen, egin egiteko eta produzitzeko, interesen arabera. Aski indar finantzario eduki behar bakarrik, tresneria horiek finantzatzeko eta herriari zer nahi izatea “komeni zaion” manipulatzeko. Dirua daukanak, orduan, “arrazoia” produzitu egiten du eta eskubideak eskuan dauzka, botoak edukiz.

Boto-kopurua berdin arrazoia eta eskubidea baldin bada, arrazoirik ez zuen Euskadin Arana Goirik. Fanatiko bat zen. Zenbat kilo du (boto) arrazoiak? Egiak? Berdin: engainaturik zeuden, gehiengoaren aurka, Karl Marx, Jesus Nazaretekoa zein Sokrate, gizonaren historian horietxek bakarrik aipatzeko. Baina arrazoi zuten Hitler-ek Alemanian, Salazar-ek Portugalen, Papa Doc Duvalier-ek Haitin, Porfirio Diazek Mexikon, etab. etab., eta Frantzia ez dakit zergatik De Gaullek arrazoi gehiago izan beharko zukeen bere momentuan Pétainek baino. Edo alderantziz arrazoituz: hauteskunderik ez zegoenean arrazoizkoa eta zuzena zen Fraga faxista bat izatea, eta hauteskundeak egotea nahikoa da politiko bera demokrata ereduzkoa izateko, etab. Edo: poliziak eta torturatzaileak

faxismo-*an* faxistak ziren, eta demokrazia-*n* demokratak dira.

Beraz, boto-kopuruak edo gehiengoak inori egia, arrazoia, esku edo zuzenbidea aseguratzen omen diolako predikuari, guk itxuragabekeria eta metamorfosi-posibilitate horiek oposatuko dizkiogu Miranderekin. Edo aspaldiagoko Zizeronen arrazoiarekin (*De off.* 2,22): “non enim numero haec judicantur, sed pondere”, Schiller-ek “Demetrius” bere drama amaitugabe utzian honela itzulia, latinean eskas dabiltzanentzat: arrazoia zeinek daukan botoen bitartez jakiteko, “pisatu egin behar dira botoak, pisatu, ez zenbatu”. Kantitatea berriro kalitatetan irakurri alegia.

1. Agindu, beti indarrak egiten duela

Orduan, Miranderen jarrerak ulertzeko, hauxe izango da gure jarrera: 1. gizartean dagoena interesak eta indarrak dira eta indarron arteko borroka. Agintea indarrak jartzen du. 2. Interes eta indar horiek: ala elkar txikitzen ahalegindu litezke, ala tratuak hasi eta elkarrekin akordio batzuetara iristen (interesak desberdinak direnean, ez zeharo kontrarioak naturaz, eta haietan amore ematerik dagoenean). Interes horiek beren indarren arteko erlazioa, proportzioa, kalkulatzeko eta banatzeko mekanismoa dira hauteskundeak eta botoen kopurua. Ezkutuan ibili, beti indarra dabil (indarrak izen desberdin asko du), berak agintzen du beti azpitik. Moralak, eskubideak, herriak “bere nahia” adierazteak, ez daukate horretan guztian zer ikusirik.

Grekoek ez zuten erabiltzen gure moralinarik eta mizkinkeriarik politikan gauzak diren bezala esateko. Platonen *Errepublika* edo *Politeia* (338 d-e) elkarrizketan ho-

nela irakurtzen da hau guztia Trasimako-ren ahotan jarrita, Sokrate-rekin solasean (Pujanaren itzulpenari esker):

Ez ote dakizu gero, hirietatik batzuk tiranoez, beste batzuk demokratez eta beste batzuk aristokratez gobernatuak direnik? Eta hiri bakoitzean ez ote du agintzen indarra daukanak? Beraz, aginte bakoitzak berari dagozkion legeak ipintzen ditu, demokrazia-koak demokraziak, tirania-koak tiraniak eta besteak berdin. Ezarrikoan, berriz, eurei komeni zaiena zuzentasuna dela iragartzen diete menpekoei, eta hortik aldentzen dena lege-hausle eta bidegabe bezala zigortzen dute. Hau da, ene lagun hoberen hori, nik diodana, hiri guztietan zuzena gauza bera dela, jarririko aginteari komeni zaiona; eta honek dauka indarra, eta, alde guztietan, zentzuz pentsatzen duen edonor bat dator, zuzentasuna indarrik gehien daukanari komeni zaiona dela.

Laburbilduz, beste puntu batera iragateko: hainbat eratakoak daude munduan gobernukerak, demokraziak mota askotakoak daude halaber historian, demokrazia zaldun-aristokratiko homerikotik (edo, antzeko, indioen filmeetako gerra-batzarretatik) Errenazimentuko Komuna eta Errepubliketara edo nekazari-demokrazietara. Ez demokrazia, in abstrakto eta edozein kasutarako, sistema politiko ideala, eta ez demokrazia burgesa edozein kasutan demokrazia mota hoberena, kontsidera daitezke. Interes eta asmo jakin batzuen arabera asmatutako soluzio bat da, alderdi-hauteskunde eta gehiengoaren gobernu sistemarekin. Horrekin, hain zuzen, Spengler-ek deritzenez, demokrazia moderno honen espezifikoa aseguratu zen, hots, burgesiaren boterea: “erabat onartu zen printzipio hau: hauteskundeak negozioa direla, eta Estatuaren funtzionario guztiak direla (originalak *Staatsämter* dio: karguak) garailearen harrapakina”. Agintea bezala, eskubiak eta zuzenbidea, genero partikular batekoak, baina

merkantzia bat dira; eta, demokrazia burgesean, azokan jokutzen da haien balioa eta zoria.

2. Gehiengoaren printzipioaz

Puntu kritiko funtsezkoa dugu hori. XVI. eta XVII. mendeetan natura matematizatu den eran (fisika Galilei-Newtondarra), XVIII.ean gizartea nahi izandu da matematizatu. Hiritar abstraktu numeratuaren kontzeptuari, gehiengoaren printzipio demokratikoa dagokio. Demokrazian gehiengoa sakralizatu egiten da (monarkian erregetza bezalaxe, eta han odol urdinaren kalitatea bezalaxe hemen botoen kantitatea), gehiengoa sakramentu politiko bat da. Badakigu, demokrazia burges horren era askotako kritikak egin litezkeela. Hemen ez gara Marxen kritiken linean interesatzen ari, esate baterako (klase borrokarenean), Miranderenean eta haren gogaide “eskuindarreanean” baino. Halere gehiengo printzipioaren (ala mitoaren?) arbuioan, esandako era horretan jarrita hain zuzen, batera datozkigu eskuinak zein ezkerrak. Demokrazia “herriaren nahia egin” egitea baldin bada, esan ohi denez, praxian horren esanahi zehatza, lehenengo, herriaren nahia fabrikatzearena da; bigarren bakarrik, hura (botoetan) espreatu den eran konplizatearena. Gehiengo sozialak, esan bezala, fikzioak eta konstruktuak baitira. Baina, funtseanago, fikzioaren hastapenak, gehiengoaren printzipio hori oinarritzen duten Konstituzioak berak dituzu.

3. Gehiengoa ala Konstituzioa da lehenago?

Gehiengoaren zuzenbideak oinarritzen du Konstituzioa, ala Konstituzioak oinarritzen du gehiengoaren zuzenbidea? Konstituzioarekin eta gehiengoarekin daukagu-na oiloarena eta arrautzarena baita.

Begira: demokrazia bat asmatzera goaz. Alderdirik egongo al da gure demokrazian? Zer exigituko diegu? (erregetzari men egitea? Konstituzio hauxe aitortzea?, etab.). Nola egongo dira errepresentaturik Parlamentuan? Emakumeek (beltzek, palestinarrek, “metekoek”) izango al dute botorik? Zergatik ez da egongo botoa ematerik hamazortzi urte bete arte, eta bai hirurogei eta bost bete ondoren?... Zeinek erabakitzen ditu gauza horiek? Bai, erreferenduma egin zen eta orain Konstituzioak oinarritzen omen ditu hiritarron eskubideak eta eskubideon mugak: eta zerk oinarritu du Konstituzioa bera? Eta zerk legitimatu zuen erreferenduma? (haren eguna, formak, etab.). Nolatan botatzen da, botoa emateko eskubidea eta modua eta ematearen balioa berak oinarritzen duen Konstituzioa? Zeinek erabaki zuen zein testu, zein egunetan, zein modutan botatu behar zen (kasualitatez egun hartantxe, hain zuzen, botoa ematera joan baino askoz nahiago bainuen ohean geratu!), eta zeinek autorizatu zuen inor zer horretarako? (Ezkutuan makur babesten diren “indar faktikoen” galderak dira). “Gehiengoak” erreferendumean baietz botatu izan balio ere konstituzio horri: zein izan da Konstituzioa eta hauteskundeak baino lehenagoko eta goragoko (eta, beraz, gehiengo baino ere goragoko eta lehenagoko) ahalmen deigile sekretu hori, gizartearen egitamu markoak aldeztatik ezarri dituen, Konstituzioaren balioa bototara jokoan jarri ahal izan zuena? Zein eskubiderekin? Eta zergatik egin zen erreferenduma Irunen eta ez Hendaian, baina bai Ceutan? Eta zer gertatzen da ezezkoaren gutxiengoarekin? Edo egun hartantxe hain zuzen hamazazpi urte zituztenekin eta ez oraindik hamazortzi? Edo bost axola zitzaizkien?...

Izan ere, demokrazia bat asmatzera gindoazen. Eman dezagun, adibidez, gure herrian eguraldi txar samarra izaten dugu eta, Pazifikoko irla batera emigratzea erabaki dugula, eta han elkarrekin eramango dugun bizieraren Konstituzio bat idazten dugu: gehiengoak nahi duena egingo da, etab. Bost mila biztanle gara herrian. Aitona zahar ipurterre batek, ordea, Konstituzio testua eztabaidatzen hasi garenean, berari bost axola zaiola, osteratzen digu: berak ez duela Pazifikora ezertara joan nahi, uzteko bakean, ondo dagoela dagoen tokian. Baina orain, gehiengo gu gara eta, demokrazian zuzenbide zuzenak dioen eran, lepotik heldu eta behartu egiten dugu gurekin irlara etortzera, eta txintxo-txintxo ibiltzeko gero, zemaitzen dugu aguretxoa, bestela gu 4.999 gara. Eta egurra: “gehiengoak nahi duena egin (nahi!) behar da!”. Handik aurrera hauteskundeetan parte hartu beharko du, gehiengo eta gutxiengoetara jostatu, eta beti aurpegi alaia jarri, “demokrat onen gisala”... Berak, ordea, ezetz: irlan daukagu, etorri egin behar izan zuelako, baina hauteskunderik edo dagoen bakoitzean, bere numeritoak muntatzen dizkigu beti. Ezin izan dugu kaskagogorra demokratizatu.

Horiek dira Konstituzio bat (gero handik jariatzen ei baitira hiritar guzti-guztien eskubide eta obligazio politiko guzti-guztiak!) “gehiengoarekin” oinarritzearen problemak. Horregatik setatzen zen Rousseau, demokrazia tirania kamuflatu bat izatea nahi ez bada, demokraziaren formak baino lehen, demokrazia *nahi* dutenen, ez gehiengoak, baina ahobateko adostasun totalak, egon behar duela. Sistema bat zinez demokratikoa izateko, aurren-aurrenik berak bere jatorrian behar du demokratikoa izan. Hau da, elkarte horretan beren gogoz sartuak bakarrik egon litezke: “la ley de la pluralidad de los sufragios es en sí

misma una institución de convención, y *supone la unanimidad por lo menos una vez*”. Edo beste leku batean: “Sólo hay una ley que por su naturaleza exige un consentimiento unánime. Es el pacto social: porque la asociación civil es el acto más voluntario del mundo (...). Por lo tanto, si durante el pacto social se encuentran oponentes, su oposición impide que estén comprendidos en él; son extranjeros entre los ciudadanos”. (Pentsatzen dut honelako zerbaitegatik izango dela, Konstituzioari *post festum* oniritzeko Euskadiko Ezkerraren interesa orain).

Gatozen, halere, Spenglergana:

Estas formas (Konstituzio demokratikoak) no han crecido espontáneamente, como el feudalismo, sino que han sido obra de reflexión, y no sobre la base de un profundo conocimiento de hombres y cosas, sino sobre representaciones abstractas del derecho y la justicia; por eso se abre un abismo entre el espíritu de las leyes y las costumbres prácticas, que se forman en silencio bajo la presión de la leyes, para adaptarlas al ritmo de la vida real o mantenerlas alejadas de ésta. Sólo la experiencia ha mostrado, al cabo de la evolución, que los derechos del pueblo y la influencia del pueblo son cosas distintas. Cuanto más general es el sufragio, tanto *menor* es el poder de los electores (...). Bien pronto se presenta la otra magnitud de toda democracia, haciendo patente el hecho de que para hacer uso de los derechos constitucionales hay que tener dinero.

4. *Gehiengoak produzitu egin behar izaten direla*

Kopurua edo gehiengoa ez dela berdin arrazoia, ohar-tarazi dugu gorago. Zer dira gehiengo horiek, orduan? Nola sortzen dira? Gehiengoak ez baitira izaten amaren baratzeko arrosak, urtero milagroz bezala pizten diren horiek, bat-batean arrosak sutan, berez, beti berez, amaren milagroz beti. Izan ere, sistema demokratikoaren autole-

gitimazioko truku subtila da, gehiengoa *berezko natura* bezala aurkeztea, gizarteak bere baitatik espontaneoki generatzen duena, hor aurrean eman egiten zaiguna, zeruko izarren antzera edo, eta politikak errespetatu egin beharra daukana, berezko lorea eta fruitua, ukiezina, sakratua: herriak bere bihotzean nahi duenaren hipostasi bat, naturala bezain garbia. Gehiengoa hor dago, naturak berak (berez) eman du, errespetatu egin behar da. Nahi hori errespetatzea da herria errespetatzea.

Ordea, egia sinplea besterik da: herriak zer nahi duen, fabrikatu egiten da, txistorrak eta zerbezak fabrikatu eta saldu egiten diren bezalaxe. Eta zientzia, teknika, makineria guztiz arrafinak daude, herriak zer nahi izan behar duen, fabrikatzeko. Kontua, orduan, iritzi produkzioa eta merkatua efikazki kontrolatzea da demokrazian.

5. Nork jartzen duen kapitala eta nortzuk zerbitzatzen dituzten makinak eta merkatua gehiengoan produkzioan

Zilegi bekigu, hipotesi batean suposatzea, PNVk baino EAk proiektu politiko hobea lukeela (abertzaleagoa, modernoagoa, nahi denago guztia). Lehen PNV zegoen, bere erakunde, diru iturri eta baliapide eginekin. Gero hautsi egin da eta hari buruz buru EA sortu da: orain honek bere erakundea antolatu, diru iturriak bilatu beharko ditu. Proiektua hobea dela, suposatu dugu hipotesian, eta hasiera batean behintzat jendearen sinpatiak ere, lehengo PNVren hauteslerian eta inguruan, handiagoak direla harenganako, suposatu nahi dugu. Baina zer gertatuko da, dirurik, propaganda mediorik, “entxuferik” lortzen ez badu? Edo, hori guztia lortu ahal izateko, Bankak bere proiektua murriztera obligatzen badu: “bakearen alde” itunak sinatzera, etab., “joko demokratikoan” ez desentonatzera?

Alegia, behin arauak onartuz gero, jokia den bezala dago jokatu beharra. Baina orduan jokia dialektikoa bihurtzen zaizu: proiektu teorikoki hobereana, praktikan okerreana itzul daiteke, ez dagoelako finantzaterik. Beraz, gauzaterik. Orduan proiektu hori “ez dela politikoa” esaten da. Demokrazian, hobereatasun eta ideal guztiek, berorien “interes ekonomikoetan” dauzkate mugak: edo argiago, Alderdiak eta kanpainak finantzatzeko bitartekoak dauzkan jendearen interesetan. (Demokraziaren markoa, finantzapen-ahalbideen markoa da zehatz-mehatz). Orduan, bada, jende horrek “interesgarria” aurkituko duen politika bat beharko da proiektatu. Jende horrek “arrazoizkoak” ikusten dituen helburuak beharko dira eduki, “zentzuzkoa eta errealista” (“etikoa”, alegia!) iruditzen zaion moldean beharko da mintzatu deklarazioetan, errebindikazioetan. Eta orduan ulergarria da politikoen diskurtsua uhertu eta mordoilotu egitea, metafisikoa bihurtzea: langileek eta sindikatuak baino enpresarien elkarteak hobeto ulertzen du diskurtsu “sozialista”; eta, “independentzia, badakizu, kontzeptuok ez dira absolutizatu behar, ez gaude XIX. mendean, 2000.era goaz...”, hitz egiten dizu “nazionalistak”. Abertzale gisa deklaritzen eta (batzokian beharbada) errebindikatzen dena, demokrata gisa moderatu eta diluitu egin behar izaten da (hots, “errealista” gisa; edo hotsago eta hobeto: botere faktikoen eta finantza iturrien ardi-txakur koxkor gisa, herri-iritzi santuaren prentsako eta telebistako fabrikanteen txotxongilo gisa). Horregatixe hain zuzen, azken finean Alderdiak, demokrazian, azpiko indarron (diru iturrion eta iritzi egileon) interesak eta haien arteko lehiak, tirabirak errespetatzera eta errepresentatzera mugatzen direlakoxe nahitaez, sistema demokratikoaren bikoiztasuna beren antola-

eran islatzen dute: “Las verdades y los hechos, en la forma de (a) ideal de partido y (b) caja del partido, están ya definitivamente separados”.

Eta orain horixe genuke galdetu beharrekoa: PNV, EE eta beste Alderdi abertzale demokratikoen kanpainak eta aparatuak finantzatzen dituzten diru-iturri eta “entxufe” bedeinkatu horiek, euskararen bizitzan esate baterako, edo langabeziaren gaindipenean eta lan partketan, edo “Lemoiz apurtu” eta borroka ekologiko guztian, etab. etab., zer interes dutela, uste duzue? Eta zer interes izan lezaketela azken finean Euskadiren independentzian? Beraz, zer balio lezake helburu horietarako demokraziak?

6. Borroka “oroz lehen abertzalea”

Hortik sortu da tesi gazteagoa, noski, Euskadik independentea, ala sozialista, beharko duela izan, ala ez dela izango. Bakarrik, Mirandek, Iraultza Frantsesari eta demokraziari eta kristautasunari uko egiten bazien, arrazoi berberengatik eta are gehiagogatik egiten ziola muzin sozialismoari. Ezaguna da *Anaitasuna*-ri bota ziona. Ez abertzale demokristauekin, ez gazteago sozialistekin, Mirande bakar-bakarrik geratu zen bere abertzaletasunean.

Hortik aurrera beste historia bat hasten da: Mirandere buru-hilketara daramana.

NIETZCHE, JÜNGER:
ANEKDOTA BATEN ESANAHI
PARADIGMATIKOAK

(a) Ernst Jünger doktore egin digute, honoris causa. Eta zer? Ezer ez: jendetxo batek egin zuen protestatxoren bat. Jendaila printzipal handiak, handikiro ospatu zuen Leioan. Eta zer?

Ezer ez. Euskal Herriaren eguneroko historia da hori.

(b) Paradigma argigarria gertatu zitzaigun, halere, Jünger-en istorioa, meditazio melankoliko baterako, hamarkadaren azkenetan... Non gauden erakusten du berriro: hasteko, euskal gizartea bi partetan partitua dago.

Alegia, arras etsaiturik dauzkagu elkarrekin A eta B, baina halako miragarritzko maneran, non A-ri azken finean, bost axola baitzaio B. Bi Unibertsitate. Euskal Herri.

Areago are: ni A naiz hipotesian: B-ri nahiago dut dena gaizki ateratzen bazaio, proiektatzen duen denak esku artean porrot egiten badio. A versus B. Obligazio dago bilakatuta, besteari frakasoak bakarrik opa behar izatea.

(c) Interesatu, oso gutxi edo ezer ez zaio inori interesatzen pertsonalki Jünger-en afera seguruenik. Beti istilutan ibiltzeko ere nahastuta, inork ez du jada gogorik aspaldi. Zertarako, bestalde? Ez du ezertarako balio izaten.

Soluziorik ba ote du herri honek?

Hasieratik hasteko berriro: zer izan da Jünger-en inguruko zalaparta hori?

I

MEDITAZIO BAT UDAZKENEAN

(a) Garai batean Euskadiko “bi komunitateez” mintzatu nahi izaten zuen norbaitek, eta abertzaleok haren aurka asaldatu ohi ginen. Orduan marxista gogorra zen eta orain PSOEn dago.

Begira: orain zinez badago bi komunitate. Eta bi komunitateen mekanismoak, beranduenik ere Ajuria-enean “anti-ETA blokea” osatu zenetik, funtzionatu egiten du, makina baten burdinazko perfekzioarekin, instituzioetan ezezik, baita gizarte zibilean, kulturari, prentsan, erlazioetan ere: honezkero bikoiztasuna ez da euskaldunak/espainolak, edo abertzaleak/sukurtsalistak, ezpada (nola deitu, konprometatu gabe?) “gehiengoa” mutur batean, bere burua besteari kontra “demokratiko” bezala definitzen duena (PSOEn hegemoniaren azpian), eta HB eta enparau-frakzio gutxiengotarrak bestean, nahikoa mosaiko nabarra (baina guztientzat nolabait baliozko ETAREN hege-

moniarekin, suposatzen dut, nahi badute eta ez, azken finen).

Divide et impera. Meditaziorako lehen puntua: euskal gizartea bi frontetan polarizatua dago.

Francoren ondorengo historia errebasatzen bada, niretzat PSOeren, konkretuago Jauregiren, sekulako exitoa kontsideratu behar da hori (eta azken urteotako daturik inportanteena politikan): Euskadiko gizartean halako eboluzioa eragitea, kontraesan politiko nagusia bizitza publikoan abertzaletasunarena izatetik, orain demokratismoarena izatera. (Abertzaletasuna bera lau alderditan laurkিত dagoela, gainera, eta lau sektak heriosuharki elkarri kontrajarrira). Horrela nazio-arazoa praktikan bigarrentiarra da “abertzaleentzat” berentzat: indar politikoak polarizatzen, edo elkartzen/kontrajartzen dituen, “demokrazia” da.

“Marxista” batzuen kontra lehenago “abertzaleok” suitsu ahalegindu ginen, nazio-arazoa ez zegoela klase-borrokaren planteamenduari subordinatzerik. Erakundetxo kultural eta politikoetan, ikastoletan, ETAn bertan, borroka gogorra izan zen.

Begira, bada: subordinatuta dago.

(b) Ez askatasunagatik. Bakeagatik. Bakea absolutu bat bihurtu da. Askatasuna aise erlatibiza liteke: zertarako askatasuna, geure baratzeko porruak jan beharko baditugu gero miseria gorrian?... Abertzaleak ei dira, horrela mintzo direnak, eta ez da ezer pasatzen. Lehenago Lemoiz gabe zen, politiko “abertzale” batzuen ustez, goseak eta hotzak hil beharrean izango ginenak. Bake gabe, gure ekonomia arruinazen ari omen gara, oraintxe eta beti ere: “europarrek” ez dute hemen inbertitu nahi, bertoko hainbat enpresarik alde egiten omen du, etab. (Galizian ETA-

rik ez dago: zer moduz “europarren” inbertsioak?). Bada-
go logika bat arrazoi horietan, bai.

(“Abertzalea” deritzon mugimendu baten balio-siste-
man, egon ote daiteke bakea askatasuna baino lehenago?
Zein modutako logikarekin?).

Bakea Euskal Herrian, dena dela, suposatzen dut de-
nei interesatuko zaiela.

Bakea nahi izatea, gizarterik nahi izatea adina baita
(biolentzia eta gerra, “egoera naturala” bezainbat dira, *gi-
zarte*-aurrekoa). Beraz, denei interesatzen zaiela, suposatu
beharko da.

Interesatu, bai: baina A eta B artean gero ez dago ba-
kerik, eta bi-biek batak besteari egozten diote bakerik
nahi ez izatea. Kanean da horrela, eta Unibertsitatean.

Apur bat xingletonuz, baina, A eta B horiek sortzeko
arrazoia, esan genezake, biolentzia izan dela. Kasu, ez A
eta ez B baliatzen dira berak biolentziaz. Biotako ezeinek
dio, bestalde, biolentziaren erabilpen orori uko egiten ere
printzipioz eta absolutuki (Armada espainolari, “defen-
tsa” partidari aurrekontuetan, soldaduzkari, NATOri, poli-
ziak eta ertzainak armatzeari, etab.): funtsean askatasun-
-borroka abertzaleko ETaren biolentziaren balorazioak
erdibitzen eta kontrajartzen ditu, ez erabilera propioak eta
ez printzipio orokorrak (“moralak”), zentzu estriktoan.
Hori horrelaxe da, nahiz eta gero polemikan “demokra-
ten” truku eternala izan, printzipio ebanjeliko orokorreta-
ra ihes egitea. Baina hori Elizarena eta erlijioarena da.
Biolentzia oro ukatuz, Estatua ez da posible kontzebitzea:
teoriko politiko guztiak ados dira horretan.

Berriro: zer gertatzen da? Arrazoiketa bihurri korapi-
latuen anabasa bat.

B baitan inork ez du auzitan jarri aukera bakezko edo “demokratikoen” legitimotasuna. (Demokrazia “inmoralizat” jotzen dutenak, nietzscheanoak izaten dira, baina, nik dakidala, nietzscheanoak hemen A taldean aurkitu ohi dira, ez B-n). Pertsonalki nik neuk, neurea aitortzeko, garbi daukat nire eginkizuna ez dela eta ezin izan litekeela, nireztat, borroka armatua. Kontua, hori beste inorentzat ere borroka armatua ez dela egokia, bihurtzen denean, hasten da: nire opzio pertsonala, opzio posible eta moral bakartzat aitortzen dudanean eta beste opzio moral posiblerik toleratzen ez dudanean, posibilitate bezala ere.

Eta egon, hortxe gaude. Arrazoiak, orduan, karreratxo hauxe egin digu: borroka armatua, (1) nireztat ez da egokia, (2) inorentzat ez da egokia, (3) ezin izan liteke egokia.

Ni “demokraten” horrelako sofisteriez burlatu izan naiz. Baina ikusliar espekulatibo gisa ez dut ahazten, gauzak horrela planteatuta, lanik zailena (teorikoa), demokrateri erortzen zaiela, auzia biolentziaren ilegimitatea probatzea baldin bada, *onus probandi* guztia beraien gain geratzen delako oso-osorik. Eta, imajinatzen hasita, zein medio razional eta razional hutsekin probatu ahal izango lukete, probatu ahal izan ere, opzio armatu baten “ezinezkotasuna” askatasun borroka (mugimendu) batean? Eta morala, politikoa, edo nolakoa izan beharko luke, probatu beharrezko “ezintasunak”?... Beraiek nahi izan dute horrelaxe, nolnahi ere, hemengo “demokratek”.

(c) Badago beste “biolentzia” bat: barrikadak eta harrikadak erabiltzen dituen eta “PNV traidor” garrasika botatzen duena, edo mesprezua eta kalumnia eta manipulazioa eta gezurra eta prepotentzia, etab. erabiltzen dituen. Hau interesatzen zaigu.

Interesatu, apenas horixe oihukatzeari edo egiteari ondo irizterik legokeelako (“Ondo iruditzen al zaizu lehen-goan kristal denak apurtuz egin duten hori?”, galdetzen dizu bero-bero kontrarioak. “Zergatik pentsatu behar du, ondo iruditzen zaidanik, burutik sano badago?”, pentsatzen duzu zuk). Baizik eta, horretaraz gero, konfliktoa ulertu nahi denean, ez da hitz joko bat gehiago egiteagatik, polarizazioak sortzen duen dena, luzarora, intelektualki fronte bien paralizazioa bakarrik delako. Borroka polarizatu bat aspergarriri antzu eta monotono bihurtzen da.

Gehiago. Arrazoiek eta arrazoiketek, beren naturaz, ia sekula ez baitute bai/ez, *aut/aut* forma alternatibo dualista sinplea edukitzen, dikotomia polarizatu batek praktikan azkartzen duena, ezin izan daiteke razionalitatea, eta bai dezisionismoa, inposaketa. Arrazoiek baino, Alderdiek inporta izatea orduan gehiago, zuzenki ondoriozkoa bakarrik da: San Markoren ebanjelioan 2.27 dagoen bezala, alegia, Alderdiak ez dira izaten arrazoientzat, eta bai *sabbathoak* Alderdientzako. Alderdi-interesen arabera trafikatatu eta komertziatu egiten da “arrazoiekin” eta “flexibilitatez” jokutzen da. Euskara garbian: deus ez dute arrazoiek axola, Alderdiek entenitzen duten arrazoa interesa da. Honi pragmatikoak izatea deritzo, ez doktrinarioak.

Meditazio udazkentiari hau berriro hasieratik hasteko, bada:

(a) Interesatzen dena, gure “dialektika” ustela da: no-la gauden sartuta egoera batean, A-k ezin izaten baitu bere propio guztia beatifikatu besterik, eta B-k ezin baitu alfer-alferrik protestatu besterik ahal izaten.

Paralizatuta: bakoitza bere rola jokatzera mekanikoki beharturik bi blokeak. Hori suizida baita, gure egoeran dagoen kultura, herri, gizarte batentzat. Produzitzen duen

dena desanimoa da. Azkenean degenerazioa, morala zein politikoa.

Zer soluzio du herri honek?

(b) Interesatzen dena, da, nola, ez dakit errealismoaren, demokraziaren, bakearen, instituzioen begirune sakratuaren ala zeren izenean beti (zeinek dauka barrurik, Pinillos-en aurka Txillardegik egin zuen bezala, bere protesta jendaurrean azaltzeko? Baina adorearena da problema, ez arrazoiarena), hemen errotarriak jaunartzera nola gauden obligatuta: eta nola egin egiten dugun hori, harri-garriro, errotarriak egunero jaunartu galantak, demokrazia labur batean edozertsu gauza irensteko kapazitaterik zabalena erdietsi dugu eta. Enpatxurik batere gabe.

Alfer-alferrik izango da, baina gure protesta medita-tzen jarraituko dugu: jakin arren alfer-alferrik dela protestatzea, eta alferrago euskaraz: jadanik hemen dagoena, ideal guztien merkealdia dela. Printzipio guztien dimisioa, nasaikeria, niri dena bost axola filosofia, desmoralizazioa eta burumakurketa (eta inmoralizazioa), kontzientziaren salmenta dilista espainol plater bategatik, desertzioa (edo errendizioa soil-soil), bakoitzaren akomodamendua, erantzukizun pertsonalen abandonua eta gehiengoaren artaldean babes-hartzea. Amets guztien ilunabarra.

Hori dena irakurri nahi dugu E. Jünger-en ohorezko doktore-izendapenean eta haren inguruko gorabeheretan. Konformismo zuri-zuria, mantu akademikoz jantzita.

(c) Eta interesatzen dena, istorio horren bitxitasun paradoxala da orobat, ia komikoa, absurdua ez esateko. (Gure kalapita askotako “razionaltasun” mailaren paradigma aproposa benetan). Kasuan ez zen kontua, izan ere, musde jaun perla hori ala zokor-mazo pepelerdo hura doktore izendatze arazo hutsa. Jokoan egon, bi blokeen

artean “kontzientziako diferentzia” sortzen omen duena, baitzegoen: biolentziaren filosofiarena. Eta hortxe egon da hain zuzen paradoxa: bloke biei kasu honetan jokatzea tokatu zaien rolean. “Demokratek” dute harro-harro Jünger ohorez ohoratu, armen eta konbateen kantaria, “biolentoek” baketsuki atarian protesta egiten zuten bitartean otzan-otzan.

Zein da, izan ere, Unibertsitateak doktore ohorezko, Pinillos-en eskandalutik egun gutxitara, izendatu zigun hori?

II

MOMENTU ESKIZOFRENICO BATEAN

Nik uste dut, basoko tximuak adarretan bezala, kontraesanetan bizi garela, eskegita. Nahaspilatuta ibili gure arrazoietan, denok gabiltza. Baina orain portaera publiko batzuk bakarrik interesatzen zaizkigu. Bizitza publiko guztia baitabil, ibili ere, kontraesanetan, Absurdistango Eskualde Autonomo honetan.

Gerraz gero gutxienez, nik ez dakit desintegrazio ala berrintegrazio-prozesu batean, baina eboluzio larri batean ari da irristatzen euskal gizartea, eta gure mentalitatea kanbiatzen ari da. Oraintxe, momentu eskizofreniko batean gaudela, esango nuke. Askotan eskizofrenia, ala soil-soil hipokrisia, zer den ongi beriztea, zaila egon arren. Baina hemen, diagnosia egitera sartu gabe, gogoeta batzuetarako hartuko dugu soil parada.

Maisu nietzscheano bat: “eskuina” maisu

Ez da kasualitatea izan. Batzuek bazekiten oso ondo E. Jünger zein den eta zer signifikaetzen duen. Ez da “komunitate unibertsitarioari” batere ohore egitea, baina, okerragorik ez suposatzeke, suposa dezagun ordea, gehienek ez zekitela, zein zen doktore honoris causa-tarako proposatua. Gutxienez ohorapen-jaiia ofizialki onartu eta protestak sortu ziren momentutik aurrera, halere, suposatu nahi nuke, akademiko jaunek esku-liburu edo entziklopediaren batean kontsultaxoren bat egingo zutela (ez dut suposatu nahi, arras irrespontsableak ditugunik). Orduan holamoduzkoak aurkitu izango dituzte:

Gran Enciclopedia Larousse berriena (1989, vol. 13) begiratzen bada, E. Jünger-i buruz haxe ikasten da, bes-teren artean: “Vio en la guerra una ley de la naturaleza, y su nietzschianismo tuvo quizá alguna responsabilidad en la formación del espíritu nacional-socialista”. Nietzschea hori da eredu jarri digutena.

Eta nazional-sozialismotik agian hurbiltxo ote dabilen bat, eredu ezpa gabekorik bederen ez: izendapen honekin bilatu izan dena, beraz, apenas izan den, hain zuzen komunitate unibertsitarioaren konkordia, alderdi guztiek onartu ahal zezaketen intelektual modeliko baten gorazareta, eredu gisa. Ikus *Encyclopaedia Universalis* frantsesa (1980, *Organum*, “Supplément”): “Peu d’écrivains allemands contemporains ont fait l’objet de controverses aussi vives qu’Ernst Jünger. Sa personnalité comme son oeuvre (...) ont suscité autant d’enthousiasmes sans réserve que d’attaques passionées”. Zergatik probokatzen ditu holako matrakak? Aldi bat gutxien-gutxienez bere bizi-

tzan eta obran guztiz seinatua duelako jaun doktore honoris causa hautatu horrek, *Encyclopaedia Universalis*-en arabera ere, eskuin mutur-muturreko propagandista bezala: “importante activité journalistique dans des publications militaristes d’extrême droite, dont il est parfois le principal rédacteur”. (1945az gero ez da egon, Alemanian, idazle “faxistarik” noski).

Eta filosofia modernoaren historia bat hartzen badugu, Siglo XXI Editores-en *Historia de la Filosofía* adibidez (vol. X), ikasleek erabilienatakoa, hauxe daukagu: “Lo que Heidegger designa con el nombre de *Gestell* es lo que Ernst Jünger entendía por ‘movilización total’ (*totale Mobilmachung*), este proceso por el cual el ente es sometido en su totalidad a la voluntad del hombre por medio de la técnica. Una concepción tal del *totalitarismo*, que Heidegger compartió con varios de sus contemporáneos, no fue, sin duda, ajena a su adhesión al nacional-socialismo en 1933”. Nahikoa, oraingoz. Beti nazismoarekiko erreferentzia.

Norbaitek zehazkiago informatu nahiko balu, Hirugarren Reich-eko literaturaren antologia interesgarri bat alemanez kontsulta lezake: E. LOEWY, *Litteratur unterm Hakenkreuz. Das Dritte Reich und seine Dichtung. Eine Dokumentation*, 1969. E. Jünger-en hainbat eta hainbat testu paregabe biltzen da antologia dokumental honetan. Or. 300 ss, pertsonaiari buruzko informazioa eta haren balorazioa nazismoarekiko erreferentzian. Interesatuak hor bertan informazio gehiagorako nahikoa bibliografia aurkituko du.

Aski, beraz.

Indibiduoak nagusi: zer indibiduo?

Iskanbilak ekiditeko baino izan ez balitz ere, Jünger-ek ez zuen ohorezko doktore izendatua atera behar Unibertsitate honetan.

Halaxe izan da, ordea: nola esplikatzen da, hori gertatu izatea? Esplikazioa ezin egon liteke despiste batean, edo irakasle unibertsitario guztien ignorantzian.

Egon dira arrazoiak, eta horiek, nire ustez gutxien-gutxiena izan zitezkeenak, izan dira hain zuzen: Jünger-en ideiak. Heidegger-en ospaketa urtean, Heidegger-en polemikaren urtean hobeto (Farias: *Heidegger et le nazisme*), filosofia eztabaidagarri ezin gehiago bat, ereduakotzat hartu da Euskal Herriko Unibertsitatean: filosofia arriskugarri bat omendu da. Nietzsche baitan inspiratutako den filosofia bat, Miranderena gure artean bezala.

Nietzscheanoak, beraz, berriro maisu etxean (kanpotik etorritik gero behintzat). Nietzscheanoak, uste dugun baino gehiago dauzkagu. Etxean dauzkagu. Zer da hori? Prometeismo sozial, kolektibo, igualitarista eta demokratikoaren aurka (tradizio ezkertiarra da hori), alternatiba indibidualista eta libertarioa, aristokratikoa, elitista, burgoi harroa. Arau sozialak (berdinkatzaileak) apurtu, moral soziala birrindu, trufa egin besteak bezalakoak izan beharri. Gure bizitzaren hasieran sakrilegioa jarri: “Mediante un sacrilegio conquista la humanidad las cosas óptimas y supremas”, irakasten da in *El nacimiento de la tragedia*. Gizon zinezkoarena, horixe da bidea. Gizona izaten hasteko, hautsi beharra daukazu estekadura moralak: horiek arima esklaboaren kateak dira, hots, bere lotsaizun izpiritualak ezkutatzeko gogo zirtzilak asmatzen dituen estalkiak, “harapos remendados de un mendigo” (E. J.). Gi-

zon-gizona izateko, bost axola behar zaizkigu besteak. Bihotz bortitzak berea egiten du.

Eta gu bortitzak gara, europarrak, “ariarrak”. Nobleak gara eta zindo behar dugu iraun. Onartu beharra daukagu, beraz, eta maitatu beharra “el núcleo más íntimo de la leyenda de Prometeo — a saber, la necesidad del sacrilegio, impuesta al individuo de aspiraciones titánicas”.

Naturalismo gordin bat. Orainagoan dirudienez, gozo nahiz gazi pranta daitekeena gero, Nietzsche *heavy* nahiz *light*, gustuen arabera. Baina “inmoralismoa” beti ere. Definitiboki: “El gran Pan ha muerto!”. Mundua bere azpian kontrolatzen eta gobernatzen zuen jainkozko begi handia. Askatasuna hasten da.

Alegia, asma beza bakoitzak bere zoriona: ezein Jainkok lagunduko dio. Printzipioek, “moralak” (hamar aginduek), erlijioek, deus ez diote lagunduko: dena koherentzia batean lotzen zuen Pan handia hil da; oro dago solte, jare, deslai, apur, deskonposatu: bakoitzak beharko du egin, edo berregin, bere mundua, bere ordenu morala. Jainkoei eta zeruari uko eginez, hain zuzen, eta lurra oso ki baietsiz.

Nietzsche-ren liburu hori, *El nacimiento de la tragedia*, F. Savater-entzat adibidez, “una de las obras más luminosas y fieramente bellas de la cultura occidental” da; haren autorearena “pensamiento poderoso, el más limpio y profundo de su siglo”.

3

Indiferentzia errege

Dena dela, Nietzsche utzi eta, aitor dezagun: bere ideiangatik adina, geurengatik, eta batez ere gurengatik,

gertatu da E. Jünger EHko Unibertsitatean doktore izendatua honoris causa.

Nietzschekek irakurketa modu asko du eta orain alde batera utziko dugu Jünger-ena. Izan ere, beste “nietzscheano” batzuen pentsamenduak (Miranderenak, adibidez) omen ofizial gutxi aurkitzen du hemen. Egia da zuberotarra eta “abertzale erradikal” bat zela, baina bestela ez du ematen Jünger-en oso diferentea. Nola esplikatzen da, galdetzen genuen, E. Jünger-en izendapena, bera hain diskutigarria izan arren? Eta erantzuna bikoitza bada, *bere* ideiegatik eta *geure* ideiegatik izan dela, ikus ditzagun orain geureak.

Baina hori bera zentzu-bikoitza da: hein batean, orain dabilzan ideiegatik, atera baita Jünger gorazartu; beste hein batean, aldiz, inoren ideiak orain bost axola zaizkiolako inori. Hein biok sustrai beretik muskiltzen dira.

Jarrera bien sustrai nietzscheanoetara bihurtuz: “Jainkoa hil da” esatea, ez da ezer esatea. Kontua da zein gizonek hil duen. Hura hobiratu eta gero nagusi zein hankabiko-molde geratu den lurraren gainean. Eta geratu dena ez da “gizagaindikoa”, Zaratustra-ren dizipilua, eta bai giza-seme “postmodernoa”, “bizitzaren aurreko jarrera narzista eta hedonista”, edo “dena indiferentziak berdintzen duen mundua”. Lipovetsky-ren hitzetan in *La era del vacío*:

Todo esto no debe considerarse como una más de las eternas lamentaciones sobre la decadencia occidental, muerte de las ideologías y *muerte de Dios*. El nihilismo europeo tal como lo analizó Nietzsche, en tanto que depreciación mórbida de todos los valores superiores y desierto de sentido, ya no corresponde a esa desmovilización de las masas que no se acompaña ni de desesperación ni de sentimiento de absurdidad. Todo él *indiferencia*, el desierto postmoderno está tan alejado del nihilismo

‘pasivo’ y de su triste delectación en la inanidad universal, como del nihilismo ‘activo’ y de su autodestrucción. Dios ha muerto, las grandes finalidades se apagan, pero *a nadie le importa un bledo*, ésta es la alegre novedad.

Lipovetsky-ren analisisan, axolagabezia postmodernoa ez da pasibitatea, utzikeria, zabartasuna, erretirada bat mundutik intimitatera edo uzkurrera, nagira. Interesen estrategia berria da: “la indiferencia designa una nueva conciencia”. Indiferentzia interesatua.

4

Kultura indiferenteak ordenu pretorianoa maite du

Zinez Jainkoa hil egin bada, zentzu nietzscheanoan, bidatz bi har daiteke:

a) ala balio-sistema alternatibo bat entseiatu — E. Jünger-ek hori egin du: balio-sistema judu-kristauari “bizitzaren filosofia” oposatu, bizitzaren zentzu heroiko-titaniko batean. Orduan kemena eta sua goraiatzen dira eta “funtsezkoa ez da borroka zerengatik egin, baina borroka nola egin” (E. J.: “nicht wofür wir kämpfen, sit das Wesentliche, sondern wie wir kämpfen”). Ez helburu onak, baina borroka onak, xedatzen du bizieraren balioa. Nihilismo bitalista.

b) ala balio-sistemak pikutara bidaltzen dira denak eta “indiferentziaren” ganean atontzen da bizimodua, “postmodernia” famatu hau alegia.

Bion bateratzeak eman du: E. Jünger EHko Unibertsitatean doktorea h.c.

Gure konplexu zaharrak berriro

Ezer irakurtzen al da herri honetan? Edo ezer ulertzen al da, irakurriz gero? Edota nahi dena eta nahi den bezala irakurtzen da dena, ulertzen da, esaten da, “koherentzia ez zait balio interesgarria iruditzen” antzeko zerbait, Jon Juaristik Txillardegiri buruz jaulki zigunetik, izan ere dena berdin al da?

Badago kakao bat oraintxe gure ideietan eta balioetan! Egia da, izugarritzko habailan ari garela “demokrazia mendebaldarrera” adaptatzen, gu ere beste guztiak bezalakoxeak izateko munduan, eta oso ondo ari garela gainera adaptatzen, abelera honetan laster helduak izango baikara segovianoak edo badajoztarrak bagina bezalaxe pentsatzera eta ebaztera. Orduan gauditua izango dugu azkenik praderako betiko indioak izatea, eta ez dugu lotsatu beharko “aldeanoak” probintzietako aldean izateagatik (“aldinuak”, esaten dute marinelek Bermeon).

Alegia, martxa eta abiada honetan laster, gure karlistakume bekatarion lehengo bekatuen zorrak borratzeko, demokrategitxoak ere bilakatu izango gara, eta tolerantzaren tolerantziako gure lehia demokratikoan, edozer gauza ondo iruditu beharko zaigu, uste-muste guztiak izango gara etor-etorkorrak, ideia guztienganako egongo gara leiho-zabalik, birrinduak izango ditugu gaurko estu-keriak, azkenean superatua izango dugu geure “nacionalismo cultural”a, mundu guztikoak bakarrik izango gara abertzaleak, zoko-mirrin triste honetakoak barik, izugarri poztuko gara popatik ematen diguten bakoitzean (konstituzionalki izan dadila), txit ohoratuak sentituko gara Euskal Herriko Unibertsitateak Millán Astray-ren ohorezko

irakasle memoria instituzionaliza diezagunean urteroko jaiegun gisa.

Egun horretan deportazioak, ertzaintzaren posta-tiroak neska-mutikoei, telefono-entzuketak, dena ondo egongo da: torturak, presoan sakabanaketak, senideenganako zipo eta zapokeriak, laidoak, umiliazioak, burlak, eta politiko demokrata abertzaleen horren guztiaren bedeinkazioak.

(Helvetius, *Maximes et Pensées*: “Les hommes sont si bêtes qu’une violence répétée finit par leur paraître un droit”). Biolentzia besteari egiten zaionean batez ere.

Baina orain, oraindik, egun hori berehala guztiz etor dakigun arte, ilusio pittin bat geure buruari baimendu nahi diogu, ilunabarrean irudikatuz, oraino lizentzi ditugula bizitzan intolerantziaren batzuk; buruan geure ideia pare bat, geuk pentsatuak, eta bihotzean preferentzia bi; zilegi dugula oraino geuk hautatzea geuretzako nahiago genituzkeen gure irakasleak denbora pixka baterako, *El País* eta BOEren dizipulu ferboretsu bilakatu baino lehen.

6

Kontramaisu marxista bat: Lukács

Zer, esaterako, Lukács hauta bageneza kontramaisu? Eta absolutuki ez pertsonalki geuk inoiz aparteko geure maisutzat benerratu izan dugulako, baizik eta justu, egungo “demokrata” eta “razional” horietakoxe askok, ordenu sakratuaren oraingo maitale bilakatu baino lehen, doktrinaren maitaleago zirenean apika, biziro maitatzen, aipatzen, goraiatzen zutelako Georg Lukács hori, *El asalto a la razón*-ekoa bereberki hain zuzen.

Galdera da: nola etor daiteke *intelligentsia* oso bat oso-osorik eta hain agudo, ezker-ezkertiarra izatetik eta halako irakurgaietan debozioz larratzetik, E. Jünger bat ohorezko maisu bezala aitortzera, edo Unibertsitateak halakotzat ofizialki ospatzea txintik protestatu gabe onartzera? Zer pentsa daiteke jende horren seriotasun eta onestasun intelektualaz? Izenak ez naiz jartzen hasiko.

Lukács oso garrantza baita Jünger-ekin justu bere obra horretantxe (1953): “De Jünger... a Rosenberg no hay más que un paso”. Askotxo, ezta?

Dena dela, ezagutzen dugu Jünger-en filosofia historiaz eta gerraz: gerra, naturaren legea da, “una situación tan vieja como el mundo, la lucha por la vida”. Eta historia, gerrako irabazleek idazten dute, esan ohi denez. Jünger-ek ere hala dio, baina Lukács (esaldi hori kasik topiko marxista bat izan arren) ez dago pronto, esaldi hori Jünger-en adieran onartzeko. Izan ere, hitz berberak eta gauza berbera esan liteke, eta arras kontrako bi zentzutan esan, “Hablando del nacimiento del mito, dice Jünger, ‘el vencedor crea el mito de la historia’, frase en la que la negación de toda objetividad histórica alcanza su punto culminante cínicamente descarado”. Jünger-en historiaren kontzeptuaz.

Moralaz: Jünger moral burgesaren kritikoa gaiztoa da nietzscheano guztien eran (marxistak ere badira, beste era batean). Baina haren kritika-moduaren esanahi guztia, Lukács-en begietan, ez da hauxe besterik: “esta crítica demagógica que la filosofía de la vida hace de la cultura burguesa es de la mayor importancia para la fundamentación del fascismo como concepción del mundo”. “Es Jünger el primero que interpreta desde el punto de vista de la vida la antítesis de burguesía y proletariado, con objeto de

obtener la amplia base social necesaria para la ansiada nueva guerra imperialista, que viniese a relevar a la vida del mundo burgués muerto”. Beti nazismoaren erreferentzia bera.

Pentsamendu menpegabe, guztiz kritikoa dela Jünger-ena? Baldinba. Lukács-ek ez zuen batere atsegin “el nihilismo romántico místicamente infatuado de Jünger” hori, hemen hain miresgarria iruditu dena nonbait. Baina ez da gustuena, problema.

Alda dezagun testu luze bat. *El asalto a la razón* Bigarren Mundu-Gerra bitartean idatzi zen. Gerra bukatu eta, bistan da, intelektual alemanen “ideiak” aldatu egin ziren. Lukács-ek berak esplikatu du Epilogoia gehitu behar izan ziola bere liburuari. Nola derrotaren ondoren intelektual alemanek ahalegina egiten zuten, beren “iragana berregin” nahita, ari da testu honetan Lukács tratatzen, nola intelektual “berrintsertatuok” beti “oposizioan” egonak omen ziren alegia (ezagutzen ditugu “betidaniko demokrata” batzuk), baina nola orain denak omen zeuden “argituagoak” halere, nola lehen baino hobeto ikusten zuten porrokatutako erregimenaren ikaragarrikeria. Momentuko gertaeren berotan, Lukács-ek ez aitzakiak eta ez konbertsioak onartu nahi ditu: intelektual horien errua salatatu nahi du berriro faxismoaren sorreran.

Ernst Jünger, cuyo *Arbeiter (El trabajador)*, como es sabido, contribuyó mucho más al nacimiento de la ideología nazi (...), participó, de una parte, mucho más intensamente en el régimen hitleriano, aunque casi siempre en puestos de representación puramente decorativos y, de otra parte, ha procurado subrayar mucho más ostensiblemente, después, su actitud de “oposición”. Pero también ésta adopta la línea de una protesta aristocrática contra la populachería de la demagogia hitleriana, y no contra su contenido social; y sólo se distingue de Schmitt

(nazismoaren apologista juridiko printzipala) en que él, Jünger, destaca abiertamente y en primer plano el papel de la nobleza de nacimiento de los junkers prusianos en la dictadura abierta (la “fortaleza” de su novela *Heliópolis*). A lo que hay que añadir, como trasfondo ideológico, la proclamación del mito y la magia como signos característicos de la diferencia del nuevo período con respecto al siglo XIX (...) Jünger se incorpora, por tanto, a la serie de los ideólogos que —como Jaspers, Heidegger y Schmitt—, desde el campo de la “oposición” contra Hitler, ofrecen al nuevo imperialismo, como arma, el mito irracionalista, presentándose como portadores de ella.

7

Indiferentzia guztiz interesatu bat

Sekula gutako inori bururatu ote zitzaion, Mirande irakasle non eta pentsamenduan kontsideratzea? Lehen beti jakin dugu, zein ezin izan zitekeen gure filosofia.

Horretarako oraingo “demokratei” eta adimendu “razionalei” itxaron behar izan zaie.

Zer gertatu da, hori gertatzeko? Aurrenik, “intelektualek” orain, gehiendarki bederen, “beren” periodikoan gehiago sinesten dutela, kolega kritikoetan baino. Periodikoa da intelektual liberalen (intelektual liberala ez da izaten fanatikoa) brebiarioa eta ilustrazioa. Goizero periodikoan etortzen da egunean eguneko egia ofiziala, nahikoa da irakurtzea. Horretarako periodiko zuzenean egon behar da, bakarrik, abonatua.

Bigarren, beste *nonsense* hauxe gertatu da: gu, akonfesionalak bai, baina akonfesional kristauak garela. Savater-ek behin hau idatzi du: “(...) Los valores éticos del

Cristianismo, más o menos modernizados y racionalizados, siguen mayoritariamente en pie”. Eta hain zuzen: “Son los partidos más radicales de la izquierda los que los apoyan principalmente, lo que no deja de confirmar en gran medida el punto de vista de Nietzsche sobre el socialismo”.

Izan ere gure post-kristautasunarekin zerbait komikoa gertatzen da. Kristautasuna denok daukagu aspaldion “superatuta”, bizitza pribatuan zein publikoan. Erlijiosoki indiferenteak gara (Politikan ere denok akonfesionalak gara, kristau-demokratik berak barne). Aita Santu horrek, utz dezala behingoz guri tontokeriak predikatu nahi izatea. Ez Elizari eta ez Izpiritu Santuri ametitzen diogu, ezer egin behar dugun bakoitzean, agindurik eta obligaziorik ezarri nahi izatea guri. Bakoitzak bere barnea daukagu eta berak agintzen digu agindu beharrekoa. Pertsona helduak gara.

Gure moralitasun-kontzeptuaren erro-erroan balio pertsonal intimoak daude, beraz. “La ética es una cuestión privada referida al ámbito interpersonal”, Savater-ekin jarraitzeko. Ez dago moralki lotuko gaituen Pan-ik. Era berean, etika ez du oinarririk arrazoimen komunak (Heraklito), baina gu txorikume modernok Rousseau-renagoak gara oinordekoak Sokraterenak edo baino: norbere sentimendu, sen, sentsibilitate bakoiztarrak (norbere “karaktere” partikularrak oinarrizten du bakoitzaren etika). “Nire gorputza nirea da” (abortisten eslogana da) eta nire moralita nirea. Justizia politikoak edo Estatuak ez dute arrazoiak baino zerikusirik gehiago: “La ética ni puede, ni sabría *esperar* (Estatu zuzenago bati; iraultzari); su conflictiva grandeza proviene de la necesidad de actuar ya, a la *desesperada*. Sin Dios, ni Razón, ni Estado que justifi-

quen de modo absoluto e inapelable los valores, la búsqueda del sentido de la acción se convierte en una aventura personal”. Asunto bat da etika eta beste bat politika.

Deskristautuak gaituzu guztiz, beraz (ez dugu onartzen kristautasunaren exigentzia moralik, zamarik: geuretzat pertsonalki onartzen dugunean ere, ez dugu onartzen gizarte zibilari exigentzia moral kristauak ezarri nahi izan dizkionik eta, munduari ihes egin gabe, mundua dastatuz eta gozatuz are, “monakato” moral berri bat asmatu dugu, zentzurik etimologikoenean. Hori Nietzsche da. Baina hori bakarrik. Bestalde, gure etikan, borrokako lanik ere, gizartearen eraberrikuntzako penarik, ez da egongo. Geure buruarekin dugu nahikoa lan. Etikaren marko estriktoak (indibidualak, esan bezala) gainditzea litzateke: etikaren helburua neure zorienttoa da golkoan. Gizartea aldarazten ahalegintzea (iraultza eta beste diskurtsu horiek), ideologia gaindituen hondarrak dira gehienez, intolerantziaren eta edotariko krimenen iturburua ez direnean...

Bakarrik, norberetzat nahi ez den kristautasuna, ingurartzen gaituen aparatu sozialarentzat nahi izaten dela nonbait. Estatuak (inguru sozial eta politikoak) karitatea egin dezala, ona izan, delikatua (“biolentziak” ez dira estetikoak), lagundu, aisia librerako erraztasunak sortu. Erosotasunezko *welfare*-Estatua, esku-bigun atsegina, konfortagarria: Estatua (Jainkoa) maitasuna izan dadila, San Joanen ebanjelioan bezalaxe. Horrela guk nahi duguna, da, geu ez izan, baina mundua izan dadila “kristaua”. (Geu ez izan kristauak, baina alabatxoa mojen kolejiora bidali). Geu libre izan eta nahi duguna egin, baina gu bizi garen lekuaren markoa eta egitamu orokorra “ordenu kristau” batean egon dadila. Barbaro iraultzaileek ez diezagutela kordokarazi.

Zer egin?

Kontraesan batean bizi gara etikaren eta politikaren artean, bizitza pertsonal eta publikoaren artean. Pribatua autonomia, libertatea; publikoan segurantzia, ordenua, ongizatea, aparatu sozial eta estatualen “babes”-oskola pertsona bakoitzaren eta guztion inguruan, edonolako heteronomiak. Kontrarioak, baina, nolabait, osagarriak, oso erraz ulertzen da.

Gizartean zenbat eta marko (Estatu) irmo, itxiagoa, intimitatean hainbat hauskor, errogabe, hegakorragoa etika, limuria, gratuitoa, forma definitu gabekoagoa: “porque (gure etika alegia, argitzen digu Sarater-ek) parte de la tan asendereada *muerte de Dios*, es decir, del final de cualquier legitimación *trascendente* de los valores supremos, de la quiebra no sólo del derecho divino de la realeza, sino también de la realeza divina del derecho. Pero con las filosofías de la voluntad inauguradas con pujanza devastadora por los más grandes pensadores contemporáneos, Schopenhauer y Nietzsche, se liquida también la serena autosustanciación de la Razón misma, entronizada en el altar vacante de la divinidad jubilada”.

Bitartean Estatua zer ari den bihurtzen, zertarako errepikatu kontu zaharra. Garai bateko analisi kritiko mingotsak (Marcuse: “One-Dimensional Man”), utopia negatibo beltzak (Huxley, Orwell), garrasi protestak (“68ko maiatza”), ahazturik, ia gizarte zibilaren erresistentzia zipitzik ere gabe, goxo-goxo, gure buruon gainean amarauna ehuntzen ari da boterea bake-bakean horizonte guztietaraino. Alkobetako kuttundegietaraino.

Ez da etorkizun: mami-mamitua daukagu dagoeneko, Max Weber-ek iragarri baino igarriago zuen “artikulazio sozial *organikoa*, hots, egiptotar-ekialdetarra” (“sólo que, en contraste con ésta, *aparatu modernoa dela*, tan estrictamente racional como lo es una máquina”). Eta Max Weber-i jada planteatzen zitzaion arazoa, Estatu modernoari buruz, hauxe zen: “En presencia del hecho básico del progreso incontenible de la burocratización, la cuestión acerca de las formas políticas de la organización futura sólo puede plantearse en los siguientes términos: ¿Cómo es posible en presencia de la prepotencia de esa tendencia hacia la burocratización salvar todavía algún *resto* de libertad de movimiento “individual” en algún sentido?”. Eta nik uste dut, soluzioa ezin egon litekeela, intimitatera jaistean, baina borrokan jaikitzean. Bestea soluzio “erlijioso” da (estoikoa, budista, monastikoa: berdin da), ez da politikoa.

Funtsean hori da kontua: *Zer egin?*, Lenin-en desesperaziozko galdera, Hamlet ekinkorrarena. Guretzat: zein balio-sistemarekin, kontzientziarekin, egin buru Estatu horri? Prozesu horri? Egiaz deskristautu bagara, zein balio positiboki ez-kristaurekin kontatzen dugu, mundu berrikerik eraikitzeko? (Kristaigoari heredatuarekin konformatu nahi ez badugu behintzat). Azken batean, zer izate da positiboki, kristauak ez izate horretan, daukaguna? Mundu honetan, kultura honetan, bigarren milurte honetan, Europa, Euskadi, aldizkari honetan, kristauak ez omen gara: eta, grekoak ez, erromatarrak ere ez, zer da, garena? Munduan egoteko, zein da gure morala?

Azken funtseanago, problema a) Estatu da, b) gizartea da, hots, Nietzsche da: “gizon berria”. Edo gizonaren “gaindipena”. Kultura burgesarena alegia. Kristautasuna-

rena. Demokraziarena. Pazifismoarena. Esklaboen moralaren ezabaketa garbia eta “inmoralismoa”.

Adibidez, historian eta gizartean aritzeko biolentzia da problema, puntu konkretu larriena aipatzeko; indarra maitasunaren aurka lagun urkoari. Zaratustra-ren ebanjelioa: “Ez dizuet lanerako aholkurik ematen [puritano burgesaren jarraibide moralala], gerrarako baizik. Ez dizuet bakerako aholkurik ematen, garaitiarako baizik (...). Zuek ez al diozue, kausa on batek gerra *bera* ere santutu egiten duela? Neuk diotsuet: gerra onak santutzen du kausa oro. Gerrak eta kemenak lagun hurkoarenganako maitasunak baino gauza handiagoak egin dituzte [kristautasunak baino alegia]. Eta aparte tiroka egiten diren gerrak, hemen jarrera moralala dugu arazoa. Indarrezko moralala. Borroka, Estatuari ezezen, gizarteari, kultura “esklabo” guztiari. Zergatik “ahazten” da Nietzsche-ren alderdi horixe, hain zuzen egiaz *arriskutsu* bakarra, egunotan bere burua nietzscheano aitortu nahi duen batentzat?

“*Así habló Zaratustra* es —Savater-en iritzian berriro— una de esas obras, ni que decir tiene que escasas, que justifican por sí solas toda una cultura (...). No hay libro más riguroso ni más enigmático, nadie ha logrado conservar tan unidos por íntima y necesaria vinculación el lirismo, la demoledora profecía y la mayor profundidad especulativa. En esta obra se brinda la primera —y última, por el momento— alternativa teórica al monoteísmo dualista (bien y mal, vida y muerte...), a la verdad única de cristianos y positivistas científicos, a la concepción lineal y moral del tiempo, a la razón unidimensional que había triunfado en occidente”.

Nietzsche: “devolver al hombre al jardín perdido...?”

Alternatiba bat kultura burges arrailduari: marxismoak hori bilatzen zuen (“superatuta” geratzen ari da), hori Nietzschek ere (eta gero faxismoak, etab.). Gerra ondoko euskal mugimenduak halako alternatiba baten bila abiatu zuen bere bidea: abertzaletasun alternatibo bat, akonfesionala, ezkertiarra; sozialismo alternatibo bat, humanista, ez dogmatikoa.

Aurretik, Mirandek, bere alternatiba azaldua zuen, Nietzschek pentsamenduan inspiratua. Orohar —eta aipamena jarraituz— Savater-ek txit positiboki baloratzen du alternatiba-modu nietzscheanoa: “Tachada de *irracional* por un racionalismo que se había mutilado de la adivinación y el mito, la obra maestra de Nietzsche es un deslumbrante esfuerzo por ser cuerdo fuera del Sistema, por conservar la razón fuera de la triunfante Razón mono-teísta cuyo máximo exponente se halla en la *Gran Lógica* de Hegel. No puede imaginarse mayor tarea intelectual ni esfuerzo más prodigioso por devolver al hombre al jardín perdido, sin renunciar a la manzana de la sabiduría ni admitir la culpabilidad del gesto que la conquistó”.

10

Batzuen jardin aurkitua: Estatua

Txoriak ezingo luke kanbiatu basoa nahi adina kantatuta. Baina gutxiago txorimaloak. Aizkorak bai. Hori da problema: Leviatan moderno horretan (etikoki) funtzionatu behar dugu eta ez dakigu. Ez pertsona (norbakoitz)

bezala dakigu ta ez komunitate, kultura, nazio, proiektu euskaldun bezala. Zer daukagu ikustekorik, eta zer ikusi behar du guk geure buruontzat nahi genukeen etikak, bere lege propioek objektiboki determinatzen duten Estatu-makina horrekin? Zer moral du Estatuak? Zein izan daiteke gure morala Estatu horrekin?

Max Weber-ek sekula amestu zezakeen baino, egia esan, askoz gehiago baitzaigu “egiptotar-ekialdetartu” aspaldian gizartea. Baina faraoi modernoaren gizarte heretsapen sofistikatua “razionala” da, zientifikoa, programan integraturik dauzkana jendearen beraren desira eta baitespena, kontrol-sistema horren komenentziaren aitortza eta legitimazioa. Gehiengoaren morala, hortakoz, berak produzitzen du, Estatu horrek, profesore jaunen zerbitzu onekin. Biribil-biribil esateko: “La vida del Estado en los individuos se ha llamado la moralidad” (Hegel).

Kontzientzien barnera barneratua (erlijio baten manerara), Estatu horrek praktikan ez du problema berezirik izango iritzi publikoaren aitzinean Brouard-en asasinatzea, Joseba Arregi-ren heriotza torturetara, hiritar eskugabekuen deportazioak Dachau-ra ala Cabo Verde-ra (diferentzia “etikoa” non dago?), denik eta “Estatu ekintza” beltzena zuzitzeko, edo, zuzitu ezin bada, historia amaitezin batean nahastarazteko. Gizartean biolentziarik baldin badago (politikoa), Estatuaren ahalegin guztia ez da izango beste forma estatal batzuk bilatzea, ezpada biolentzia biolentzia gehiagoz zanpatzea. Eta, horretarako, hura irrazional eta kriminal deklaratu hastea, Estatuaren “arrazoi” bakarra publikoki ebidentzia dadin. Fededunik ez da faltako. Monarkian monarka pulpituetatik legitimatzen zen bezala, demokrazian periodikoetatik elaboratzen da Estatu-Arrazoiaren legitimazioa. Eta ez da nazien alde ezer

esatea, naziek berek ez bezalako zinismoa erabiltzen dutela, salatzea, demokratek lasai-lasai beren zerrikerien legitimazioan. “Durante mi vida he conocido dos guerras mundiales —espantatzen zen Marcuse Vietnam-go gerra-koan—, pero no puedo recordar anuncios de carnicería tan desvergonzados. Tampoco puedo recordar, ni siquiera en la prensa nazi, un titular como el que reza: ‘Los Estados Unidos satisfechos por la falta de protestas contra el gas lacrimógeno’ (*Los Angeles Times*, 9 de setiembre de 1965)”. Galantagoak ikusi ditugu, makina bat, gero.

III (IN)MORALTASUN PUBLIKOAZ

Norbaitek artikulu bat idatzi zuen, biolentziak hemen ez daukala inolako deslegitimazio moralik: ni harritu egingen nau, gero, egia esateko, zergatik harritu behar zuen inork.

Hori ez da ezer legitimatzea, positiboki legitimatu (zerk ahal izango luke legitimatu “razionalki” biolentzia?). Da bakar-bakarrik esatea, beste arlo batzuetarako postura etiko hedonista, ez kristau (gurutzedun, sakrifizio-dun), eta erlatibista, egoista batzuk hartu badira (“antidogmatikoak” esango da, noski, hobeto entzuten da), aukera etiko indibidualistak, pribatistak, postura horietatik ez dagoela gero biolentzia politikoa moralki kondenatzerik. Kapitulu batean hartu diren postura moralekin, hurrengo kapituluan ere koherente jarraitu beharra dago. Besterik ez.

Edo bai, besterik: beste guztia fariseismoa eta gezurra dela. Sobera dagoena aspaldi.

Eredu desberdinak egon litezke morala planteatzeko

Platon-enean, Grezia zaharrean (Heraklitoren ondotik) batera planteatu beharra zegoen morala eta politika: morala (pribatua ere: ez nahastu pribatua eta partikularra) beti da arazo publikoa eta politikoki soluzionatzen da (*polis* mailan alegia). Ez dago etika bat Estatuarentzat (*polis*) eta beste bat pertsonentzat: pertsonen obligazio moralak Estatuan definitzen dira.

San Paulo-ren ereduari, kristautasunean, hiria ez, baina arima salbatu behar baita (kristautasuna salbazio-doktrina erlijioso bat da, lehentiarki ez da moral bat), Estatuari eta politikari ez zaio ezertarako jaramonik egiten, bakoitzaren kontzientziako moral partikularra elaboratzen da, gehienez ere komunitate erlijiosoa izango da, kontentatzen dena, ez politikoa. Botere politikoari ez zaio onarpen oso eta guztizkoarena beste kontsiderazio modurik eskainiko, “Ez baitago aginterik Jainkoarengandik ez denik. Eta oraingo agintariak hark ezarriak dira” (Erm. 13, 1). Hark ezarriak diren agintari horietan, izenak nahi dituzunak idatzi: Zesar, Hitler, Stalin. San Paulo fede berriaren propagandistarentzat hori dena berdin da. Planteatzen dena, nola arima singular propioa salbatu, bakarrik da.

(Ez al da bitxia zein paulotarrak diruditen barneenean oraingo moral “deskristau” batzuek?).

Moral bat Estuatuari iusnaturalismoak exigitzen zion oraindik (guk Aita Vitoria-ren izena eskertu ohi dugu). Kristautasuna, funtsean. Edo nahiago bada: platonismoa. (Nietzsche-rentzat kristautasuna ez da platonismo herriarentzakoa besterik, platonismo vulgarea). Esentzialismoa omen zen eta Modernian baztertu egin dira filosofaketa

horiek. Teoria politiko garaikidetarretan orain, Estatuaren moral-arazoak lekua Dretxoari utzi dio, Zuzenbidea eta legitimazio juridikoa izaten dira kontua edozein auzitan (Zuzenbide positiboa). Nürenberg-eko Prozesuaren kasua horregatixe zaigu interes berezikoak: zeren izenean kondenatutakoak gizadiak buruzagi naziak? Zein zen “gizadi” kondenatzailea? Non zegoen krimena? Krimenaren zenbat parte zegoen alemana izatean? (euskalduna, galtzailea?). Zuzenbidea aparte (kodea), zein etika geratzen da? Non?

12

Azkenean, Estatuak da arrazoa

Orain asko dagoen joera da, ezkutatzeko edo ukatzeko soluzionatzekoak problemak: ez dago abertzaleago eta gutxiago abertzalerik (“zeinek dauka abertzaletasun autentikoaren txartelak banatzeko monopolioa?”); ez dago moral absoluturik (beraz, moralik ez da batere egongo Estatuak obligatzeko).

Azkenean, ez da horrelaxe aitortu nahiko baina, ez dago Estatuaren moralik, ez dago-eta Estatuak baino gora-goko instantzia moralik, hura epaitu ahal izateko. Eta ez arazo-de-fakto soil gisa, baizik eta: ez dago Estatu moderno bera baino razionalitatearen instantzia goragokorik. “El Estado (...) es lo racional en y por sí” (diosku Hegel, *Principios de la Filosofía del Derecho*, §258). Eta are zartakorkiago, in *Lecciones sobre la fil. de la hist. universal*: “El Estado es la razón en la tierra” (bere dretxoarekin eta auzitegiekin). Zeinek eskatuko dio Estatuari bere moralaren konturik? Hobbes-enak dira hitz hauek:

“El Estado puede impunemente hacer cuanto quiere, legislar, juzgar los litigios, imponer castigos, utilizar a su arbitrio las fuerzas y los bienes de todos, y todo eso *con derecho*. Lo que puede confirmarse con la experiencia de todos los Estados presentes y pasados” (*De cive*, VI, 13). Izan ere, aparte materialki inork ez duela ahalmenik izaten, Estatua zigortzeko, justiziaz ere inork ezingo luke hura zigortu, inork ez duelako *Estatuaren gainetik eta kanpotik* eskubiderik!... “El hombre debe cuanto es al Estado”: Hegel.

Pentsamendu grekoaren zalantzak gogoratzen ditugu, Prodiko eta Hippias Elis-ko sofistengandik Platon eta Aristotele-ganaino, soluzionatu ezinezko aporiak sinplifikatuz politika ia *scientia prima* baten eran kontzebitzeko tentatentaturik. Tentazio “positibista” honetan jausi, halere, modernook egin dugu: sinplifikatzaileak eta inmoralak eta kontzientzia guztiarekin propio, gu gara, “politiko” hutsak (cfr. Hobbes); guretzat bakarrik da *dogma poleos* berdin agintariaren burubidea soil, berdin legea, berdin zuzena. Estatuaren interesa (iritzia, *doxa politiké*) berdin justizia. Inoizko sofista egiazkoenak oraingo neosofistak ditugun bezalaxe “filosofian”, politikoak politikaren “teknikoak” dira. Morala eta politika, inork ez du makiabelikoa bere burua konfesatu nahiko, baina praxian horrela de fakto banatu egin direnean, triste da, Alderdi demokratiko bati entzutea: “deportazioak-eta, estradizioak-eta, giza eskubideen inolako kalterik ez dagoen artean bakarrik, onartuko ditugu”. Egon lasai: inoiz ez da kalte hori egongo. Non ahal izango da badagoenik ziur samar jakin edo probatu, Estatu honexen tribunaletan (Dretxoan) izan ezik?

Zeinen inbentua dira, “giza eskubideak”, Estatuarenak baino? Ez dago Jainko giza-eskubidegilerik, sozialki akonfesionalak gara, politikoki laikoak, naturaren kontzeptua zientifikoki neutroa da balio moralekiko, historia sozialean moral absoluturik ez dago (“dogmatikorik”); ongi eta gaizki erlatiboak, norberarentzat norberak bakarrik ebazten ditu, bizimodu publikorako gehiengoak. Orduan: dagoena, Dretxoa da, ez morala; eta bakoitzaren bizitza pertsonalean: norbere opzio partikularrak.

Kakao bat! Okerrena, gure ideietan beti kakao horixe eta besterik ez egon dadin, enpeinatzen ari direla, enpeinuaren teknika eta industria guztiarekin... Eta, horien artean, atrebentziarekin, “Euskal Herriko Unibertsitateko *intelektualetarik gehiengoa*”, periodistaren terminologian mintzatzeko. Orokorkiago, apika, malizia ez dadin ikus nire salaketan: nekatu eta aspertu eta amore eman duten denak; eztabaida utzi egin dutenak, borrokan dimisioa presentatu, “normalizatu” bakarrik nahi dutenak; topikoe-tan errefuxiatu direnak problemetatik, zailegiak ari direlako ateratzen gure problemak, hori egia da.

13

Estatua da etika

Ateratzen da tipoa telebistan, pertsonaia nahikoa eza-guna bera, eta entzuten diogu: “ez da HBrekiko diferentzia politikoengatik bakarrik; askoz sakonago, haiek eta gu banatzen gaituena, barrera etiko gaindiezin bat da, el-karrizketa posiblerik uzten ez duena”. Harrigarria da neorrazismo tankera berri hau: orain (europar konkistadore zuriak izaki goitarragoak izaten ziren bezala indioak bai-

no) “izaki moralki goitarrago” jende pila bat dabil politikan. Prozesuan kuriozosa da kanbioa ere: lehen razionalitatea ukatzen zitzaionari, orain sentimendu etikoa ukatzen zaio. Alderantziz, noski: atzo arteko (egunkari, periodista, politiko, profesional) frankistarekin, problemarik batere ez dago nonbait, esanguratsua baita benetan, sentimendu etiko berdinak konpartitzeko, eta elkarrizketarako ere batere ez problemarik.

Etikako bere lezioa ematen jarraitzen digu tipoak: “biolentzia zilegi da herriak onartzen badu (badaezpadan salbatu egin behar da “herria”: ez dago munduan ezker-tiar bezala burua tente paseatzerik, El Salvadorko herriaren biolentzia ez dela zilegi esanez); baina hemen gehien-goak behin eta berriro adierazi du, ez duela biolentziarik nahi...” (hauteskundeak, ez dakit, han ere egin ohi dituzte!). Utz dezagun.

Formalki arrazoi-modu demokratiko zuzena da seguruenik.

Uste dut Cathrein-ek irakasten zuela hori, gainera. Cathrein Seminarioetan estudiatzen zen. Hor alabaina deklaratzeko ez dena, da, demokratikoa ezezen, arrazoibide hori, razional hutsa edo logiko hutsa gabe, funtsean “demokristau” hutsa dela (asko baitago demokrata-kristaua hemen, nahiz askotan “progre” kamuflatuta ibili): hots, Teodizea bat suposatzen duela, Probidentzia bat, gizartearen berezko natura eta ordenu “natural” (derrigor jainkozko, absolutu) bat, etab. Munduaren razionalitate-tipo kristau bat azken finean. Ordea, ez al genuen akonfesionalak eta laikoak izan nahi gure planteamendu politikoetan, publikoetan? Pertsonalki, nahi duenak izatea dauka nahi duena: bere moral kristaua ez omen dauka gizarte osoarentzat exigitzerik...

Gainera, arrazoibide hori, printzipio-deklarazio gisa bakarrik da ezpaigabe demokratikoa, bestela praktikan ez du erakusten demokratikotasun ziurregirik, zeren eta, politikoa ez dena, demokratikoa ere ez baita iristen izatera. Hori bezalako doktrina linealki simple eta garbi bat, euskaldunak ez dauka ziur asko eskubiderik benetan serioa izan litekeela ere sinesteko, gauzak euskaldunaren munduan ez dira-eta linealki garbiak eta sinpleak sekula izan historian. Apostolikoki, euskal kulturako pertsonaia batek horrelako tesi bakun birjina bere imintzio eta buru-keinu energikoen enfasi guztiarekin telebistan azpimarratzeak, frogatzen duen dena da, noraino gauden etorrita, inteligenteak eta razionalak izatea eta “besteek” bezalaxe pentsatzea, berdintzera, geure buruarekin eta geure historiarekin gauzak geuk pentsatu orde. Sinestea beti zen errazagoa pentsatzea baino, latinez behiala idatzitako jesuita austriar baten tesietan oraingo laizistek (omen) sinesten jarraitzea izanda ere. Baina arruntik arruntena eta errazen-errazena, periodiko baten inteligentzian eta razionalitatean goizero sinetsiz, geu razionalak eta inteligenteak bihurtzen garela, uste edo nahi izatea da, zalantza gabe.

Zenbat gerra inolako egon ote da benetan gizadian sekula santa gehiengoak nahita, defentsako nahiz erasoko? Nola adierazten ote zuen “libreki” gehiengoak, zer nahi zuen, gerra batean? Alemanian txekiarren aurka, Frantzia alemanen aurka, Aljerian frantsesen aurka, edo USAn Panama-ren aurka, Errumania-n Ceausescu-ren aurka? Nola osabiltzen da eta nola espresatzen da biolentziaren eta armen kapituluan herrian bakoitzak nahi duena? Iraultza guztiak izan dira minoria baten lana. Gerra denak, lau katuk pentsatu eta abiaraziak. Eta, gerrak aparte, biziera politiko arruntean ere, zer ikusi behar du “he-

rriak” biolentziarekin, soportatu egin behar izaten duela besterik? “Biolentziaren aparatuak” izaten baitira hain zuzen sistema guztietan (diferentzia gutxiarekin faxismoan, komunismoan, demokrazian) kontrol demokratiko orotatik preserbatuenak, autonomoenak, herriaren iritzia ezetik, azpiragabetuenak herriaren diputatu politikoen informazioari berari (sekretu militarrek, espioitza, polizia politikoa, Armadaren organizazioa, etab.: noiz erreferendatu da holakorik?). Horiak horrela, zein kondiziotan “herriaren nahiak” demokrazian bertan balio ahal izango luke biolentziaren legitimatzaile gisa? (Affaire Dreyfus, kontzentrazio-barruti naziak). Edo Platon-en dilema: gehien-go demokratikoak kondenatu zuen Sokrate heriotzara: “justizia” al da, horregatik, demokratikoa izan delako? Ez ote da kabitzen injustizia demokratikorik? Baina, are, biolentziaren (in)mortalasun posiblearen auzia marko demokratiko batean garbi epai litekeela suposatuz ere: zergatik suposatzen dugu, marko hori legitimoagoa dela beste edozein baino, arazoa “moralki” konpontzeko? Zergatik izan beharko du pentsaezinezkoa “justizia antideokratikoak”? Edo, azkenik, nola razionalki legitimatu, errealitate politikoan ezer soluzionatzen laguntzen ez duen problemaren soluzio teorikoa? Zein gogoratzen da, izan ere, biolentziaren presentziak historian haren legitimitatearekin zerikusirik noizbait zeukanik?

14

Gure bizitexea dela biolentzia

Biolentziaren eztabaidak, eta, beraz, gure eztabaida politiko guztiak, inora ez du izango irtenbiderik, hasieran

bertan lurpetarki biolentzietako bat pribilegiatzen bada beti isilpean, eztabaidatik eskludituz, begiak, ez balego bezala, itxita edukiz harentzat.

Estatuetan bizi gara eta problema Estatua beste gabe ontzat ematen den ala ez da. Egunero egun osoan hortxe aurrean dagoen errealitatea da biolentzia: artatsu eta serio asko Estatu subiranoek haren kostua presupostatu egiten dute (osasuna edo zaharren pentsioak bezalaxe, edo umeak eskolatzeko dirua). Biolentzia Estatuan irakatsi eta ikasi egiten da eta hiritar maskulino guztien obligazioa da ikastaro praktikoetan ikastea: gure zergekin horretarako ikastetxe bereziak aritzen gara subentzionatzen (kasernak, Akademia Militarrak, ikerketa militarretako programa zientifiko eta teknikoak). Jende asko eta askorentzat bere ofizioa da (ogi eta dirubide ohorezkoa Estatuan, mila eratan pribilegiatua). Zientzia oso bat eta ikerketa partikular zorrotzak desarroilatzen dira sekretuki nahiz ageriki haren zerbitzuan, munduak sekula ezagutu duen teknologiarik arrafinduena.

Gauzarik “bidezkoena” iruditzen zaigu soldaduzka: zergatik ez arrazoi politikoz egindako edozein pertsonaren bahiketa? Eta bai Estatu frantsesaren Baionan harra-patu eta deportazioa Cabo Verde-ra inolako judizio, tribunal eta ezer gabe, ekintza polizial batean, Estatu gabeko euskaldun abertzale batena? Tribunalak berak, zer interesatzen zaizkigu, Estatuak hain erraz alde batera utz ditzakeela, nahi duenean, erakusten badigu zinismorik trankilenarekin, itsuak ere argi eta garbi ikus dezan, justizia (tribunalak) Estatuan indarraren mozorroa baizik ez dela, aginpideak astoegia eman ez dezan indarkerian?

(Ulertu ezin izaten dudak komeria da, nola norbaitek biolentzia oro, nondinahi etorri, San Mateok bezain eban-

jelikoki kondenatu eta gero, berak, lasai-lasai, parte har dezakeen “instituzioetan”, oraingo terminologia polemikoa erabiltzeko).

Oraingo katramiletan endredatu baino lehen geneukan Max Weber baitan aspaldisko ikasita: “El Estado moderno sólo puede definirse en última instancia a partir de un *medio* específico que, lo mismo que a toda asociación política, le es propio, a saber: el de la coacción física. ‘Todo Estado se basa en la fuerza’, dijo en su día Trotsky en Brest-Litowsk. Y esto es efectivamente así”. Zalantzarik inork izan ez dezan: “El Estado es aquella comunidad humana que en el interior de un determinado territorio (...) reclama para sí (con éxito) el monopolio de la coacción física legítima. Porque lo específico de la actualidad es que a las demás asociaciones o personas individuales sólo se les concede el derecho de la coacción física en la medida en que el Estado lo permite. Este se considera, pues, como fuente única del ‘derecho’ de coacción”. Biolentziaren bere monopolio hori esentziazkoa zaio Estatuari (gure kasuan demokratikoa izaten den Estatuari). Baina monopolioak, hain zuzen, biolentzia bat bedeinkatu egiten dela, esan nahi du (biolentziaren administrazio monopolizatua), beste guztiak madarikatzeke. Biolentzia *bat* ona da: horregatik, ez da kontsideratzen biolentzia; beste denak biolentzia kontsideratzen dira, gaiztoak. “El Estado (...) es una relación de *dominio* de hombres sobre hombres basada en el medio de la coacción legítima (es decir: considerada legítima). Así, pues, para que subsista es menester que los hombres dominados se sometan a la autoridad de los que dominan en cada caso”.

15

Bakearen gerra dialektikoa

Elkarrizketatzeak eta arrazoitzeak sentidua galtzen du, hitzek bat-batean beti esan nahi zutenaren beste zer-bait esan nahi badute, esalearen kapritxoaren arabera. Autodeterminazioa determinaziorik ez da izango, baina eguneroko rutina politikoa, etab. Euskara ezezik, ez dugu jakingo gaztelaniarik ere: *-ción* ez da izango akto garbi batent atzikzia, prozesu ilun labirintotsu batena baizik.

Eta bakea ez da izango bakea. Hori ere kontu aspalditarra, aspaldi izan baikenuen halaber “Alemaniako gerra-katoia” Brecht-ena ere ikasteko aukera:

“Goikoek diote: bakea eta gerra
izaeraz desberdinak dira.
Baina beren bakea eta beren gerra
haizea eta ekaitza bezala dira.
Gerra jaiotzen da beren baketik
hala nola umea amarengandik.
Ezaugarri izugarri berak ditu”.

Ez dugu jakingo, zer dakigun, eta ez dugu ezer jakingo. Eta ez da gure libertatea izango: gure derrota definitiboak izango da hori.

16

Biolentziaren eztabaida frakasatua

Franco 1975ean hil zen. “Trantsizioa” deritzon hurrengo prozesuan, teologoak, moralistak, filosofoak, indargintzaren zilegitasuna (edo eza) gogotik ahalegindu di-

ra ebazten, gai hori kasik modan bezala egoteraino urte horietako mahainguru eta sinposio monografikoetan.

Hamar urte baino lehen, biolentziaren eztabaida “etiko” honek (lehen fasea), ikusita zegoen, frakasatu egiten zuela: greko batek ez zuen problema handirik edukiko (Tukidide, Aristotele), baina gure oraingo razionalitatearen modeloan, etiko-razionalki soil-soil, ez gaitziritzi, ez oniritzi ahal izatera iristen gara biolentzia orokorki. Biolentziaren legitimitateak uko egiten dio, nonbait, inolako moldetan printzipioz razionalizatua izateari, Estatu modernoaren markoetan.

Kontsidera daiteke nolabaiteko frakasoren bat, nahi bada, biolentziaren eztabaida etiko hark “zilegitasun”-a-uziarena beste planteamendurik eta beste diskurtsurik ez asmatu izatea, edo haren “kondenaren” auzi antzuan indarrak alfer-alferrik xahutu izatea, inolako emaitzatara heldu gabe. Baina hori beste natura bateko problemekin dago lotuta, hobeto begiratzen bada: okerragoa, eztabaida etikoaren edo filosofikoaren frakaso baido, eztabaida politikoaren frakaso da.

Ez baitago ondorioztatzerik, etikak biolentziaren arazoan deus ez daukala zer esanik, ez delako trebe izan aurrenik haren legitimitatearen auzi oinarrizkoa garbiro eta erabakiorki mozteko. Baluke franko zer esanik. Hortakoz ezin exito bat kontsidera liteke, postfrankismoan entseiatu den eztabaida etikoa: eta arrazoi nagusia, nire ustez, izan zen, biolentziaren bai/ez (kondena/apologetika) korapilolan endredatu izana alfer-alferrik.

Borroka egin nahi bazen, ordea, eta askatasuna konkistatu nahi bazen, biolentzia bai ala ez, aurren-aurrenik politikoki eztabaidatu behar zen: politikoki behar zen ikusi biolentziaren bidezkoatasuna ala bidegabekeria askata-

sun-bidean. Horren lekuan, ordea, zer ikusten dugu? Politikoeak, beren eztabaida propioa egin ordez (politikoa), lehen frakasatutako eztabaida entseiatu nahi dutela berriro. Eta okerrago. Hobe, ez dakitela beren eztabaida egiten eta moralisten eztabaidara egiten dutela ihes, jeneralean dogmatikoki haren kondena (moralala edo moralista) egiteko bakarrik halere, arrazoitzeko baino.

Paradigmatikoa biolentziaren eztabaida etikoaren frakasoak da eta auziaren ondorengo eboluzioa gero, gure “arrazoiketaren” eboluzioarentzat azken hamabost urte honetan. Gaur egun, biolentzia, ala erlijiosoki (ebanjelikoki: “nondinahi etorri gaitzesgarri”), ala “humanista-moraliki” planteatzeari, eskapatu egin ezezik, gaiztoa eta inoportunoa (inmoralala) irizten zaio (biolentziaren “efikaziaren” galderak arriskutsuegia dirudi Netzscheren “arima sentiberentzat”). Paradigmatikoa da, arrazoiketa razional (politiko nahiz moral) garbirako gure ezgaitasuna zenbaterainokoa den, erakusten duelako, modu eskandalagarrian.

Zertara dator biolentziaren kontu hau guztia berriro?, galdetuko du irakurleak nire azkeneko artikuluekin asper-tu samartuta.

Ez al digute, bada, Ernst Jünger doktore honoris causa izendatu geure muturraren aurre-aurrean?, galdetuko dut nik ere asper-aspertuta gizarte honen eskizofreniarekin. Tragedia batean, ala fartsa batean ari gara jokatzeko?

17

Biolentziaren kultu(r)a

Pentsatu, pentsa liteke kultura bat (moral bat), indargintza eta gerra maite dituenak, handitasun izpiritualtzat

dauzkana, eta, pentsatu ahal izan bakarrik ezezen, posibilitate hori, zinez post edo deskristauak bagara, gure kulturaren (europarraren batik bat) iturburu ez-kristauetako datu arruntzat onartu beharko da gizadiaren orain arteko historian. Samurai filmeak denok ikusi ditugu. Beharbada ezagutzen dugu apurren bat Yukio Mishima. Hori izan omen ziren Grezia eta Erroma sanoak, Nietzsche-ren us-tez. Errenazimentua gero: “una espléndida e inquietante resurrección del ideal clásico, de la manera noble de valorar las cosas”. Horrelako tipo bat Errenazimentuan Bertrand de Born trobadora izan zen, inoiz Mirandek aipatu izan duena. Kristauak ez bagara (kulturalki esan nahi dut), zergatik iruditu behar zaizkigu inmoralak?

Ez al dira champagne edanez-eta ospatu izan atentatu batzuk? (Manzanas, Carrero Blanco). Zein sentimentu “moralek” eragiten ditu ospaketa horiek?

Maiatzean, bideondoak eta zelaiak loratzen direnean, trobadorearen bihotza pozez hanpatzen da, ikurrinak airean zaldunak abiatzen direnean gerrarako:

“E ai gran alegratge
Quant vei per champagne renjatz
Chavaliers e chavaus armatz”

Arma artean bizitzak aintzazko sentidu argitsu berria aurkitzen dizu:

“Trompas, tabors, senheras e penos
E entresenhz e chavaus blancs et niers
(...) que.l segles sera bos!”

Zer egin behar dugu: filosofia hori, Nietzsche-rekin zebratu, baina biolentzia gero etxean tokatzen bada kondenatu? El Salvador-en txalo kantatu eta hemen madarika-

tu? Pistola bat ez al da pistola bat mundu guztian? Ba, ez, ez da (aspaldiko uste zaharrik estupidoenetakoa zen, baiezko ustea). Hori ulertu dugu: ondo. Baina, nola definitzen da zehazki, zehatz, diferentzia? Noiz bai eta noiz ez da gaiztoa biolentzia? Ala beti positiboa da? Naturala? Eta utzi egin behar ditugu, egin nahi izaten genituen be-reizkuntzak eta moralismoak? Ez gaiztoa, baizik eta ona beti, nondinahi etorri, ote dugu biolentzia, beti bizitzaren tresna gogorra denez gero?

Esan genuen, E. Jünger bizitzaren eta gerraren filoso-fia ederreskor honetan kokatzen zela: harentzat gerra zen kulturaren eta zibilizazioaren ama, gerrak duintzen du gi-zadia, handitzen digu izpiritua, nobletzen ditu herriak. Apenas dira ezkerrekoak, ideia horietxek. Beraz, ez da izan Lukács bakarrik, bere rigore stalinistarekin, eta gero *Egin* bakarrik eta hemengo lau txoropito, E. Jünger-i mu-zin egingo diotenak. Hura bezain drastiko A. Camus min-tzo da, ondo posizio desberdinetik: “El único hombre de cultura superior que dio al nazismo una apariencia de fi-losofía, Ernst Jünger” epaitzen zuen. Eta handik harako garabideari zegokiola filosofiatik praktikara: “Jünger de-ducía de sus propios principios que valía más ser criminal que burgués. Hitler, que tenía menos talento literario, pe-ro, en esta ocasión, más coherencia, sabía que es indife-rente ser lo uno o lo otro, desde el momento en que no se cree más que en el éxito”. Eta haren filosofia nihilista mi-litaristari jarraitu zaion txikizio eta kiskalmendia gogo-ratuz:

Hitler era la historia en su estado puro. “Devenir —decía Jün-ger— vale más que vivir”. Predicaba, por lo tanto, la identifi-cación total con la corriente de la vida, en el nivel más bajo y contra toda realidad superior (...). Rosenberg hablaba pompo-

samente de la vida: “El estilo de una columna en marcha, y poco importa hacia qué destino y hacia qué fin esta columna esté en marcha” (Jünger oso antzera espresatzen zen, goian aipamen batean aipatu denez). Después de esto, la columna sembrará la historia de ruinas y devastará su propio país, pero por lo menos habrá vivido.

18

Denok gaude ja nekatuak

Ez bedi esan, Lukács, Camus, kontu zaharrak direla, gerra hotzaren eta militantismo kontrajarri erradikalen garaikoak, edo gerraosteko filia eta fobia gorien balorazio exageratuak. “Filosofiaren Hiztegi Historiko” handia oraintxe ari dira hamar tomozarretan argitaratzen, Alemanian, eta E. Jünger bertan ere “iraultzaile kontserbakoi” bezala agertzen da, espreski seinalatuz gainera, intelektualok hainbat alorretan faxismoari lurra landu ziotela, haren garaipena erraztuz. Eta 1984ko “Filosofoen Hiztegi” frantsesak honela dio: “E. Jünger constitue sans doute l’un des cas les plus controversés de la littérature et de la pensée contemporaines(...). Les contradictions qui se font jour dans la trajectoire d’E.J. sont peut-être plus apparentes que réelles et lui-même n’a d’ailleurs jamais renié quoi que ce soit de ses prises de position, aussi extrêmes soient-elles. On ne peut donc se contenter de ne voir en lui que l’écrivain (...), en oubliant qu’il fut aussi dans les années 25 à 33 le théoricien du *national-bolchevisme*”.

Euskaraz ere, idatzi egiten da pittin bat, agian gero pittinik ere inon ez izan arren ezagutua. UZEIko hiztegi batean Krutwig-ek hauxe idatzi zigun:

Nazional-boltxevismoa: Alemanian europar gerraren ondoan sorturiko mugimendu politikoa. Haren buruzagia E. Niekisch izan zen. Nazional-boltxevismoaren pentsalarien aburuz (...), Alemaniak Errusiarekin aliantza hertsia egin behar zuen. Horren arabera, Alemaniako eta Errusiako armada gorria elkarrekin joatea ongi ikusten zuten. Eltzebacher diputatu nazionalistak zioen bezala, orduan alemanek boltxevismoaren arlora iragan beharra zuten. Nazional-boltxevisten artean ere Ernst Jünger idazle famatua izan zen. Pertsonaia honekin ikus daiteke argi nola Alemanian laster nazional-boltxevismoa eta nazional-sozialismoa elkartzekoak ziren. Jünger-en aburuz ere nazionalismoaren eta komunismoaren artean aliantza hertsia bat egin beharra zegoen, horrela batera mundu burgesaren kontra jo eta burgesiaren dogma guztiak ezabatzen. Nazional-boltxevikeok, halaber, Estatuaren ekintza ekonomiko guztiak nazionaltzeaz mintzo ziren. Joera honetatik, hain zuzen ere, Hitler-en alderdiaren ezker hegala sortuko zen.

Basta, nahikoa. Ez nuen heldu nahi inolako konklusio modutara. Hau ez da tesi bat. Begiratu eta zer dagoen ikusi bakarrik. Denok gaude, eta ni ere bai, nekaturik nago.

Mila eratakoak, ahal izango lirateke atera, gura izanez gero, konklusioak. Azkeneko puntutik abiatuta: alferreko samarra dirudiela, euskaldunen herrian, euskaraz idazteak. Herri estrainio honetan inkultuak elebidunak izaten dira; kultuak, elebakarrak. Jarraituz: artikulua hau berau alferrik izango dela, euskal intelektualetarik “gehiengoak” ez baitu euskaraz irakurtzen.

Gero: anbiguitateak kontzeptuetan, jarreretan, normalak izaten dira krisialdian. Orain, ordea, anbiguitatea kultibatu egiten da (“askatasun intelektualaren” airez); norbere postura finkatzen ahalegindu baino, ekibokoarekin flirteatzen da. Indefinizioa *chic* da, eta ez dago esaterik, askotan oso justifikatua egoten ez denik: bakarrik, guztiaz duda egiteko, maisuaren beharrik ez genuen. Eta ezjaki-

nak izateko, nahikoa gara geu inoren laguntza gabe (Voltaire, *Kandido*). Moda hori merkeegia da, inor pixka bat intelektualki exigenterentzat. Baina sentimendu apropos dekadente nostalgikoen eta berba politen modisto horientzat, oso ondo dago zalantza gabe E. Jünger ohorezko irakasle: zein zegoen haren aurka, nahikoa arrazoi izan zen horientzat haren alde. Nolakoxeak dizipuluak, halakoxea hautatu dute irakasle “demokratikoa”. *Sic itur ad astra!*

“Nola izandu da posible honelako figura bat doktore honoris causa, non eta hain zuzen Euskal Herrian, izendatzea? Alpujarra-n ere ez zen posible izango!”, txunditzen zitzaidan lagun bat Jünger-en istorioarekin. Baina hemen, Alpujarra-n ez bezala, edozer gauza baita posible. Horregatixe hain zuzen. Gure absurdua horixe da, hemen edozer gauza da posible.

“Unibertitate hau benetan Euskal Herrikoa iruditzen al zaizu, hemen dagoelako?”, behar izan nion erantzun. Momentuan ez nuen asmatu hobeto zer ihardetsi.

“Hobe dugu ez jarraitu beti geure buruak engainatzen”, erantzun nion; “herri hau ez da bere askatasunagatik 36an gerra egin zuen eta Gernika bonbardatu ziotena. Berrogei urte beltz oposizio gorria jasan eta odola dariola borrokan eutsi egin zuen hura”. Herri hau ez duzu liburuetan ipini dutena. Hemen dagoen haxe da, telefonoaren beste aldean oraintxe esaterako.

19

Bakarrik...

Bakarrik, iluntzean, telebista ikusten nago berriro, eta programa bat da, elkarrizketa bat politikoen artean, men-

dearen azkenburu alde honetan arras gaindituta nola omen dagoen, ezker-eskuin diferentziapena, XIX. mendeko zarpil-hondakin tipiko bezain zentzugabea... Eta egia izango da. Izan ere, gure jende razionalaren arrazoi ebakor, polemika zahar guztien xahutzaile eta iluntasun ororen hain argigarri gertatu den hori, aplikatzen bada: zeinek dauka txartelen monopolioa, zein den ezkerra eta eskuina, atzera ala aurrerakoaia, erabakitzeko?

Zergatik ez Ernst Jünger, gehienak bezain demokrata, progresista, liberala, independentea eta edozer gauza, kontsideratu? Edo hobeto: zertarako axolatu adjektibo higaratu, zahar-usaindu galkor horietaz oraindik, bigarren mirlurtearen azkenetan?

Nahi duenak nahi duena egitea dauka eta dena ondo. Denok demokratik, azkenean: berdinak. Denok libreak eta tolerantak. Ez eskuin, ez ezker, dago; ez abertzale, ez aberkabe, ez espainol sukurtsalista... Diferentziak borratu dira (ez gara “excluyenteak”). Amore egin diogu, jarrrera definitu bat hartzeari. Gainditu dugu finean XIX. mende truskila, bere intrantsigentzia eta fanatismoekin.

Urdin zabal-zabal, horizontetik horizonteraino, berriro Espainia bakarrik dago, razionalitate berri ofizialean. Berriro “empieza a amanecer”. Ez ote du soluziorik herri honek?

HITZ BI BUKATZEKO

Bat para liteke bere hanka biekin beren-beregi borrokan edo politikan, bera kulturgina izanik, eta —neu ez borroka eta ez politikazale handia naizen arren— oso ondo iruditzen zaidala, esango dut, aukera pertsonal hori, norbaitek bere bidea hortik ikusiz gero. Berdin da hori kulturgin bezala jokatzeko egiten badu bere erakunde edo alderdiaren barruan, edo luma lanak utzi eta borrokara edo politikara buru-belarri entregatzeko. Aukera bat da. Gero, aukera guztiek bezala, aukera horrek ere bere mugak ditu. Bere legeak, eta debekuak ere bai.

Aukera guztiek dituzte beren mugak. Bakoitzari dagokiguna, kontzientzian eta libreki harturiko sailean gure lana denok ondo egitea izango da, helburu komuna bezala bakoitzak bere medioak ondo zainduz, medioak zaindu beharrak askotan ezartzen dituen menpetasun guztiekin.

Kulturgintzako alorrean kokatu denak, eta sozialki konprometitua denak, egingo du politika, eta egingo du borroka ere, baina nire ustean inportantea da beti bere-be-

re politika eta bere borroka izatea hori. Sail diferentek nahastea —politika, borroka, kulturgingintza—, nik ez dut uste luzarora inorentzat ona izaten denik, edo kulturgingintzarentzat berarentzat gutxienez onegia ez da izaten. Hau esatean ez nuke intelektualaren independentziaren mitoa-rekin ezer ikusi nahi halere.

Alegia, kulturaren autonomiak ez du intelektualaren menpegabetasuna gizon-emakumeen miseriatik eta sufri-mendutik esan nahi, eta bai boteretik. Kultura aseptikorik (“apolitikorik”) ez dagoena, badakigu aspaldi. Mundua-ren aurrean —ustiapen eta zapalketa erakundeon aurre-an— hartu beharra dago postura bat. Eta ez hartzea ere hartzea da, dagoenaren alde hartzea hain zuzen, gehien-goaren postura beti horixe izaten baita. Intelektualaren borroka hor pobreena eta zapalduena bakarrik izan daite-ke — arrazoi eragotziaren eta askatasun zapalduaren bo-rroka¹. Euskal Herri zapaldu eta pobrearena gure kasuan. Mugatuki eta apalki, borroka horren diskurtsoa —arra-zoia— lantzea eta espresatzea izango da haren lan espezi-fikoa (ez diskurtso propagandistikoa, hori ere garrantziz-koa den arren: gogoeta “kritikoa”, hitzaren esanahi jato-rrean), gero nahitaez oso ezberdina aterako dena berriro praxian, segun eta bat “herri mutu” horren intelektual ber-tsolari, kazetari, eleberrigile, saiolari, irakasle, apaiza edo zer den, horren arabera. Eta inportantea da hor kulturgingin-

1) Arrazoa eduki berdin eduki dezakete pobreak eta aberatsak (botere-ak eta askatasunak). Baina aberatsak mila medio dauka bere arrazoa erakusteko; pobreak arrazoiak, bere alde intelektual librea ez badau-ka, ez dauka beste babes eta laguntzailerik biolentzia baino. Pentsa-mendu hau, gutxi gorabehera, ja San Benito —mendebalearen aita-ren Araudian aurkitzen da (*Reg.* 53, 15), erlijiosoki formulaturik noski.

tzako langileak bere menpegabezia ez galtzea inorekiko, ezta bere lagunekiko ere.

* * *

Gerra bukatua zen, abertzaletasun klasikoak huts egingen omen zuen: batzuek armak hartu zituzten; beste batzuek, ez. Izpiritu berri batek bide berri ezberdinetatik ekin zion — bide berri bila. Horra gure historia.

Historiak aurrera segitzen du eta honezkero (aspaldi bezala) besteren batzuek nahiago lukete, bai A eta bai B eta bai berak inspiratu zituen pentsamendua, ezabatuak ikusi mapa politikotik betiko, agian mundutik ere (nazionalismoa eta demokrazia elkartezinak bide dira², etc.): ordenua eta “bakea” besterik ez dizute nahi horiek berriro —betiko Euskal Herria Espainia eternoan geldi—, istilu guztien kausa bakarra omen den “abertzaletasuna” betiko irazitza lurraren gainetik arrastorik utzi gabe...

Ez, guk ez dugu nahi Euskal Herri “betiko” berri hori ere!

* * *

Proiektu bat bagara, lehenengo lana geure posizioa ongi bermatzea izan beharko luke.

Uste dut kulturako euskaldun denok eduki dugula noizbait alderdi guztien arteko konprentzio guztizko ederraren tentazio, edo ilusio ekumenista, erromantiko hau:

2) Abertzaletasunak azkenean Estatuarekin dirudi de facto eta egiaz elkartzina: lehen Francorekin eta orain berdin demokraziarekin, edo demokrazia ulertzeko batzuen moduarekin.

euskaltzaletasun zabal eta bakun bat, unibertsalista, irekia, errebindikazio humano-humano eta kultural politekin, ideal humanista arrunt batzuk besterik ez funtsean, inolako agresibitaterik gabe, nahiko elementala eta kasi apolitikoa (edozein politikarekin adostu ahal izatekoa), “etsaien” artean ere aise ulertu ahal izango digutena, borrontate on eta kultura pixka bateko nornahik problema-rik gabe onartu ahal izango ligukeen modukoa... Gero denok ikasi beharra edukitzen dugun arte, kultura espainolean ez dagoela euskal abertzaletasun erradikal eta moderaturik, ez liberal eta fanatikorik, ulertezin eta ulergarririk, razional eta zororik, eta azkenean alfer-alferra ezeze, ridikuloa dela hor aterik ate pelegrino ibiltzea “ulerpen” eskale. Edo axola gehiegiren bategatik, edo axolarik deusezagatik, inoiz ez dute lekurik beren munduan gure ulerpenerako. Eta hori nahi badugu, borrokatu beharra daukagu. (“Ulertuko gaituzte, ulertzen ez gaituztenean”).

Orduan, gure eskubidea (gure arrazoia) demostrazio historiko eta filosofiko eztabaiaezinekin, razionalki nahiko genuke ziurtatu, modu objektibo zientifikoan eta absolutuki alegia, gure argumentu biribilei etsaiek ere deus ezin objektatu ahal izan liezaieketen moduan, goitik beheraino burdinazko logika hertsiz lotu-lotuta dena —ulerpenetik alferrik itxaron genuena, arrazoiketa logikotik hobeto itxaron dezakegulakoan.

Zergatik ezin da razionalizatu abertzaletasuna —zientzia ere bezalaxe!— azken punturaino eta absolutuki? Oso sinplea da: askatasunaren fruitua delako! Giza izpirituaren munduko obra delako (beraz, kultura, etika, denak nahasten dituen: hitz batean, historia), ez ariketa intelek-

tual huts —formal— baten ondorio mekanikoa, matematikako operazio bat.

Batez ere abertzaletasunera iratzarri berritan edo gaxtetan sentitzen da razionalizazio absolutuaren, “egia-
ren” eta “arrazoiaren” segurantzi premia hori etsai guz-
tiei buruz (oso kritikoa izaten da, horregatik, bere aurre-
ko abertzaleekin) — gero deskubritzen den arte preten-
tsio hori, burujope hori, razionalki ezinezkoa izateaz
gain, sozialki eta politikoki alfer-alferrikakoa ere bazela.
Izan ere, zeini arrazoitu nahi diogu? (Ezin imajina gene-
zake, gure mezuaren hartzailea —solaskide espainol hi-
potetiko hori— razionalitate puru inkarnatua dela bera:
historiak ez du erakusten horixe!). Zer arrazoitu, zer es-
plikatzeko, zer irabazteko? Hasteko, zeini daukat ezer
arrazoitu *beharrik* eta zer justifikatu *behar* dizkiot nik
inori ene gurariak, desirak, ene askatasun egarria? Aber-
tzaletasuna desira batzuk eta esperantza simple batzuk da.
Nondik datorkit niri gurariok inori arrazoitu eta justifika-
tu beharraren sentimendu horixe bera, premia hori, ezpa-
da gizartearen gaurko eraketak haiek nigan ukatzen eta
zanpatzen eta nolabait moralki “debeketzen” dizkidalako
faktotik? Eta zein sentidu dauka “eraketa” —administra-
zio, tradizio, kultura, eskola— errepresibo horrekin “arra-
zozitzeak”? Zapalketa hori ene barruan arrazoiketa ororen
aurretik daukat —ukoaren ukoa— birrindu eta arbuia-
tu beharra.

Gaur badakigu denok, ez bakarrik tamalez arrazoiak
politikan zenbat kontaktzen duen eta ez duen, ezpada baita
fisika matematikoa edo astronomia ere ez direla goitik
beheraino objektibo eta razional huts-hutsak: alegia, ho-
riek ere hautapen subjektibo pila baten baldintzapean sor-
tu eta sostengatzen direla, bai historiko-kultural eta bai

teoriko-objektiboki; hau da, beren eraikiduran ez dutela razionalitate soilezko oinarripenik, zerotik hasita; edo, razionalitate zientifikoa ez dela deusezetik bere burua krea-tu duen jainkosaren baten antzera pentsatu behar, kaosaren gainean distiraz hegan. Razionalitate absolutuaren eredu hori, gizon-emakumea makina perfektuenaren antzera irudikatu nahi zuten mende burgesen ametsa besterik ez da izan. Amets higatua noski honezkero.

Gure asmoen eta helburuen razionalitateak bost axola diola, esan nahi ote du horrek? Historia indaritsuak egiten duela eta kito?

Ez. Baina bai, razionalitatea bera unibertso baztergabean ez dela giza askatasunaren, desiraren, gose eta egarriaren, eta indargintzaren, fruitua besterik: “Irrazionalaren” emaitza (zeinek nahi du horregatik eskandalizatu?) — giza arrazoizkotasun errotikoaren fruituak ziren bezalaxe askatasun desira eta gose haiek berak. Hori da giza-bera.

Abertzaletasunak elementu subjektiboak eta irrazionalak dauzka, bai. Fisikak ere bai. Gure proiektu politiko eta kulturalak eztabaidagarriak diren bezala, zientziak ere — arteak legez, eta giza existentzia bera — askatasunaren produktuak dira: “fedearen” eta hautapen subjektiboen gain eraikiak dira, erabakimenaren arriskuak eta kreazioak. Eta besteak irrazionaltzat jotzeko zale handi batzuek antza denez oraindik enteratu ez diren arren, hortxe dago haien guztien handitasunaren iturria. Giza obra eder oro askatasunaren, hautapen libre baten lorapena da.

Honek esan nahi du, abertzaletasunak orobat, erosotasunagatik edo segurantziazatik geuk ere askotan nahi genukeenaren aurka, ez daukala proiektu teoriko “seguru” bat moderazioan, moderazioaren fanatismoan alegia, fa-

brikatu eta (“abertzaletasun demokratikoa” edo) deskantsatzean pentsatzerik; razionalitatearen emaitza baino gehiago, haren arriskatzaile eta kreatzailea izan beharra daukalako, gizatasunaren —hots, askatasunaren— obra izatekotan, giza askatasunaren kreatzaile izanez berdenboran — arteak eta zientzia diren bezalaxe.

* * *

Ibaia iturriaren puntutik bertatik esentzialki eta bere baitan dena razionalitate hutsa izatea nahiko bagenu bezalada, bere obra eta garapena baino lehenago, irudi batekin esateko. Ideiak berak izan behar du garbi-garbia: baina mendian behera lats bazterrak hezetuz, sastrakak eta zuhaitzak berde-berde ernaraziz, soroak eta belazeak lautadan onduz, gizakien biziguneak bilduz bere inguruetan eta hiriak elkarlotuz eta komunikatuz, urtaroetan zehar bere bidean basoak eta laborantza, merkataritza eta kultura zabalduz, egiten dizu egin —praxi ezberdin aberasgarrian— ibaiak bere historia eta “razionalitatea”. Lanak, borrokak, ikerketak, kazetaritzak, literaturak, eguneroko gogoetak, politikak egiten dizute historian gizon-emakumeon (proiektuen) egiazko arrazoizkotasuna — hasierako hautapen libre arrazoizkotsu baten iturritik. Eta ez dago beste arrazoizkotasun modurik giza obretan.

Asko ez du balio (kuriosoki, arrazoitu beharrik izaten ez duenak eta berak sekula ezer arrazoitzen ez duenak, eman ohi dio inportantzia handia “razionalitateari”: Botereak, arrazoiketa eskatu egiten duenak besteei), baina —gizon-emakumeon historiako joko hauetan— kultur-gintzaren aportazio apala, onenean ere, horretantxe baka-rik datza: egin, bai lanak, borrokak, poesiak, zuzenbide-

ak, ekonomiak nahiz politikak egiten diharduten proiektuaren soinean, berak arrazoizkotasun diskurtsoa jostean. Beldur naiz, alabaina, gutxi horixe ere gaur egun ezin dela egin Euskal Herrian.

Gaur arrazoiketara esaten dena, zarata eta konfusioa baita. (Beharbada politika modernoan beti horrela izan da). Horregatik, desiratu, nik ere desiratuko nuke, baina gero gauza handirik ez dut horretan sinesten, esate baterako, prentsan eta ikusentzunezko hedabideetan dagoen eraso espainolista ikaragarriari sistematikoki erantzuteko intelektual abertzaleen talde antolaketa batean. Eta ez dut sinesten, aparte ez dudala gauza garenik ere uste (zenbat junta gaitezke, egunoro “300 miliari” erantzuteko?), elkarrizketarik ezin delako sortu horrela (irratian edo telebistan “elkarrizketak” antolatuz ere sortzen ez dena!), giza arrazoizkotasunerako beharrezko elkarrizketa, zarata areagotu bakarrik egingo lukeen gorren monologoa baikik, eta Kantek esango lukeenez, bere txaloarekin “filosofoa lotsagorritzen da barreragile herrikoia garaitetu eta harropuzten duen jendetzaren” dibertsiorako muezinen norgehiagoka zoro bezain alferrikako bat, guk behintzat han zer irabazirik ez baitaukagu. Zarata, dena dela, tonuagatik baino gehiago —obligaziozkoak bilakatu diren irainak eta eskarnioak—, ideien beren trafikiko moduagatik esaten dut orain: komenentzien arabera baliatzen eta desbaliatzen ikusten ditugun arrazoi horiena, bidezkoa denez, ideien elkarrizketan ez baina ideiekin borrokan ari bagara. Kontzeptuak eta ideiak orduan armak besterik ez dira, eta horrenbestean bakarrik balio dute. “Demokrazia” da horrelako ideia arma bilakatu bat. Baina (“bakea”, “tolerantzia”...) pentsaera publiko guztia da, berriro fetitxez armatua dagoena, Gurutzadarako, Espainia eter-

noan. Orduan Gibraltar kolonia da, Ceuta ez; Miranderen pentsamendua faxista da, abertzalea bada, eta pentsamendu bera doktore honoris causa da, haren erabilera posmoderno antiabertzalea eginez gero; moral kristauaren aurka Nietzsche eta nietzscheanoak kanonizatzen dira, eta berdenboran sakratua deklaritzen da demokrazia³... Komedia egiten da (komedia intelektuala, esan nahi dut), tragediari ihes egitearren. Azkenean ezerk ez dio ezer axola, kontua “gaiztoak” kiskaltzea da eta plazan ahalik jende gehiena biltzea txalo-zartaka entzuten peredikia.

Pentsamendua “demokrazian” propaganda da: dominazio tresna bat.

Xabier Mendigurenek —alegia, *Espainolak eta euskaldunak* argitara egin behar zela erabaki zuenak— hautatu eta argitara dituen hemengo saio hauek, orain zazpizortzi urte *Jakin*-en idatziak dira. Eta, gibelera begiratu eta, badu gutxienez hamar urte, faxismotik apenas irten orduko atzera “demofaxismorantz” goazelako ene susmoa adierazten nuela (*Jakin* 41, 1986, 104-105). Geroz eta gehiago razionalitatea “administrazio zuhur eta guztiz jakitun” batek osatzen du; eta demokrazia Estatu horrekin txere berdintzen da, horren interesekin eta mekanismoekin. Demokrazia sakratua da, baina sakratuena demokraziaren Estatu kontrola. Kontua ez da Espainiakoa bakarrik. Aurtan hamar urte da, hain zuzen, 1987ko martxoaren 17an Charles Pasqua Barne ministro frantsesak oso egoki formulatu zuela errealitatea, zuzentasun demokratiko estrik-

3) Demokrazia kristautasun pupu-purua da Nietzscheren arabera: esklaboen moralak asmatu-rikiko politikaren perbertsioa.

toaren espresioa izan nahi zuen sententzia honekin: “La démocratie s’arrête là où commence l’intérêt de l’Etat”.

Demokrazia baino lehen Estatua da. Gero, zuzentasuna zertan datzan eta zertan ez, Estatuak erabakitzen du. Askatasuna zenbat egon behar duen eta zenbat ez, Estatu interesen arabera neurtzen da. Funtsezkoa —substanti-boa— beti Estatua da, axal gaineko diferentzien azpitik beti aldatu gabe dirauena. Zer da, beraz, demokrazia? Demokrazia Estatuari orain (orain: beti ez) interesatzen zaiona da — zaion neurrian. (Demokraziari interesatzen zaion Estatu guran gu, oster! Baina gu, euskal demokraziaren mitoan ez denean, euskal demokraziaren utopian ei gabiltza beti, esango du demokrata razionalak)...

Zer esango dugu? Hori horrela, Printzeak ez dauka demokrazian Machiavelliren beharrik aholkulari: inkorporatua dauka sisteman.

Weimarko Errepublikaren tragediaz aspaldian interesatu izan den batentzat, demokraziaren kritikan ausartzea orain, ez da zerbait lotsa —eta beldur ere— ematen ez duen lana. Anbigua eta deserosoa da. Nolabait zikina. Baina garai oso garbietan inor ez gabiltza antza. *Bitarteen* azkeneko zenbakian (10, 1996) elkarrekin parekatuta aurkitzen ditut E. Cassirer filosofo judua eta M. Heidegger filosofo nazia (nazionalismoa eta nazismoa ere gauza bera da, etc.: bereiztea ja ez da filosofiaren egitekoa): eta Gorriaran EHko Unibertsitateko irakaslearen arabera, Alemania nazitik ihesi bere emaztearekin eta umeekin

4) Azken ordukoa: autore berak oraintsuago “mugimendu nazional-sindikalistaren karikatua” deritzo ELA sindikatuari, Estatuaren ahulezia salatzeke Gernikan bildu duen manifestazioaren kariaz (ik. *Egunkaria*, 1997ko urriak 24, “Gernikazoa”).

Suitza, Ingalaterra, Eskandinabiatik zehar odisea mingarri bat ibili behar izan duen eta 1945eko apirilean Amerikan hil den E. Cassirer juduak, nazismoan eta bere patuan “directa responsabilidad” berak omen dauka⁴... Bitartean E. Jünger doktore honoris causa EHko Unibertsitatean! Biba konfusioa: hortik bizi da gure razionalitate demokrati-koa! Zakuan ondo nahastu eta konfunditu borreroak eta biktimak, eta borrarorik eta biktimarik ez dago: biktimak berak dira borreroak⁵... (Gure kaleetan gertatzen ari denaren islada?).

Orixek bezala bukatzeko: “Hitz bi baino gehiago dira, irakurle, eta parkatu”. Gure herria ibiltzen ari den gurez-bidea —gezurbidea— meditatzen jarraitu beharko dugu.

5) Gure demokrazia honetan “intelektual ausart” suerte batek pertsegituak pertsegitzen ditu beti (atzoko pertsegituak eta gaurkoak); alegia, gaitzetsiak salbatu eta salbatuak gaitzetsi egiteko imintzio posmoder- noekin, borreroen eta biktimen konfusio nahaspila bilatzen du. Ezin du toleratu —beharbada bere kontzientzian badakielako, demokrata mas- kararen azpian faxista hutsa dela bera?— faxismoaren biktimarik ego- tea. egotea.

Aurkibidea

- 7 Atarikoa (Xabier Mendiguren Elizegi)
- 13 Miranderen kritika Iraultza frantsesari
- 17 *Abertzaletasun ez kristau, ez demokratiko baten bila*
- 41 *Demokraziaren kritika Nietzsche eta Splengler-en ildotik*
- 73 Nietzsche, Jünger: anekdota baten esanahi paradigmaticoak
- 79 *Meditazio bat udazkenean*
- 87 *Momentu eskizofreniko batean*
- 107 *(In)moralitasun publikoaz*
- 127 Hitz bi bukatzeko